

# Jakin196

maiatza-ekaina  
2013



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako aldizkaria*

## AURKIBIDEA



### ZENBAKI HONETAN

**7**

### GAIAK

**11** Kultura eta natura, zein baino zein  
AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA

### HISTORIA BIZIA

**35** Ramon Labaieni elkarrizketa  
IMANOL MURUA URIA

### EGUNEN GURPILEAN

**103** HAIZEA BARCENILLA  
INAKI IRAZABALBEITIA  
GOIZALDE LANDABASO  
LIONEL JOLY  
JOSU LARRINAGA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2013ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €

## SUMMARY



### **CULTURE AND NATURE: FACE-TO-FACE**

The professor of Philosophy Agustin Arrieta Urtizbera analyses the dialectics existing between culture and nature in understanding the main features of the human nature. Basing himself on the work by the philosopher Jesse Prinz, *Beyond Human Nature* (2012), which shows a clear commitment to the prevalence of culture in determining human identity, the author focuses on what are perhaps the two most significant aspects of the debate: the innate or cultural nature of human language and of moral values. **AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA**

### **INTERVIEW WITH RAMON LABAIEN**

The journalist Imanol Murua Uria conducts an extensive interview with the politician, Ramon Labaien, in a new issue in the *Living History* series. The interview takes a thorough look back over Labaien's life: his childhood in Tolosa; the outbreak of war and family exile in the North Basque Country; his recollections of the German occupation during the Second World War; his return to San Sebastian and his Chemistry studies in Madrid; his initial contacts with politics in EGI and the PNV; his work experience as a chemist in England and Navarre; his political experience as Minister of Culture in the first Basque Government of the post-Franco era under the *Lehendakari* (Basque President) Carlos Garaikoetxea —Basque public radio and TV; HABE; the symphony orchestra; Antzerti; the Law governing the Basque Language— and subsequently, as mayor of San Sebastian; his hobby involving making miniature metal soldiers; his work as advisor in a weapons factory... He also offers us his opinion about a range of personalities from Basque cultural and political life with whom he maintained close contact. **IMANOL MURUA URIA**

## **NEWS TODAY**

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barceñilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 196. zenbakia da eta 2013. urteko hirugarrena.

Zenbaki honek ez du gai nagusirik jorratzen. Horren ordez, *Gaiak* eta *Historia bizia* sailek osatzen dute zenbakia. *Gaiak* sailean, giza nortasuna ulertzeko natura eta kulturaren arteko dialektikari buruzko Agustin Arrieta Urtizberearen artikulua dator, eta *Historia bizia* sailean Ramon Labaieni egindako elkarrizketa.

Lehenengo artikuluan, beraz, giza nortasunaren ezaugarri behinenak ezagutzeko orduan kulturaren edo naturaren lehentasunaren inguruan sortzen den eztabaida filosofikoari buruz dihardu Agustin Arrieta Urtizbereak. Giza izaeraren zehaztapenean lehentasuna kulturari dagokiola defendatzen duen Jesse Prinz filosofoaren *Beyond Human Nature* (2012) idazkia abiapuntutzat hartuz, eztabaida horretako bi auzi nagusiri heltzen die Arrieta Urtizbereak: giza hizkuntza eta balio moralak, sortzetikoak edo kulturalak dira?

*Historia bizia* sailean, Ramon Labaien politikaria elkarrizketatu du Imanol Murua Uriak kazetariak. Labaienen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Tolosan; Ipar Euskal Herriko egonaldia gerra zibilaren ondorioz; Bigarren Mundu Gerrako aleman okupazioari buruzko oroitzapenak; Donostiara itzulera eta Madrilen egindako Kimika ikasketak; politikarekin lehen harremanak, EGLren eta EAJren baitan; kimikari gisa Ingalaterran eta Nafarroan izandako lan esperientzia; frankismo ondoko lehen Eusko Jaurlaritzan, Carlos Garaikoe-txea lehendakariaren gobernuan, Kultura sailburu gisa izandako esperientzia politikoa: euskarazko telebista eta irrati publikoak, HABE, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Antzerti, Euskararen Legea...; horren ondoren, Donostiako alkate gisa izandakoa; metal zurizko soldadutxoak egiteko zaletasuna, alor horretan munduko artisau entzutetsuenetakoa izatera

iristeraino; arma fabrika batean gai militarretako aholkulari modura eginga dako ibilbidea... Azken batean, bere bizitza eta lanari buruzko testigantza jasotzen du *Historia bizia* sailaren hamaseigarren emanaldi honek, aurrekoetan Piarres Xarriton, Federiko Krutwig, Juan San Martin, Jesus Atxa, Antonio Zavala, Jean Louis Davant, Xabier Gereño, Iñaki Beobide, Gotzon Garate, Imanol Urbieto, Jose Antonio Arana Martija, Balendin Lasuen, Ander Manterola, Joseba Intxausti eta Jean Haritxelharrenak ekarri ondoren.

*Egunen gurpilean* saileko orrialdeetan, ohi bezala, arte, teknozientzia, literatura, soziolinguistika eta globalizazioaren inguruko berriak dituzte aipagai, estilo arin eta bizian, Haizea Barcenillak, Inaki Irazabalbeitiak, Goizalde Landabasok, Lionel Jolyk eta Josu Larrinagak. ¶



G A I A K



**11** AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA  
Kultura eta natura, zein baino zein

# Kultura eta natura, zein baino zein

AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA

EHUko Filosofia irakaslea

Lan hau, azken buruan, liburu baten iruzkin kritikoa da.<sup>1</sup> 2012an Jesse Prinz filosofoak *Beyond Human Nature* (*Giza naturatik harantzago*) liburua plazaratu du. Liburua polemikoa da, batez ere zenbait esparrutan indarrean edo nagusi diren ikuspegiei aurre egiten dielako. Apustu garbia egiten du Prinzek: kulturaren eta naturaren arteko dialektikan,<sup>2</sup> oro har, garaipena naturari ematen bazaio ere, bera kulturaren alde agertzen zaigu. XX. mendearen azkeneko laurdenetik aurrera batez ere, kulturaren eginkizuna gutxietsi da, Prinzen ustez. Esaterako, giza nortasunaren ezaugarriak ulertzeko, hau da, bortitzak edo lasaiak, argiak edo motelak, abegikorrak edo erasokorrek zergatik garen ulertzeko, naturara jo ohi da, besteak beste, geneetara jo ohi da. Prinzek bestelako iritzia dauka. Haren arabera, kultura, ezinbestekoa izateaz gain, garrantzitsuagoa da natura baino aipatu ezaugarriak ulertzeko. Kulturak bideratzen du gure nortasuna, naturak baino gehiago. Halaber, kultura ezinbestekoa eta eragile nagusia da ulertu ahal izateko zer dakigun eta zer ez. Ildo horretatik, eztabaida klasikoa da *sortzetiko ideiei* buruzkoa (*Locke/Leibniz* deritzon polemika klasikoa): zer da dakiguna, edo zenbat dakigu,

munduratzeko garenean? Batzuen ustez, huts-hutsik gatz mundura; beste batzuen ustez, berriz, gurekin batera sortzetiko ideiak datoz, sortzetiko ezagutza ematen digutenak. Lehenengoek kulturari edo esperientziari ematen diote garrantzia; besteek, ordea, naturari. Prinz lehenengoaren artean kokatu beharko genuke. Antzeko eztabaidak jarri dira mahai gainean hizkuntzari, genero desberdintasunari edo balioei dagokionez. Horixe da, bada, Prinzen gogoeta esparrua: zenbateraino, noraino, determinatzen gaitu naturak? Eta kulturak?

Jakina, nolako erantzunak, halako ondorioak. Esaterako, hizkuntza dela-eta, Prinzek chomskyarrei egiten die aurre. Horien arabera, hizkuntz aniztasunaren azpian badago, Steven Pinkerren hitzetan, *hizkuntza-sena*, sortzetikoa eta giza naturaren zati dena. Chomskyarrek, hizkuntzari dagokionez, natura lehenesten dute. Ikusiko dugunez, Prinzek uste du egoera oso bestelakoa dela, eta esparru horretan ere kulturaren aldeko apustua egingo du. Dirudienez, apustu horrek gerturatuko du Prinz bera zenbait chomskyarrek (Pinkerrek, besteak beste) hain gogor kritikatu duten hizkuntz erlatibismora.

Nire asmoa da Prinzen argudioen aurkezpena egitea eta, orobat, haren tesien ebaluaketa kritikoa egitea. Liburua goitik behera interesgarria da, informazioz eta argudioz betea. Gainera, liburuak badu halako izaera dibulгатibo/didaktikoa, eta horrek errazten du, itxura batean behintzat, polemikatan sartzea. Metodologikoki eredu garria da, nire ustez, oso gustuko dudana filosofia egiteko modu baten adibide garbia: betiko gaiak, arazoak eta argudioak betea, azkeneko gogoeten eta ebidentzien argipean. Horrek ez du esan nahi berarekin bat egiten dudanik. Berak erabilitako metodologia bera erabiliz, saiatuko naiz erakusten zenbait gairi dagokionez bestelako tesiak aldarrikatzea posible dela.

## Nola ulertu *giza natura*

Liburuko gibelsolasean, Prinzek *giza natura* ulertzeko hiru modu bereizten ditu. Lehenik eta behin, *giza naturak*

adierazten ditu gizakiak dituen berezko ezaugarriak, hots, bestelako animalietatik bereizten gaituzten ezaugarriak. Adibide klasiko asko daude. Esaterako, pentsalari batzuen arabera, gizakia animalia arrazoimenduna da. Arrazoimena da, bada, gizakiaren bereizgarria. Badaude bereizgarri gisa, arrazoimena baino, hizkuntza proposatzen dutenak. Beste pentsalari batzuen arabera, gizakia da animalia etikadun edo moraldun bakarra. Eta azkeneko bat aipatzearren, gizakia litzateke teknika eta teknologia garatu duen izaki bakarra animalien erresuman. Azken buruan, arrazoimena, hizkuntza, morala edo teknika erabili ohi dira giza natura zertan den zehaztu ahal izateko.

Bigarrenik, zenbaitetan *giza natura* adierazpenaren bitartez zehaztu nahi da zeintzuk diren gizarte guztietan agertzen diren ezaugarriak, alegia, gizarte ezaugarri unibertsalak adierazi nahi dira. Helburu horrekin, antropologoek eta, oro har, zientzialariek leinu eta giza taldeetan arakatzten dute, ezaugarri unibertsalak aurkitu nahian. Adibidez, giza talde guztietan artearen arrastoak aurkitzen dira. Hortaz, artea litzateke giza naturaren zati. Edo beste batzuen arabera, erlijioa gizarte mota guztietan agertzen da. Gertakari horretatik abiatuz, erlijioa giza naturaren alderdi bat dela ondorioztatzen dute.

Azkenik, *giza naturak* sortzetiko ezaugarriak adierazten ditu. Pentsalari batzuek pentsatu dute sortzetiko ideiak edo ezagupenak badaudela. Hala balitz, horiek liriateke giza naturaren zati. Beste batzuek uste dute hizkuntza sortzetikoa dela, alegia, badagoela sortzetiko mekanismo propio edo berariazko bat hizkuntza gureganatzeko ahalmena bideratzen duena. Batzuek uste dute sortzetik gure baitan darabatzagun geneek neurri handi batean determinatzen dutela gure izaera. Batzuek uste dute sortzetiko ezaugarri fisikoek, zentzu zabal batean ulerturik, generoen arteko bereizketa dakartela.

Egileak berak dioenez, giza natura ulertzeko modu horiek ez dira elkarrengandik independenteak, zenbaitetan bata

bestearekin edo besteekin txirikordatzen da, baina, halere, *giza natura* ulertzeko ikuskera desberdinak dira. Esaterako, jende askok aldarrikatzen du erlijioa unibertsala dela, baina jende gutxik defendatzen du erlijioaren izaera sortzetikoa. Horrek garbi uzten du *giza naturaren* bigarren eta hirugarren zentzuak ez datozela bat. Prinzek hirugarrenaren bidea aukeratu du nagusiki, eta nik ere, jakina, gauza bera egingo dut. Giza naturaz, labur esanda, giza biologia ulertu behar dugu edo, agian argiago, gizakiak dituen sortzetiko ezaugarriak.

## Lehenengo hurbilketa. Adibide bat

Natura/kultura dialektikaren barruan behin baino gehiagotan muturreko jarrerak agertzen dira. Horrelako leloak ez dira ezohikoak: «dena kultura da», «dena natura da». Garbi utzi behar da Prinzen jarrerak ez duela zerikusirik horrelako muturreko jarrerekin. Prinz hasiera-hasieratik saiatzen da deskribatzen zein den giza natura. Hari horretatik, azkeneko ikerketen jarraipena eta ezagutza erakusten du behin eta berriro. Beraz, haren jarreran ez dago giza naturaren inongo ukaziorik. Prinzek, kulturaren eginkizuna azpimarratzen badu ere, ez du «dena kultura da» modu itsu-itsuan aldarrikatzen. Auzian dagoena da ea giza naturaren eragina zenbaterainokoa den, eta, eragin hori neurtzeko, egin behar den lehenengo gauza da giza natura ezagutu. Itxura guztien arabera, Prinzek ahalegin handia egin du ezagutza hori lortze aldera.

Prinze adibide bat jartzen du mahai gainean (6-8. ork.), eztabaidaren edo dialektikaren nondik norakoa ikus dezagun. Har ditzagun aintzat gizakiak dituen bi gaitasun: koloreak bereizteko gaitasuna eta beisbolean aritzeko gaitasuna. Gaitasun horiek zenbateraino dira naturalak? Edo kulturalak? Prinzen arabera, koloreak bereizteko gaitasuna sortzetikoa da, giza naturari dagokio; izan ere, gizakiak badu gaitasun hori ahalbidetzen eta bideratzen duen oinarri biologiko berezkoa. Oso garrantzitsua da, esku artean daukagun eztabaidari begira, oinarri biologiko hori berariazkoa iza-

tea, hau da, gaitasun horri propio dagokiona. Eta hala da, gizakiak zelula berezi batzuk ditu, objektu batek islatzen duen izpiaren uhin luzerarekiko sentiberak direnak. Beraz, mekanismo biologiko bat dago gure baitan, koloreak bereizteko gaitasunari propio lotzen zaiona. Ildo horretatik, koloreak bereizteko gaitasuna giza naturari atxikitzen zaio, kulturari baino.

Eta beisbolean aritzeko gaitasuna? Kasu horretan, gizakia ez da jaiotzen trebezia edo ahalmen *berariazkoekin* edo espezifikoeekin gaitasun hori garatu ahal izateko. Gizakiak trebezia edo ahalmen orokor batzuk ditu: besteak beste, korrika egiteko, sigi-saga aritzeko eta jauzi egiteko ahalmenak. Baina ahalmen horiek ez dira propio beisbolean aritzeko; ahalmen orokorrak dira, hainbat jardueratan erabiltzen eta garatzen direnak. Hemen kulturak eginkizun garrantzitsua du: kulturak edo esperientziak bideratzen ditu ahalmen orokor horiek jarduera mota berezi batera, hain zuzen, beisbolean aritzera. Horrenbestez, beisbolean aritzeko gaitasuna, naturala baino, kulturala da.

Beraz, aipatu bi gaitasun horietan giza naturak badu zeregina, bietan; baina, bigarren kasuan ez bezala, lehenengo kasuan sortzetiko mekanismo berariazko bat dago gaitasun mota hori ahalbidetzen eta bideratzen duena ia guztiz. Liburuko beste atal batean, Prinzek azaltzen digu kulturak ere eragiten duela koloreak bereizteko gaitasunean, baina, hain zuzen, naturak jarraitzen du nagusi izaten.

Adibide horiek aintzat hartuz, hala planteak daiteke natura/kultura dialektika, esaterako, giza hizkuntzari dagokionez: giza hizkuntza fenomeno naturala edo kulturala al da? Hau da, beisbolaren kasuaren antzekoa al da? Edo kolore bereizketaren gaitasunetik gertuago al dago? Orobat, generoen arteko bereizketari dagokionez ere pareko eztabaida planteak daiteke, baita balio moralei dagokionez ere. Beraz, auzi horietan guztietan naturak eta kulturak esku hartzen dute. Kontua da zein den nagusia, kontua da zenbaterainokoa den bataren eta bestearen eragina.

Oinarrizko bereizketa eta zehaztapenak egin eta gero, nire helburu nagusia izango da Prinzen ikuspegia eztabaidatzea. Helburu horri begira, bi auzi aukeratuko ditut: hizkuntza eta morala (edo balio moralak).

## Giza hizkuntza, sortzetikoa edo kulturala?

Giza hizkuntza benetan harrigarria da. Egitate izugarri konplexua da; hain da konplexua, ezen zientzia batzuk beraz arduratzen baitira. Gainera, gizakiaren bereizgarririk argientzat hartu izan da behin baino gehiagotan: hizkuntzak, antza, gainerako animalietatik bereizten gaitu, gizakia hizkuntzadun animalia da nagusiki. Horretaz gain, hizkuntza giza taldeen bereizgarria ere bada. Zenbaitetan aldarrikatzen da hizkuntza dela herri, nazio, etnia edo talde baten ezaugarrikerik berezkoena. Beraz, arrazoi asko daude hizkuntza gai garrantzitsu gisa jorratzeko. Eta horregatik goiko galdera da horren garrantzitsua: sortzetikoa al da? Kulturala al da?

Steven Pinker chomskyar pentsalariak, *Hizkuntza-sena* liburuan, luze argudiatu du sortzetiko hizkuntzaren alde, hau da, kulturari baino giza naturari lotzen zaion hizkuntzaren alde. Besteak beste, hauxe dio: «Hizkuntza ez da kultura-asmakizun hutsa... Aitzitik, gure burmuinaren osaera biologikoaren atal bereizi bat da. Gaitasun konplexu eta espezializatua da hizkuntza» (10. or.). *Sortzetiko* hitza behar bezala ulertzeko, oso garrantzitsua da Pinkerrek erabiltzen duen *gaitasun espezializatu* edo *bereizi* kontzeptua. Hizkuntzaren alde kulturala goresten dutenek onartzen dituzte gizakiak dituen ezaugarri biologikoak, eta ezin dute ukatu ezaugarri horiek duten garrantzia hizkuntza bezalako zerbait gerta dadin. Baina ez dute onartzen gaitasun espezializatu bat dagoenik, ez dute onartzen hizkuntzari lotzen zaion sen bereizi eta berariazko bat dagoenik. Gogora dezagun gorago deskribatu dugun beisbolaren adibidea. Kasu horretan ez dago sortzetiko gaitasun berariazkorik. Gehienez jota, kulturalki edo esperientziaz bideratu diren gaitasun orokorrak daude. Ho-

rretan datza naturaren eta kulturaren zaleen arteko aldea, gaitasun espezializatu edo berariazko horren onarpenean. Naturaren aldekoek onartzen dute; kulturaren aldekoek, berriz, ez. Hizkuntzari dagokionez, Pinkerrek onartzen du.

Horrek ondorio interesgarriak dakartza. Prinzek egiten duen deskribapenean, chomskyarrek hizkuntza-sena giza naturaren osagai gisa ulertzen dute. Gainera, sortzetiko hizkuntza-sen hori isolaturik dago pentsamendua eratzen duten gainerako baliabide psikologikoetatik (180. or.). Horrek zailtzen du pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko interakzioaren aukera. Pinkerren arabera, giza gogamena sortzetiko mekanismo espezializatuen multzo bat da, eta eboluzioak zorrotz mugatu edo zehaztu ditu mekanismo horiek (190. or.). Horregatik, jendeak pentsatzen duen moduen edo pentsaeren artean ez dago alde handirik. Chomskyarren ikuskera horrek polemika handia piztu du, nolabait esatearren, dena berdintzen duelako, aniztasuna desegiten edo ahultzen duelako.

Chomskyarren aldean, Prinzen planteamendua oso bes-telakoa da. Prinzek aniztasunaren alde jokutzen du, bai pentsamendu aniztasunaren alde, bai hizkuntz aniztasunaren alde: hizkuntza senezkoa baino asmakizun kulturala da. Natura/kultura eztabaidaren barruan, Prinzek kulturaren alde jokutzen du. Unibertsal zurruna baino, malgutasunaren adibidea da hizkuntza. Areago, hizkuntza aniztasunak, neurri batean, pentsamendu aniztasuna ere dakar berekin. Nola? Nola justifikatu ikuspegi hori?

Prinzek, bere ikuspegia ehuntzeko asmoz, zenbait tesi, teoria, esperimendu eta ebidentzia ekartzen ditu gogora.

Lehenik eta behin, Prinz bat dator chomskyarrekin puntu batean: pentsamenduaren eremua eta hizkuntzarena bi eremu desberdin dira. Jakina, badago pentsatzen duenik bi eremu horiek estu-estu lotuta daudela, hain estu ezen gauza bera baitira. Ez da hori Prinzek pentsatzen duena. Hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremana hain estua baltitz, onartu beharko genuke hizkuntzarik gabeko pentsamen-



durik ez legokeela. Orduan, zer esango genuke animaliei (edo animalia espezie batzuei) buruz? Prinzek berak uste du litekeena dela hizkuntzarik gabeko pentsamendua. Esaterako, animaliek ez al dituzte, besteak beste, usteak, zeinen arabera jokutzen baitute? Ildo beretik jotzen du Pinker chomskyarrak: «Batean, haurtxoak dira protagonistak; haurrek ezin dute hitzez pentsatu, oraindik ez baitute hitzik ikasi. Beste batean, berriz, tximinoak; tximinoek ezin dute hitzez pentsatu, ez baitira gai hitzik ikasteko» (70. or.). Noski, Pinkerren ustea da bai haurtxoek bai tximinoek beren mailan pentsatzen dutela.

Pinkerrek beste arrazoi bat ematen digu pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko nolabaiteko distantzia ezartzeko. Kasu honetan arrazoa intuizio sakon batean oinarritzen da:

Guztiok izan dugu inoiz bizipen hau: esaldi bat esan edo idatzi eta, gelditu bezain laster ohartu gara hori ez zela, zehatz-mehatz, esan nahi genuena. Sentipen hori izan ahal izateko, «esan nahi genuen zer» batek existitu behar du, nahitaez, esan dugunaz bestelakoa dena. Batzuetan ez da erraza pentsamendu bat egokiro adieraz dezakeen hitzik aurkitzea (58. or.).

Beraz, aurrera egiteko asmotan, onar dezagun hizkuntzarik gabe badagoela pentsatzea, edo pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko bereizketa gitea badagoela.

Baina zein da pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko harremana?

Pentsalari batzuek aldarrikatu dute pentsamenduaren erresuma erkide dela, denok partekatzen dugun erresuma, eta hizkuntza litzateke pentsamendu hori *adierazteko baliabidea*, besterik gabe. Pentsalari horien artean koka genitzake Aristoteles, Descartes, Locke, Frege edo Chomsky bera. Pentsalari horiek, neurri batean hizkuntz aniztasuna onar badezakete ere, uste dute aniztasun horrek ez duela inpaktu aipagarria pentsamenduaren erresuman.

Prinz ez dator bat arestian aipatu ditugun pentsalariekin (176-177 ork.). Zehatzago, neurri batean ados dago haiekin, hizkuntza pentsamenduaren adierazpidea dela onartzen baitu. Pentsamenduaren gainean, nolabait esatearren, garatzen

da hizkuntzaren eginkizuna. Alabaina, Prinzen arabera, badago beste noranzkoa duen eragina, hain zuzen ere, aipatu pentsalariak kontuan hartu ez dutena: hizkuntzak berak eragin dezake pentsamenduaren sarean. Ikuspegi horri *hizkuntzaren gaineko teoria interaktiboa* deritzo Prinzek. Hori, segurua asko, gizakien kasuan edo, nahi bada, giza hizkuntzaren kasuan bakarrik gertatzen da. Hala balitz, noski, hizkuntzak eragingo luke pentsamenduaren erresuman. Teoria interaktiboa bide zuzenetik joango balitz (Prinzek psikologiko zenbait esperimentu ekartzen ditu gogora aipatu teoriari indarra emateko; esaterako, margo batean *ikusten* duguna zeharo alda daiteke margoaren *izenburua* zein den jakinez gero), chomskyar ikuspegiak arazoak izango lituzke, Prinzen ustez. Chomskyar baten ikuspegian, antza, hizkuntzaren ahalmena bestelako ahalmen kognitiboetatik independentea da; hizkuntzaren funtzioa da pentsamendua adieraztea eta komunikazioa bideratzea. Esan bezala, chomskyar ikuskeran, hizkuntza gaitasun espezifiko bat da. Egia esateko, Prinzek onartzen du chomskyarrek ere interakzio mota bat onar dezaketela, *zeharkako eragina* deritzona. Esaterako, hizkuntzaren bitartez eskura dezakegu informazio berria besteengandik, baina horrek ez du aldatzen guk *nola* pentsatzen dugun. Akaso, alda dezake guk *zer* pentsatzen dugun (174. or.). Prinzek aldarrikatzen duen eragina sakonagoa da, indartsuagoa. Zenbait esperimentutan oinarrituz, aldarrikatzen du hizkuntzak eragiten duela pentsamenduko errepresentazioetan, aldarrikatzen du *hizkuntzaren gaineko teoria interaktiboa*.

Interakzioa edo eragina onartuta, zenbaterainokoa da aipaturiko eragina? Hizkuntz aniztasunak pentsamendu aniztasuna eragiten al du?

Hari horretatik, ezaguna da Edward Sapir eta Benjamin Lee Whorf pentsalarien erantzuna: hizkuntzak taxutzen du pentsaera eta, halaber, munduaren gaineko ikuskera. Zenbaitetan, hipotesi horri erreferentzia egiteko *hizkuntz erlatibismoa* aipatzen da. Egun adostasun nahikoa zabala dago Sapirrek eta Whorfekek beren hipotesia justifikatze aldera emandako

adibideak eta ebidentziak ez direla batere egokiak. Esaterako, eskimalek elurra izendatzeko erabiltzen dituzten hitz kopuruaren kasu ospetsua. Prinzek berak onartzen du Sapirrek eta Whorfek ez zutela fin jokatu beren tesia justifikatzeko orduan. Hala eta guztiz ere, Prinzek begi onez ikusten du *Sapir-Whorf* hipotesia. Onartzen du XX. mendearen 90eko hamarkadan aipatu hipotesia maldan behera zihoala, chomskyarrak nagusi zirelako. Prinzen arabera, ordea, azkeneko urteetan *Sapir-Whorf* hipotesia piztu da berriro.

Hipotesi hori justifikatzeko zenbait urrats eman behar dira (183. or.). Batetik, hizkuntz aniztasuna, modu interesgarri batean, egon badagoela erakutsi behar du. Bigarrenik, erakutsi behar du badagoela korrelazio bat pentsamendu aniztasunaren eta hizkuntz aniztasunaren artekoa. Eta, azkenik, justifikatu beharko du hizkuntz aniztasunak pentsamendu aniztasuna kausatzen duela. Lehenengoa onartuz, bigarren eta hirugarrenaz arduratuko naiz.

Prinzek erakusten duenez, espazioari buruzko pentsamendua hizkuntzaren arabera dela justifikatzen duen ebidentzia badago. Halaber, badago ebidentzia erakusten duena gauzak zenbatzeko era hizkuntzaren arabera dela. Baina zer ondorioztatu daiteke bi ebidentzia horietatik abiatuz? Prinzek dioen bezala, onargarria da pentsatzea hizkuntzak eragina duela gauzak espazioan ordenatzeko moduan edo gauzak zenbatzeko moduan, ebidentzia horiek erakusten dutenez. Halere, haren ustez, ebidentzia horien gainean ezin da hizkuntz erlatibismoa funtsatu. Izan ere, Prinzek onartzen duen bezala, espaziotik antolatutako kasuan, hizkuntza bateko kideak beste kidea zailtasunik gabe uler dezake, nahiz eta hizkuntzaren eraginez gauzak espazialki modu desberdinetan antolatzen dituzten (184-185. or.): hau da, batak ikas dezake bestearen metodoa zailtasun berezirik gabe. Egoera hori, nire ustez, oso urruti dago hizkuntz erlatibismotik. Ez dago benetako desadostasunik bi hiztun horien artean, eta desadostasuna beharrezko baldintza da hizkuntz erlatibismoaz mintzatu ahal izateko.

Baina hizkuntzak eragin al dezake gure hautemateetan? Itxura guztien arabera, eragite hori sakonagoa litzateke ares-tian aipaturiko bi kasu horiek baino. Eragite horrek mundua ikusteko moduari dagokion desadostasuna ekarriko luke, hautematea izan baitaiteke pentsamenduaren lehenengo aztarna, errealitatearen lehenengo errepresentazioa (eta, itxura guztien arabera, badaude hizkuntzarik ez duten eta hautematen duten animaliak). Prinzek aipatzen du koloreen hautematearen kasua. Prinzek deskribatzen ditu, kolore ize-nei dagokienez, hizkuntzen arteko aldeak. Adibide batzuk ematen ditu. Zalantzarik gabe alde horiek egon badaude. Gainera, erakusten digu berezitasun linguistiko horiek nola eragiten duten, ustez, koloreen hautematean edo koloreak bereizteko eta alderatzeko trebetasunean. Adibideak interesgarriak dira. Esaterako, mexikar hizkuntza batean hitz bakarra dute (gure) berdea eta (gure) urdina izendatzeko. Orduan hizkuntza horretako hitzun bat jartzen baldin badugu zenbait tonu urdin eta berderen aurrean, gerta daiteke harentzat berde mota bat urdin mota baten antzekoagoa izatea beste berde mota batena baino. Alegia, haren hizkuntzak berdearen eta urdinaren arteko mugarik ezartzen ez duenez, horrek eragina dauka koloreak bereizteko eta alderatzeko gaitasunean.

Halere, lehen adierazi bezala, mota horretako adibideetatik abiatuz, koloreen hautematearen kasua barne, hizkuntz erlatibismora jauzi egitea gehiegikeria iruditzen zait. Garbi dago, edo onar dezakegu, hizkuntzak eragina daukala gure sailkapenetan, baina ikusten ez dudana da nola eragiten duen gure zentzumen esperientzian edo gure hautematean. Hala balitz, orduan bai, orduan izango genuke bi hitzunen arteko desadostasun sakon bat, eta gainera desadostasun horrek ez luke inongo konponbiderik izango; izan ere, desadostasunaren barruan, inork ez luke inongo akatsik egingo. Hori litzateke hizkuntz erlatibismoa. Prinzek proposatzen duen koloreen inguruko adibideetan ez dut ezer ikusi jauzi hori emateko aukera emango digunik.

Hurrengo adibidea generoari dagokio. Funtsean hauxe dio Prinzek: hizkuntza batzuek, modu arbitrarioan, izenak (edo izen batzuk) maskulino edo femenino gisa markatzen dituzte. Esaterako, gaztelaniaz, «la llave», «el puente»... Gainera, genero bakoitzari estereotipo bat lotzen zaionez, estereotipoak gauzetara hedatzen dira, gauza horren izenak duen genero markaren arabera. Adibidez, gaztelaniazko hiztunek maskulinoari dagokion estereotipoa aplikatzen diote zubiari, eta ez giltzari. Horregatik, halako hiztun batek esango du zubiak direla honako-halakoak, estereotipoaren arabera. Hedatze horretan, hizkuntzak, eta hizkuntzak egiten duen banaketa arbitrarioak, eragin zuzena dauka. Prinzek gogora ekartzen digu psikologiako esperimendu bat, 2003. urtekoa, arestian aipatutakoa justifikatzen duena. Gainera, beste esperimendu batzuek iradokitzen dute gaztelaniazko hiztun horrek, esaterako, euskara ikasiko balu berekin eramango lukeela euskarara gaztelaniaren genero banaketa, nahiz eta euskarak ez egin horrelako banaketarik.

Nik zalantzak dauzkat Prinzek egiten duen deskribapenarekin berarekin. Lehenik eta behin, aipatu kasuan, dagoeneko ezarrita dauden estereotipo batzuk bideratzen ditu hizkuntzak. Baina estereotipoak ez ditu hizkuntzak sortu, estereotipoak pentsamenduan daude, duten iturria dutela. Beraz, hizkuntzaren eragina nahikoa zeharkakoa da. Hizkuntzak bideratzen du estereotipoa, baina estereotipoa hor dago. Pentsamenduak genero banaketa bat egiten badu, printzipioz, hizkuntzarena bezain arbitrarioa izango da, hau da, aulkia (gaztelaniaz) femeninoa izango da eta zubia (gaztelaniaz) maskulinoa. Baina horrek ez du arazorik planteatzen. Arazoa sortzen da pentsamenduko estereotipoa jada problematikoa baldin bada. Beraz, arazoa hizkuntzan baino pentsamenduan, edo estereotipoan, dago.

Zer-nolako ondorioak ateratzen ditu, bada, Prinzek? Egia da Prinzen planteamendua, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko interakzioaren haritik, urruti dagoela chomskyarrenetik; baina, berak iradokitzen duenaren aurka, nire ustez nahi-

ko urruti dago *Sapir-Whorf* hipotesiaren hizkuntz erlatibismotik ere. Prinzen hitz hauek garbi islatzen dute nire ustea: «hori bezain onartezina da pentsatzea hizkuntza bateko hiztun batek ezin duela pentsatu beste hizkuntza bateko hiztun baten antzera» (190. or.). Zenbaitetan iruditzen zait Prinzek erlatibista gisa aurkezten duela bere burua, baina bere argudioek eta ebidentziek planteatzen duten eszenatokia erlatibista baino pluralista dela esango nuke. Eta pluralismoa eta erlatibismoa ez dira gauza bera, nire ustean. Zergatik? Erlatibismoa indartsuagoa da pluralismoa baino, esan nahi da, erlatibismoak pluralismoa dakarrela berekin, baina alderantzizkoa ez da betetzen: pluralismoak ez du zertan erlatibismoa ekarri. Geroago zertxobait gehiago jorratuko dut bereizketa hori.

Hizkuntz erlatibismoa soka luzeko tesia da, eta aitzindari asko ditu. Azken aldian Wittgensteinen ideiak ekartzen dira gogora behin eta berriro (beste kontu bat da ea Wittgenstein benetan erlatibista bat ote zen edo ez; ez naiz auzi horretan murgilduko). Phillipsek *The Challenge of Relativism* liburuan deskribatzen digu nola erabili diren Wittgensteinen ideiak hizkuntz erlatibismoa justifikatzeko. Hizkuntz erlatibismo horrek aldarrikatzen du bizitza mota desberdinak daudela hizkuntzen (edo, Wittgensteinen hitzetan, hizkuntza-jokoan) arabera. Eta pertsona batek ezin du ulertu beste bizitza mota bat, bizitza mota horretan, hau da, hizkuntza-joko horretan murgildu ezean. Hizkuntz erlatibismo horrek inplikatzeko du hizkuntza bakoitzak ikuskera bat dakarrela, eta ikuskera horiek alderaezinak direla. Hortaz, desadostasunak baldin badaude bizitza mota desberdinen artekoa, ez dago modurik desadostasun horiek desegiteko, alegia, ez dago modurik esateko bata zuzen eta bestea oker dagoela, zuzentasuna eta okertasuna hizkuntza-joko bakoitzaren barruan baino ezin baita finkatu. Hizkuntz erlatibismoaren deskribapen hori egokia bada, orduan, nire ustez, eta Prinzen beraren baieztapenei helduz, Prinzek marrazten digun eszenatokia oso urrun dago hizkuntz erlatibismotik, aniztasuna eta pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko eragin trukea onartuta ere.

Zein da azkeneko balorazioa? Uste dut natura/kultura eztabaida, hizkuntzari dagokionez, ez dagoela inola ere itxita. Nik, printzipioz, begi onez ikusten dut pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko bereizketa, hau da, uste dut hizkuntzarik gabeko pentsamendua posible dela (nahiz eta baiez-tapen hori behar bezala ulertzeko, «pentsamendu» hitzaren esanahia behar bezala zehaztu behar den). Uste dut hizkuntza, besteak beste, pentsamendu horren adierazpidea dela; baina hizkuntzak ere, nolabait esatearren, gauzak egiten ditu, besteak beste, pentsamenduaren baitan eragin dezake. Halere, eragin hori ez da hizkuntz erlatibismoa aldarrikatzeko bezainbestekoa. Hizkuntz erlatibismoak aldarrikatzen du norberaren hizkuntzak taxutzen duela pentsaera edo ikuskera bat. Baina hizkuntz erlatibismoa ez da hor gelditzen, zer edo zer gehiago eransten du. Hizkuntz erlatibismoak aniztasuna irudikatzen du zeharkaezinak diren gotorleku bilduma baten gisan, eta ez da hori Prinzen ikuspegia, nahiz eta erlatibistatzat hartzen duen bere burua zenbaite-tan. Atal hau amaitzeko, hona hemen Prinzen hitzak, erlatibismotik urrun samar dagoela erakusten dutenak:

Antza, hizkuntzek ez dituzte garraiatzen funtsean eta modu konponezinean desberdinak diren ikuskera metafisikoak. Gainera, hizkuntzak ez dira ezinbestekoak pentsatu ahal izateko. Halere, eragin handikoak dira. Hizkuntz aldakuntza ez da azalekoa. Hizkuntzak aukera garbia ematen digu erakusteko esperientziaren bidez eskuratu dugun zerbaitek nola taxutzen duen munduaren gaineko gure ulermena (190. or.).

## Balioak: sortzetikoak edo kulturalak?

Iruzkintzen ari garen liburuko azkeneko kapitulua balioei buruzkoa da, eta batez ere balio moralei buruzkoa. Gizakiek judizio moralak egiten ditugu sarri askotan: hilketa gaizki dago, lapurtzea gaizki dago, behar duenari laguntzea ondo dago... Prinzek aldarrikatzen du emozioek izugarritzko garrantzia dutela judizio moralak eratzeke uanean. Dei die-zaiogun moralari buruzko ikuspegi horri *moralaren teoria*

*sentimentalista* (MTS). Nik neuk ere zenbait tokitan horrelako teoria baten alde argudiatu dut. Hortaz, esan dezagun, oinarriari dagokionez, bat natorrela Prinzekin.

Prinzek, ondoren, kantiarrek proposatu dituzten zenbait argudio aurkezten ditu. Argudio horiek guztiak saiatzen dira MTS kritikatzeko. Prinzek zenbait arrazoi ematen ditu kantiarren eraso ahultzeko. Arrazoi horiek denetarikoak dira. Zenbaitetan esperimenduak jartzen ditu mahai gainean, beste batzuetan argibide historikoak. Kontuak kontu, MTS aldarrikatzen du: auzi moraletan emozioak eta sentimenduak dira nagusi, eta arrazoimenak menpeko edo bigarren mailako eginkizuna dauka moralean.

Ondoren, Prinzek emozio moralen mapa bat eskaintzen digu. Emozioetako batzuk besteek egindakoari lotzen zaizkio, eta beste batzuk norberak egindakoari. Lehenengoan artean higuina edo nazka, haserrea eta arbuioa dauzkagu. Bigarren taldean, besteak beste, errua eta lotsa ditugu.

Honela labur dezakegu Prinzen ikuspegia: oinarrizko balio moralak ekintzek guregan sortzen dituzten sentimendu moralak dira. Lapurtzea gaizki dagoela juzgatzen dugu lapurretak, oro har, sentimendu moral negatiboa eragiten duelako; hau da, beste batek egindako lapurretaren aurrean joera izaten dugu gorago aipatu emozio horietako bat sumatzeko.

Lantxo honetan ez dugu eztabaidatuko MTS zuzena ote den, edo kantiar teoria bat egokiagoa ote den. Hasiera batean, behintzat, koka dezagun gure burua MTS bezalako ikuspegiaren baitan, eta saia gaitezen Prinzek egindako ibilbidearen jarraipena egiten.

Pentsalari batzuek *sortzetiko moralaren* alde argudiatu dute. Horrek zer esan nahi du? Aurreko eztabaidan adierazi bezala, horrek esan nahi du badagoela gure biologian zer berezi (burmuin atal(ak) edo...) bat morala determinatzen edo bideratzen duena. Kulturaren aldekoak, hau da, moralaren alde kulturala azpimarratzen duenak, defendatzen du ez dagoela mekanismo berariazkorik. Gehienez jota mekanismo orokor batzuk daude, kulturaren arabera, morala bideratzen dute-



nak. Saialdi eta esperimentu asko dira moralaren izaera sortzetikoa frogatzeko asmotan. Prinzek erakusten digu saialdi eta esperimentu horiek ez dutela beren helburua lortzen.

Psikologiako esperimentuez gainera, bestelako estrategiak ere izan dira morala sortzetikoa dela frogatze aldera. Esaterako, pentsalari eta zientzialari batzuek aldarrikatu dute animalia espezie batzuetako kideak izaki moralak direla. Hala balitz, orduan arrazoi on bat izango genuke morala sortzetikoa dela uste izateko; izan ere, morala, nolabait esatearren, eboluzioaren zuhaitz biologikoan txertaturik egongo litzateke. Prinzek uste du gehiegikeria dela animaliak izaki moralizat hartzea. Onartzen du moralitasunaren itzalak ikus ditzakegula animaliangan, eta animalia baten portaera txalotzeko joera ere izan dezakegula zenbaitetan. Beste behin esan beharra daukat bat natorrela Prinzekin. Nire ustean, izaki morala izateak oinarri batzuk eskatzen ditu. Oinarri horietan adimen eta emozio gaitasun sofistikuak beharrezkoak dira, eta gizakiaz bestelako animalien kasuan alde batetik edo bestetik gabeziak daude. Gabezia horiek areagotzen dira bizia- ren zuhaitzean beherantz mugitzen garen heinean. Jakina, animaliek emozioak dituzte, bai eta adimen gaitasunak ere; baina, nire ustean, gaitasun horiek guztiek osatzen duten sareak ez du behar besteko konplexutasuna animalien kasuan, hain zuzen ere, moralak bere oinarrietan eskatzen duen konplexutasuna. Horrek ez du esan nahi animaliek tratu onik merezi ez dutenik edo animalianganako begirunea eta errespetua balio bat ez denik. Jakina, gai hori oso eztabaidagarria da, baina Prinzen eta nire arteko desadostasun nabarmenik ez dagoenez, jarrai dezagun aurrera.

Sortzetiko moralaren aldeko apustua egiteko beste arrazoi bat da moralaren izaera unibertsala: morala nonahi eta noiznahi dago presente. Horrek, antza, erakusten du moralak sortzetikoa behar duela izan. Prinzek erasotzen du argudio mota hori, sortzetikotzat hartzen ez diren bestelako *ger-takari* unibertsalak daudela erakutsiz: esaterako, erlijioa. Erlijioa, itxura guztien arabera, unibertsala da, baina sortzeti-

kotzat hartzeak gehiegikeria dirudi. Horretaz aparte, saiatzen da erakusten moralaren unibertsaltasuna azaldu daitekeela morala sortzetikotzat hartu gabe.

Hala, nire ikuspegitik, Prinzek beste behin arrazoi onak ematen ditu morala sortzetikoa delako ustea ahultzeko. Baina, zein da haren ondorioa?

Prinzek, adibide asko eta asko emanaz, erakusten digu zer-nolako aniztasun morala dagoen munduan: morala ez da bakarra, kulturaren arabera moral desberdinak sortzen dira. Horretaz gainera, erakusten digu zer-nolako aniztasun morala izan den historian zehar. Bat egiten dut berarekin, beste behin. Nire ustez ezin ukatuzkoa da aniztasun morala. Baina nire ustez, orain dator auzi nagusia: nola interpretatu aniztasun moral hori? Interpretazio posible bat da esatea morala erlatiboa dela. Nire susmoa da, kontuan izanik Prinzen beste lan batzuk (ik. Prinz 2007), hori dela haren ondorioa. Baina ondorio hori ez da derrigorrezkoa. Horra hor nire desadostasuna Prinzekin.

Aurreko atalean bezala, Prinzek arrazoi asko ematen ditu aniztasuna onargarritzat har dezagun. Arrazoi onak ematen ditu pentsamenduaren eta moralaren gaineko kulturaren eragina, naturaren aldean, lehenetsi dezagun. Baina horrek erlatibismoa inplikatzan al du, hau da, horrek hizkuntz erlatibismoa edo erlatibismo morala inplikatzan al du? Itxura guztien arabera, Prinzek erlatibismoa begi onez ikusten du, berak emandako arrazoi eta argudioetatik ondorioztatzen delakoan. Nik, berriz, uste dut erlatibismoa ez dela ondorioztatzen Prinzen argudioetatik.

Lehenik eta behin, moralaren auziari helduz, (kulturak eragindako) aniztasun morala ez da erlatibismo morala. Noiz mintzatzen gara erlatibismoaz? Adibide batez argitu ditzakegu esku artean dauzkagun kontzeptuak. Pertsona batek esaten baldin badit kolore gorria gustuko duela, eta ni ez baldin banator bat pertsona horrekin (gorroto dut kolore hori), desadostasun bat dago bion artean. Aniztasuna dugu koloreen gaineko gustuei dagokienez. Erlatibismoa al dugu?

Nik esango nuke baietz, izan ere, desadostasuna egonik, inork, ez berak ez nik, ez dugu inongo akatsik egin, ez dago eztabaidatzeko inongo aukerarik, ez dago errakuntzarik, ez dago argudiatzerik: berak berea eta nik neurea. Eszenatoki horren parekoa al da moralarena? Ez dut uste.

Jar gaitezen bestelako mutur batean. Pertsona batek baieztatzen du Txindoki Everest baino altuagoa dela. Ni ez nator bat berarekin. Beraz, bion arteko desadostasuna dago, baina kasu horretan, itxura guztien arabera, batek errakuntza egin du: desadostasuna bai, eta errakuntza ere bai. Eszenatoki horren parekoa al da moralarena? Ez dut uste.

Zalantzarik gabe, moral kontuetan ere desadostasunak daude, hau da, aniztasun morala badago. Gainera, kulturak edo, nahi bada, zirkunstantziek (bai historikoak, bai geografikoak, bai...) eragin zuzena dute aniztasun horretan. Gai hori konplexuegia da lan honetan xehetasunez jorratzeko, baina hona hemen aniztasun moralaren azalpen bat (xehetasun handiagoz jorratzen ditut gai horiek bibliografian aipatzen diren erreferentzietan). Garbi dago balio moralen iturri *natural* desberdinak daudela. Nahiz eta eztabaidagarria den zeintzuk diren iturri horiek, adostasun minimo batzuk badaude. Esaterako, ekintza batek atsegina sortzen badu, joera izaten dugu hura positiboki ebaluatzeko. Beste batzuetan balioztatzen dugu baliagarritasuna. Gizakiak joera dauka positiboki balioztatzeko baliagarria dena: ekintza batek balio badu pertsona askoren ongizatea bultzatzeko, begi onez ikusten dugu. Kontuak kontu, balioen iturri horiek sarritan talka egiten dute, eta haien arteko lehentasunak ezarri behar dira. Ba, lehentasunak ezartze hori aldakorra da testuinguruaren arabera, eta aldakortasun horrek balioen gaineko desadostasunak ekartzen ditu, aniztasuna dakar. Aniztasun horretan, bada, parte hartzen dute naturak eta kulturak. Lehenengoak, naturak, zerikusirik dauka balioen iturri desberdin horiekin. Bigarrenak, ordea, iturrien arteko lehentasunekin.

Eman dezagun horrelako deskripzio bat bide onetik doala. Garbi dago desadostasunak daudela: esaterako, batzuek

lehenesten dituzte balio kolektiboak; beste batzuek balio indibidualak... Eszenatoki hori erlatibista al da? Prinzen aurka, ez du zertan. Labur esanda, desadostasun horiek ez dira benetako desadostasunak. Boghossianek horrela deskribatzen du egoera:

Nik badakit nire baieztapena egiazkoa dela nire estandarren arabera eta zuk badakizu zure baieztapena egiazkoa dela zure estandar bestelakoaren arabera. Nik onartzen dut zure estandarra nirea bezain zuzena dela... Beraz, gutariko bakoitzak bere estandarren arabera zuzena den zerbait esan du, eta estandar horien artean ez dago zuzenagoa denik. Eta gainera biok dakigu egoera hori dela.

Baina arazoa orain dator: nola da posible egoera hori benetako desadostasuntzat hartzea? (Boghossian 2011, 66).

Jakina, Boghossianen arabera, hori ez da benetako desadostasuna. Nik bestearen zirkunstantziak bizi izan banitu, bestearen balioak izango nituzke, bestelako lehentasunak izango nituzke. Zergatik? Denok dauzkagulako balio antzekoak, baina lehentasun desberdinak zirkunstantzien arabera zehazten dira.

Beraz, desadostasuna ez baldin bada benetakoa, ez gaude eszenatoki erlatibista batean. Baina zenbaitetan ezin da ukatu, moral kontuetan, desadostasun ikaragarriak daudela. Eman dezagun pertsona (gobernu, erlijio) batek homosexualak kartzelara eraman nahi dituela, homosexualak izateagatik, homosexuala izatea moralki arbuiagarria delako. Judizio horren justifikazioa izan daiteke, esaterako, homosexualitatea gizarterako arriskutsua dela, gustu txarrekoa dela edo naturaren aurkakoa dela. Eman dezagun guk ez dugula bat egiten. Desadostasuna berriro. Eta kasu horretan benetakoa; izan ere, prest geundeke horretaz eztabaidatzeko, eta frogatzeko pertsona (gobernu, erlijio) hori oker dagoela. Beraz, eszenatokia ez da erlatibista, ez baitago errakuntzarik gabeko desadostasuna: desadostasuna bai, baina errakuntza ere bai.

Nire ustea da Prinzek ematen dituen oinarri, arrazoi eta argudio guztiak bateragarriak direla oso modu laburrean deskribatu dudana erlatibista ez den aniztasun moralarekin.

## Ondorioak

Prinzen liburua interesgarria da oso. Gainera, liburu didaktikoa da, irakurlego zabal bati begira idatzitako testua, nahiz eta gaia konplexua izan. Oro har, ebidentziak, arrazoiak eta argudioak ematen ditu, naturaren aldean, kultura lehenesteko. Gai asko jorratzen ditu, eta nik horietako bi aukeratu ditut: hizkuntza eta morala. Saiatu naiz erakusten, Prinzen oinarriak, arrazoiak eta argudioak onartuta ere, ondorio desberdinetara irits gaitezkeela, behinik behin erlatibismoari dagokionez. Erlatibismoa (erakuntzarik gabeko desadostasun gisa ulertuta)<sup>3</sup> ez dator bat moralaren praktikarekin eta historiarekin. Beste hainbeste esango nuke hizkuntzari buruz. Horregatik, saiatu naiz justifikatzen zentzuzkoak iruditzen zaizkidan ebidentzia, arrazoi eta argudioek ez dutela, Prinzen aurka, zertan ekarri erlatibismoa. Agian kontu terminologiko bat baino ez da, eta Prinzek *erlatibismoa* deritzonari nik *aniztasuna* deitzen diot. Halere, badaezpada, saiatu naiz bereizten erlatibismoa eta aniztasuna. Bereizketa hori zuzena balitz, argitasuna erantsiko lioke Prinzek egindako gogoetari. ¶

---

1. Lan honek Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren FFI 2010-20118 ikerketa-proiektuaren laguntza izan du. Eskerrak eman nahi dizkiot Fernando Migurari. Berak egindako iruzkin kritikoei esker, zenbait aldaketa egin behar izan ditut. Jakina, azkeneko emaitzaren gaineko erantzukizun osoa nirea da.

2. Prinzek *nature* eta *nurture* hitzak erabiltzen ditu dialektika horretako aurkariak adierazteko. Zenbaitetan, *nurture* horren ordez, *culture* erabiltzen du, guk egingo dugun bezala. *Nurture* hitzaren euskarazko ordaina *elikatzea* edo *hazkuntza* izan daiteke.

Azken buruan, jaio eta gero abiatzen den prozesuari dei diezaiokegu *kultura*. *Naturak*, berriz, jaiotzean gurekin dakarkigunari egiten dio erreferentzia.

3. Kölbelek aztertu du erlatibismoa ulertzeko modu hori (ik. Kölbel 2003).

**Bibliografia**

- Arrieta Urtizberera, Agustin (2010), *Sinesmenak eta usteak*. Alberdania.
- Arrieta Urtizberera, Agustin, *Arimak eta balioak*. Jakin (2013an argitaratuko da).
- Arrieta Urtizberera, Agustin & Vicente Benito, Agustín (2013), «El pluralismo moral de David Hume». *Crítica* 45/134.
- Boghossian, Paul (2011), «Three Kinds of Relativism». In S.D. Hales (arg.), *A Companion to Relativism*. Wiley-Blackwell.
- Kölbel, M. (2003), «Faultless Disagreement». *Proceedings of The Aristotelian Society* 104(1), 53-73.
- Phillips, Patrick J.J. (2007), *The Challenge of Relativism*. Continuum.
- Pinker, Steven (2010 [1994]), *Hizkuntza-sena*. ZIO bilduma, EHU Press. Itzultzailea: Garikoitz Knörr.
- Prinz, Jesse J. (2007), *The Emotional Construction of Morals*. Oxford University Press.
- Prinz, Jesse J. (2012), *Beyond Human Nature*. Allen Lane.
- Vicente Benito, Agustín & Arrieta Urtizberera, Agustin, «Moral Disagreements, Moral Ambivalence and Objectivity». Filosofiako aldizkari batera bidalia, eta ebaluaketa fasean.
- Wong, David B. (2006), *Natural Moralities*. Oxford University Press.

HISTORIA BIZIA



# Ramon Labaieni elkarrizketa

**35** IMANOL MURUA URIA

# Ramon Labaieni elkarrizketa

**IMANOL MURUA URIA**

Kazetaria

Frankismo ondorengo lehenengo Eusko Jaurlaritzan Kultura sailburu zelarik Euskal Telebistaren sorrera eragin eta gidatu zuelako da ezagun askorentzat Ramon Labaien, baina Donostiako alkate izan zelako jende gehiagok ezagutzen duela dio berak. Euskal Herritik kanpo ere ezaguna da esparru ondo berezi batean: metal zurizko soldadutxoak egiten artisaurik onenetakoa dela irakur daiteke hainbat argitalpen espezializatutan.

1928. urteko abuztuaren 31n Tolosan (Gipuzkoa) jaioa, gerra bat baino gehiago bizitzea egokitu zaio. Aita, Antonio Maria Labaien idazlea, EAJkoa, Tolosako alkate zen 1936an gerra piztu zenean, eta familia osoak Lapurdin hartu zuen babesa, Ramonek zortzi urte zituenean. Ziburu, Sara eta Donibane Lohizune artean egin zuten Labaiendarrek erbestealdia. Donibane Lohizunen ziren, hain zuzen ere, Alemaniako armadako indar okupatzaileak Euskal Herrira ere iritsi zirenean.

1944an itzuli zen Gipuzkoara Ramon, anaiarekin batera, Donostian batxilerra bukatzera. Madrilen egin zituen ikasketak gero, Kimika lizentziatu bihurtzeko. Ingalaterran bi urteko egonaldia egin zuen, hainbat lantokitan izozte teknikak ikas-



ten batik bat. Nafarroara itzuli zen, San Adrianera, familiak sortu berria zuen enpresan, Izotz, kalitate kontrol arloan kimikari aritzeko. Baina ez zuen kimikari gisa ibilbide luzerik egin. 1958an Donostiako Londres Hotelean hasi zen lanean eta urte gutxitan zuzendari izendatu zuten. 1980an Eusko Jaurlaritzara joan zenean utzi zuen hoteleko lana.

Trantsizioaren hasierarekin buru-belarri murgildu zen politikagintzan. 1978an Donostiako behin-behineko udal taldean presidenteorde izan zen, Ramon Jauregi sozialista presidente zela. Hurrengo urteko udal hauteskundeetan EAJko zerrendan bigarren joan zen, eta Jesus Mari Alkainen alkateordea izan zen, legealdi hasieran.

Ez zuen udalean asko iraun, 1980an Carlos Garaikoetxearen deia jaso baitzuen. Frankismo ondorengo lehen Jaurlaritzako Kultura sailburua izan zen Ramon Labaien. Euskarazko telebista eta irrati publikoak bere agintaldian sortu zituzten, Espainiako agintariek nahi baino abiada handiagoan eta Madrilgo lege eta arauak guztiz errespetatu gabe, Labaienek berak aitortzen duenez. HABE, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Antzerti eta Euskararen Legea bere agintaldi laburreko fruitu izan ziren.

Agintaldi laburra, legealdia osatu ere ez baitzuen egin. Donostiako alkategai aurkezteko eskatu zion alderdiak, EAJk, eta baiezkoa eman zion erronkari, Tolosako alkate izatea nahiago zuen arren, aita ez ezik aitona ere izanak baitziren jaioterriko udalburu.

EAJren zatiketak alkatetzako legealdiaren erdi-erdian harraipatu zuen. Carlos Garaikoetxea oso gertukoa zuen, baina EAJ utzi eta alderdi berria sortzearekin ez zetorren bat, eta betiko alderdian jarraitzea erabaki zuen. Garesti atera zitzaion epe laburrean: alkategai izan zen 1987an ere, baina lehen indarra izatetik seigarren indarra izatera pasa zen EAJ Donostian, eta bi zinegotzi baizik ez zituen atera Labaienen zerrendak.

Enpresa pribatura itzuli zen urte berean, SAPA arma fabrikara. Gai militarretan aholkulari izan da geroztik, duela hiru urte erretiroa hartu duen arte. Gudariñoak egiteari ez dio inoiz utzi. 1960ko hamarkadaren hasieran ekin zion artisautza lan

horri Fermin Galarretarekin elkarlanean; tailerra ireki eta Labayen SA enpresa sortu zituen eta, Jauraritzan Kultura sailburu izan zeneko hiru urteen salbuespenarekin, geroztik ez dio utzi metal zurizko soldadutxoak egiteari. Gaur egun ere, egunero ordu pareka egiten du bizilekuan atondutako tailertxoan.

Clotilde Andonaegirekin ezkondua, Donostiako Gros auzoan bizi dira emaztea eta biak. Hiru seme dituzte, eta bost biloba.

2012ko uztailaren 5, 12 eta 18an Labaiendarren etxean grabatutako hiru elkarrizketa saioen emaitza dira ondorengo orrialdeak.

### Antonio Maria Labaien eta Carmen Sansinenearen semea zara. Nongoa zenuen ama?

Donostiarra zen. Aita banketxeko negoziantea zuen. Bere aitona, Jose Angel Sansineneak, sagardotegia zuen Puerto kalean. Aiako San Pedroko neska batekin ezkondu zen, nire birramona Mariarekin. Nire birramona egunero etortzen zen San Pedrotik Donostiara astoarekin, hanka-hutsik, eta Donostiara sartzeko espartinak edo abarkak janzen zituen. Bazkaldu zopa bat Sansineneko tabernan, eta buelta-erdi, bostetarako ailegatzen zen Aiara. Babarrun batzuk, aitzurra hartu eta baratzerara. Transformazioa izugarria izan zen: baserritar hutsetik Donostiako burges bihurtu ziren. Bi edo hiru etxe zeuzkaten Hernani kalean, batzuek bitxi-denda, besteek banketxea... Bat-batean, amona baserritarra eta biloba *señorita*. Hor daukazu gure historiaren momentu bateko eboluzio izugarrikoa. Nire birramonak ez zekien erdaraz, baina azkenean, andre zaharra zenean, egiten zuten egongelan erdaraz gaizki eta sukaldean euskaraz okerrago. Hori izan zen Donostia. Hori izan da Donostia. Hori da kaskarin donostiarren transformazioa.

### Sagardotegi hura zuk ezagutu zenuen?

Ez. Nire aitona, Juan Sansinenea, gazte hil zen, 50 urterekin. Amak kontatzen zidan nola Juan joaten zen oinez janaria lortzeko bere amaren baserrira, Aiara, karlistak Mendizorrotzen zeudenean tiroak egiten. Euskaldun jendearen eboluzio soziala ikaragarria izan da.

### Eta Labaiendarrak? Zuen aitona Argentinan sortu zen, ezta?

Nire birraitona, Jose Antonio Labaien, lehenengo karlistada bukatu zenean Argentinara joan zen, 15-16 urterekin, 1841ean. Artxiboan aurkitu nituen kontuak: urrezko ontza bat ordaindu zuen txartela hartzeko, eta beste bi ontzak Argentinara ailegatu ondorengo lehen urtean ordainduko zituela hitz eman zuen. Berastegiko baserri batekoa zen. Herriko beste mutil batekin joan zen. Ailegatu zenean ez zegoen

Buenos Airesen lehorratzerik, frantsesek eta ingelesek blokeatuta zeukatelako portua. Montevideora joan zen. Liburu batean irakurri dut garai hartan Montevideo euskaldunez betea zegoela. Mar de Plata Erregeorderriaren parte zen oraindik Uruguay, eta gerran ziren. Montevideoren defentsan agintzen zuena Uribe izeneko jenerala zen, eta Montevideori eraso egiten ari zirenen burua, Urkiza jenerala. Montevideoko kale nagusia igandero betetzen zen euskaldun jendeaz. Kanean dantzan ibiltzen ziren. Montevideoren defentsan parte hartzeko bataloi euskaldun bat formatu zen. Ez dakit nire birraitonak parte hartu ote zuen. Kontua da ibaian gora joan zela Gualaguaychura [Argentina], eta han hasi zen espartinak fabrikatzen, alpargatak.

**Han ezkondu zen?**

Ez. Diru pixka bat egin zuenean etorri, Gazteluko neska batekin ezkondu, lehenengo semea, Martin, Berastegin izan zuten, eta gero, haurrak urtebete-edo zuenean, Argentinara bihurtu ziren berriro, negoziara. Nire aitona Gualaguaychun jaio zen, Entre Rios probintzian. Nire aitak ez dit behin ere esan, baina nire aitonak eta bere semeek, besteak beste nire aitak, argentinar pasaportearen erabazleak.

**Zuen aitak, Antonio Maria Labaienek, bi pasaporte zituen, beraz?**

Bai. Ez dit behin ere esan. Kasualitatez jakin nuen. Transmisio gutxi egin digute gurasoek. Gauza asko familien sekretuan gelditu dira. Gure aitona Argentinan jaioa da, baina Berastegin hazia: hiru urterekin etorri zen. Oraindik ere bere aitaren indiano etxea han dago. Gero Tolosara jaitsi zen eta han dirua egin zuen.

**Gerraurrea sorterrian**

Tolosan finkatu zen zure familia, han jaio zen zuen aita, eta baita zu zeu ere, 1928an, gerraurrean. Zer giro bizi izan zenuen urte haietan etxean?

Tolosako burges familia bat ginen. Nire ama umezurtz gelditu zen oso gazte. Izeba bat izan zuen tutore, eta izebaren senarra Doroteo Ziaurriz zen, medikua, bere garaian EBBko lehendakari izana. Giroa oso kontserbadorea zen, oso burgesa. Nire aitona Tolosako alkate izan zen Primo de Riveraren garaian, Unión Patrióticarekin. Ordena gizona zen.

### Zer joera zuen Unión Patrióticak?

Diktaduraren aldekoak ziren. Errusiako Iraultza oso gerutu zeukaten eta iraultza hori Espainiara zabaltzeak izugarritzko beldurra ematen zien. Unión Patrióticakoek sortu zuten *el somatén*, erakunde armatua: igandetan desfilatzen zuten karabinekin, Eibarren egindako karabina *tigreekin*. 1930era arte izan zen alkate aitona, 1928an edo hasita. Nire aitarekin ez zen ondo konpontzen. Aita EAJkoa zen, eta bera ere alkate izan zen gero, Errepublika garaian. Aita eta semearen artean tentsio handiak izan ziren, eta anaiekin ere bai. Aitaren anaia ez ziren abertzaleak. Francorekin oso pozik bizi ziren denak.

### Tolosako ikastolako ikasle izan zinen gerra aurrean.

Bai. Tolosako lehen ikastola 1922an sortu zuten Gorriti plazan. Gerora, leku gehiago behar zenez, Laskorain kalean beste gela bat zabaldu zuten 1930-31n. Ni han sartu nintzen. Oraindik gelditzen gara bizirik batzuk. Iztuetarrek, Angeles Iztuetaren familiakoek, karrozeria bat zeukaten, etxe zahar bat, eta goiko solairuan jarri zuten ikasgela. Han geunden denok. Gure andereñoa zen Inaxi Munita, gero moja izana.

### Ikastolan euskaraz egingo zenuten. Baina herrian oro har?

Tolosan hezkuntzan beti fraideak eta mojak aritu ziren. Mutil koskorrentzat eskolapioak, gehienak aragoiarrak. Eskolapioek erdaldundu zuten Tolosa. Seguraski kultura pixka bat emango zioten, baina dena erdaraz. Eta gero, eskola na-

zional edo ofiziala zegoen. Eta neskontzat, eskola publikoa eta mojak: moja frantsesak eta jesuitinak, denak erdaldunak. Asko gazteleraz egiten genuen. Aitonarekin eta lehengusuekin ere bai. Lehengusuek ez zekiten euskaraz. Zekiten pixka bat neskameak egiten zielako euskaraz, baina gurasoek, nire osaba-izebek, euskara zeharo baztertua zuten. Hartu Joaquin Labaien. Berak euskaraz zekien, sei edo zazpi seme-alaba zituen, baina ez zion erakutsi euskara bere familiari. Ezkondu zen Donostiako *señorita* tuntun batekin eta: «*Que no hablen, que no hablen*». Horrelako giroa zegoen. Esnobismo handia, baina oso behe mailako esnobismoa. Komikoa zen alde batetik, baina tragikoa bestetik. Kontraste bezala, Pizkunde mugimendua Tolosan sortzen da. Gero azaldu ziren Lauaxeta-eta, baina gune nagusia Tolosan izan zuen.

#### Aita tarteko.

Gure aita hor sartua zegoen. Pizkunde inguruko giroa bizi genuen etxean. Xabier Lizardik alfabetatu zituen lehenengo andereñoak. Dozena-erdi bat neskatala alfabetatu zituen Tolosan Lizardik, Jose Mari Agirrek. Zarautarra zen baina Tolosan bizi zen, fabrika bateko gerente. Arantxa Munita, Dolores Arbila, Elbirita Zipitria, nire izeba Pilar Sansinenea... Horiek izan ziren lehenengo andereñoak, denak Tolosan alfabetatuak Lizardirekin.

Pizkundeko giro hori sumatzen zenuen etxean? Bisita asko izaten omen zenituzten.

Ni harro nengoen alkatearen semea nintzelako. Bisita asko izaten ziren etxean. Abertzale jendea, baina gehienak apaizak. Frantziskotarrak. Komentuan bazkaldu eta berriro gure etxera etortzen ziren, bigarren bazkaria egitera. Aita Garate, Arrue... Fraide handi batzuk, potoloak. Azaltzen ziren kanpotik ere: Pio Montoya, Don Bernardo Leaburuko parrokoa... Etortzen ziren apaizak, pilaka. Aitzol ere bai.

“

Ni harro nengoen alkatearen semea nintzelako. Bisita asko izaten ziren etxean. Abertzale jendea, baina gehienak apaizak

”

### Sarri joaten al zen Aitzol zuen etxera?

Bai. Bazkaltzera.

### Bazkaltzera beti.

Aizu, garai hartan janariak gaur egun baino garrantzi handiagoa zeukan. Ez zegoen gaur egungo aberastasunik. Pizkundeko kideak ere etortzen ziren. Bi, jesuita ohiak: Orixe eta Lauaxeta.

### Zuen aitarekin egotera etortzen ziren denak?

Aita zen intelektual bat. Baina ez zioten aukerarik eman, bere aitak Laborde familiarekin bi fabrika zeuzkalako: bat, Gráficas Laborde y Labayen, eta bestea, arrabota industrial paperarentzat, Labayen y Laborde. Bidali zuten Zaragozara Merkataritza ikastera, Frantziara apaiz baten etxera frantses pixka bat ikastera, eta gero fabrikara. Ez zuen behin ere interesik hartu diru kontuetan, eta fabrika ez zitzaion batere axola. Nire aitaren zaletasuna antzertia zen. Tolosako batzokian tertulia egiten zuten, Ixak Lopezen dendan ere bai, Juanito Larrañagaren etxean, gure etxean... Pepe Eizagirre, Juan Antonio Irazusta eta horiek denak azaltzen ziren. Tolosa beti tertuliako herria izan da. Kulturaren forma bat da tertulia, eta galdu egin da. Tertulia haiek oso aberasgarriak ziren.

### Tertulia politikoak ziren, edo gehiago kultura arlokoak?

Denetik. Denak ziren abertzaleak eta denak ziren intelektualak, neurri batean edo bestean.

### Zuen aita politikoa ere bazen, alkatea garai hartan, baina berez joera handiagoa zuen letra kontuetarako, ezta?

Gertatu zen Doroteo Ziaurrizen iloba batekin ezkondu zela, nire amarekin. Doroteo politikaria zen. Lehen alkatea izan zen Errepublikan. Eta hurrengoa, nire aita. Hark eraman zuen politikara. Nire aita ez zen batere politikaria. Sabino Aranari esaten zion «*el maestro Arana Goiri*», baina niri esaten zidan: «Ni ez naiz inoiz izan sabinianoa». Bere mundua zen literatu-

ra, antzertia, itzulpengintza... Bertolt Brechten obrak euskara pasa zituen eta horrelako gauzak egiten zituen. Oso interesatuta egon zen beti Alemaniako kulturarekin.

### Nondik joera hori?

Ez dakit. Gerra garaian, aleman asko ikasi zuen Frantzian soldadu aleman batekin. Etxera etortzen zen soldadua, nire aitak erakusten zion erdara eta alemanak erakusten zion alemana. Gero, atzerrian lagunak zituzten. Lagunak, eskribituz: Norbert Tauer eta jende hori. Bazegoen hor sare internazional moduko bat. Ez ziren hain herritar txikiak. Beste aldera joan zirenean horizonte kultural berria sortu zitzaien. Aberastu egin ziren kulturalki. Demokrazia kristauren mamia. Berriro hona etorri zirenean, askoz ere zabala goak ziren kulturaren arloan.

### Gerratik ihesi

Zortzi urte betetzeko zinela piztu zen gerra. Gogoan al duzu eguna, momentua?

Momentua eta eguna. Uztailaren 17ko arratsaldean Donostiara etorri nintzen ama eta izeba batekin. Udan etortzen ginen dendak ikustera, eta ni bainatzera, eguraldia ona bazen. Kanean geundela ama eta izeba gelditu ziren pertsona batekin, eta hark esan zigun: «*Hay una sublevación de los militares*».

### Hilaren 17an?

Bai. Ordurako bazen notizia mugitzen ari zirela. Errepublikakoak ilargian zeuden. Gure aitak ez zion garrantzirik eman. Esan zuen: «*Esto es una sanjurjada*». Joe sanjurjada!

Aita alkatea zen. Zer egin zuen lehen une horietan?

Aurreneko momentu horietan nire aitak izan zituen problema larriak, milizianoak atera baitziren segituan. Miliziano ezkertiarak: UGT, CNT... Karlista asko joan ziren base-



rri karlistetara, ezkutatzerara. Baina karlista nagusiak etxean gelditu ziren: Caballero, Aranburu... Horiek denak Tolosan gelditu ziren beraien etxeetan, segurtasunik gabe. Atxilotu zituzten, eta sartu zituzten udaletxean. Egun batean, furgoneta bat etorri zen udaletxeko ziegetan zegoen taldea atxilotzera, gobernadore zibilaren agindu batekin. Haiek armatuak zeuden eta beraiek [Tolosakoak] ez. Ekarri zituzten Donostiara eta fusilatu zituzten Paseo Berrian. Bederatzi-edo ziren. Noski, aitari leporatu zioten, eta aitak dimititu egin zuen. Gobernadore zibilaren agindua zeukan! Hura ez zen broma izan. Baina ez zioten dimisioa onartu. Erabaki zuten Tolosa defendatzea.

#### Tolosaren defentsan jardun zuen aitak, beraz.

Bai. Donostiako Loiolako kuartelean harrapatutako kanoi bat Tolosara bidali zuten, Tolosaren defentsarako. Karlistak Gaztelun zeuden. Eman zieten mosketoi bana, eta han zeuden, beldurrez. Ehun edo berrehun karlista izango ziren. Baina ez ziren jaisten Tolosara. «Kanoia usatuko diagu», esan zuten nire aitak-eta. Eta lehenengo tiroan huts egin zuten: Gaztelura egin beharrean tiro, Leaburura egin zuten, eta elizari eman zioten. Oraindik han dago marka, nire aitaren tiroaren marka.

#### Aita ari zen Tolosaren defentsa gidatzen?

Alkatea! Nola diren gauzak: momentu horretan Leaburuko elizako sakristian kartetan jokatzen ari ziren, trukuan, Don Bernardo parrokoa eta guardia zibil bat. Eztandarekin, guardia zibilak bost pezeta eman zizkion Don Bernardori meza eskatzeko, ea bizirik ateratzen zen. Guardia zibila korrika atera zen Tolosara, eta Don Bernardo, mendi gizona zenez, ttipi-ttapa oinez beste aldera pasa zen, Donibane Lohizunera.

#### Nola joan zitzairen aitari-eta Tolosaren defentsa?

Azkenean karlistak Izaskunera jaitsi ziren, eta Tolosara tiroak botatzen hasi ziren. Aitak-eta pentsatu zuten alde egiteko momentua zela, eta alde egin zuten trenbidetik. Igo zi-

ren Anoetara, gero Alkizara, eta handik Zarautzera. Gu ordurako Zarautzen ginen. Nire aitaren estrategian, Zarautz babesleku menderaezina zen.

**Gerra piztu orduko jo zenuten zuek Zarautzera?**

Zarautzera korrika. Segituan. Urtero joaten ginen udan Zarautzera. Alokatu egiten genuen etxe bat. Ez dakit zenbat denbora pasa genuen baina argazki asko dauzkagu familian, hondartzan, garai hartan. Tolosatik jende asko joaten zen hilabete-edo pasatzera Zarautzera.

**Orain gerraren historia badakigula, ez du ematen Zarautz babesleku menderaezina zenik.**

Zarautzen gudariak kuartela zeukaten San Luis izeneko txalet batean. Gero, beste puntan, Gran Hotelen uste dut, bi txalet handi zeuden, adreiluzkoak, eta horiek EAJrenak ziren. Terraza batzuk zeukaten hondartzaren gainean, beneran oso leku politak, eta hor ez dakit nork katalexo bat jarri zuen, tripode baten gainean. Eta handik *España* korazatua eta *Cervantes* gurutze-ontzia ikusten ziren, Donostia bonbardatzen. Argi kolpea eta, gero, soinua: *buuunba!* Oroitzen naiz transatlantiko bat ainguratua egon zela Zarautz aurrean, ez dakit zenbat miliatara. Pasealekuko txalet dotoreetako errefuxiatuak hara ebakatu zituzten, aristokrata asko tartean, Madrilgoak eta. Aristokrata asko zegoen orduan Zarautzen. Francoren aldekoak. Gudariak ebakatu zituzten Getariara, eta Getariatik, txalupatan, ontzi horretara. Baina gero ez zuten eskerrik eman. Gudariak haientzat ziren *rojos separatistas*. Bai, baina bizia zor zenieten gorri separatistei. Ez zuten behin ere aitortu. Gerra irabazi zutenean, ez ziren akordatu.

**Zuen aita noiz iritsi zen Zarautzera?**

Abuztuan izango zen.

**Zarautzen ez zenuten asko iraungo, irailean sartu baitziren Francoren indarrak.**

Nire aitaren estrategiak oso xebreak ziren: Francoren soldaduak arrimatzen ari zirenean, nola Oñatin senideak geneuzkan, Oñatira joan ginen kotxe batean ama eta bi semeak. Aitak gudariekin egin zuen erretirada. Baketsua zen, baina beldurra beldurra da. Kostaldetik joan ziren Mutrikura arte. Han errepidea moztua zegoen Ondarroara joateko, orduan berak eta beste bizpahiruk *gasolino* horietako bat hartu zuten, eta Donibane Lohizunera ailegatu ziren. Eta gu, Oñatin.

Oñatin ere ez zuten errepublikazaleek asko iraungo, ezta?

Handik oso gutxira karlistak sartu ziren. Nire aita ez dakit zer arraiotan ari zen pentsatzen. Bizirik dauzkat orduko oroitzapenak. Akordatzen naiz tiro batzuk nola hasi ziren, txoriak nola mugitzen ziren, eta gure etxetik nola ikusten

zen erreketek talde bat maldan behera jaisten.

Gure etxe aurretik gudarien kamioneta bat pasatu zen San Prudentzio aldera. Dirudienegudari batek kamioneta galdu zuen, eta korrika zihoan atzetik. Eta jendeak balkoitik: «*Corre! Corre! Badatozela!*». Gizona korrika. Zer gertatu ote zitzaion? Memorian grabatzen zaizkizu horiek. Erreketeak, eta mutil hori korrika. Akordatzen naiz baita ere Hernani Plazako estanko batek nola kanbiatu zuen bandera: estankoek

bandera errepublikarra izaten zuten kartelean, eta segituan jarri zuen bestea, *la gloriosa*, piperpotoa. Segituan hasi ziren haurrak militarizatzen. Karlisten haurrak ziren *pelayos*, eta besteak *flechas*. Ama ez zen politikaria baina bazekien zer ziren *pelayoak*, eta sartu ninduen *flechetan*.

Ni *flecha* izan naiz, alkandora urdinarekin. Instrukzio militarra egiten genuen egunero egurrezko fusil txiki batekin

alkandora urdinarekin. Instrukzio militarra egiten genuen egunero egurrezko fusil txiki batekin, geltokiaren aurrean. *Cara al Sol* abesten ikasi eta horrelako alukeriak egiten genituen.

Zortzi urterekin, familia abertzalekoa izanik, etsaiaren eremuan zinen kontzientziarik bazenuen?

“

Ni *flecha* izan naiz, alkandora urdinarekin. Instrukzio militarra egiten genuen egunero egurrezko fusil txiki batekin

”

Ez dakit. Gure aitonak, Tolosakoak, argentinarrak, lortu zigun baimena beste aldera kotxez joateko. Bezperan aitoren etxean egon ginen lo egiten, eta nik nire txano falangistarekin nahi nuen joan beste aldera. Amak esan zidan: «*Como te vea tu padre te mata*».

Zenbat denbora egin zenuten Oñatin, frankistak sartu ondoren?

Hilabete batzuk. Azaroan edo joango ginen.

Eskolara joan zinen orduan, herria frankisten menpe zegoenean.

Aurrena egon nintzen, oso denbora gutxi, eskola nazionalan. Gero, klaseak ematen zizkidan neska batek bere etxe-ko gela batean. Baina hori ez zen problema garai hartan, kezka ez zen hori. Nire ama atxilotu egin zuten. Nire aitak eskribitzen zuen beste aldetik eta esan zion gutun batean: «Nik gorde ditut pitxi guztiak». Baina guardia zibilen hizkeran, pitxiak, *los pichis*, ziren asaltoko guardiak [guardia errepublikarrak]. Eta nola zentsuragatik gutunak ireki egiten zituzten... Ea senarra zertan zebilen pitxiekin. Pitxiak *las joyas* zirela sinetsi zuten azkenean. Galdekatu eta askatu egin zuten. Baina sustoa.

Aita Iparraldean ihesi joanda, baina Labaiendarrak, zuen aitonamonak eta osaba-izebak, Tolosan eta eroso.

Bai, dudarik gabe. Han gelditu ziren denak. Eta anaia batek, Panchito Labaienek, eskribitu izan zituen artikulua batzuk nire aitaren kontra. *La Voz de España*n. Hemerroteketan azalduko dira. «El alcalde rojo separatista» eta horrelakoak. Osaba Enriquek, zaharrenak, gordeak zeuzkan egunkari zatiak. Erakutsi zizkidan. Ez dakit galdu ote ziren.

Gerratik gerrara

Noiz eta nola elkartu zineten aitarekin?

Gure aitonak lortu zigun beste aldera joateko baimen hori, Ildefonso Kalparsoro papergilearen bidez. Kalparsororen

kotxean joan ginen zazpi eguneko baimenarekin. Ez ginen bueltatu, noski. Kotxean gurekin Doña Teresa Bandres ere joan zen, Luis Mari Bandresen amona. Andre hark bidaiara osoa negarrez egin zuen. Justu aste bat lehenago frontean hil zitzaion semea, Luisito, falangista. Senarra errepublikarra, semea falangista, alaba santua [Maria Antonia Bandres beata], eta beste alaba abertzalea. Ziburura joan ginen. Garai hartan nire aita amaren familiaren parte nagusiarekin zegoen. Ziburun abendutik apirilaren lehenera arte egon ginen. Gerra giroa bizi genuen han.

### Zertan sentitzen zenuen gerra giro hura?

Jendea ebakutzen ari ziren. Goizero Bilbotik jendea etortzen zen Donibaneko kaira. Batzuetan arrantza ontzi txikitant, bestetan merkantzia ontzitan. Gu hara joaten ginen goizero, Jesus Elozegi osabarekin, ea ezagunen bat aurkitzen genuen. Jendea pilaka etorri zen. Negua zen eta jendea etortzen zen hoztua, miseria handian. Buruan daukat nola etortzen zen jendea, nola jendea saiatzen zen bata eta bestea laguntzen, etxean hartzen, nola kokatu han edo hemen, haurrak bereziki. Itxasun haurrak hartzen zituen zentro bat zegoen.

### Apirilera arte egon zineten Ziburun. Handik nora?

Sarara. Nire osaba Jesus Elozegi, Pilartxo Sansinenearekin ezkondua, etxea bilatzen ibili zen han, eta oso etxe polita aurkitu zuen, errenta baxu batekin: Prefetenea. Prefetak egindako etxea zen, eta euskaraz jarri zion izena. Ni Saran ez naiz Labaien, ni naiz Prefeteneko Ramon. Saran herriko eskolara joaten nintzen, *l'école publique*. Baina gure etxean bizi zen Elbira Zipitria, andereño famatua, neskazaharra. Hark ere ematen zizkidan klaseak eta ni nintzen ikasle bakarra. Harekin martirioa sufritu nuen.

### Zergatik?

Esaten banuen «amatxo», «Ez da esaten amatxo! Esaten da ama!». Demontre!

Zorrotza.

Zorrotza baina! Don Nemesio Etxanizek, goian bego, honela definitu zuen Elbira: hortzez ahoa betea daukan neska-zahar ozpindua.

Nolatan bizi zen Elbira Zipitria zuen etxean?

Gure izeba Pilartxoren oso lagun-mina zen, andereño iza-na hura ere. Eta gure etxean kokatu zen. Urte asko egin zituen. Ni izan nintzen haren lehenengo biktima pedagogikoa!

Baina eskola publikora ere joaten zinen. Eskola eta maistra partikularra, biak zenituen orduan.

Begira nola zeuden gauzak: nik Saran ez nuen frantsesa ikasi. Eskolan denok euskaraz egiten genuen. Beti egoten ginen punituak. *Puni*. Entzuten bazuen maisuak euskaraz egiten genue-la, txokora. Paretari begira egoten zinen.

Lapurtera ere ikasiko zenuen orduan.

Bai, nik Sarako euskara dakit.

Frantsesa ere pixkanaka ikasiko zenuen eskolan.

Bai zera! Donibanen, gero. Saran frantsesez *Marsellesa* bakarrik erakutsi ziguten.

Baina eskolako lanak frantsesez ez al zenituzten egiten?

Ez genuen lanik egiten! Gainera, eskolako maisu nagusia, zuzendaria, euskalduna zen: Aignerren. Euskalduna. Gero, erresistente bakarra izan zen Saran, alemanen okupazioa-ren garaian.

Noiz arte izan zineten Saran?

1939ko irailean gu oraindik Saran geunden. Oso ondo akordatzen naiz. Irailaren hasieran arratsalde batez Angoi-nea baserrian nengoen, han andre batzuk zeuden elkarrizke-tan, hasi ziren kanpaiak, pa-pan-pa-pan, *douzaine* esaten da

“

Elbira Zipitria gure izeba Pilartxoren oso lagun-mina zen, eta gure etxean kokatu zen. Ni izan nintzen haren lehenengo biktima pedagogikoa!

”

frantsesez, eta andre haiek negarrez hasi ziren. Orduan jaitsi ginen Donibane Lohizunera, kolegioan sartzeko. 1939an.

**Bitarte horretan, aita zertan zebilen? Zertan gogoratzen duzu aita erbesteko urte haietan?**

Oso ondo bizi zela akordatzen naiz. Biolina jotzen. Biolin-jotzaile famatu bat zegoen han: Noela Coussin. Hura ere larri zebilenez, biolin klaseak ematen zituen. Aita egunero joaten zen Coussinen etxera klaseak hartzera. Oso ondo bizi ziren, paseatzen eta. Tolosar asko zegoen Donibanen, Saran eta inguruetan. Pepe Eizagirre, diputatua Gorteetan Errepublikara garaietan, Isidro Fagoaga tenore wagnerianoa, Ixak Lopez Mendizabal, Xebe eta Xabier Peña, Jose Antonio Irazusta... Behin, frantsesek burua galdu zuten, eta denak Gurseko kontzentrazio-esparruan sartu zituzten. Orixe ere bai.

**Zuen aita Gurseko kontzentrazio-esparruan izan zen?**

Bai. Etorri ziren jendarmeak, sartu zituzten tren batean eta Gursera eraman zituzten denak. 1939an, alemanen okupazioa baino lehenago. Irakurri dut istorio batean frantsesek prestatu zutela Gurs harrera gune izateko. Baita zera ere! Kontzentrazio-esparru hutsa.

**Gerra zibiletik ihesi zetozen gorri separatistak zirelako eraman zituzten?**

Euskaldunak gehienbat. Gorri separatistak. Orixe ere han zen. Isidro Fagoaga Donibanen zegoen ez errefuxiatua zelako, baizik eta tenorra zelako. Hura ere han joan zen. Aitak kontatu izan dit Fagoaga Aostako dukearen laguna zela, eta Gursetik telegrama bidali ziola, bere alde zerbait egiteko eskatuz, eta izenpetzen zuen «Commendatore Fagoaga». Hurrengo egunean, Italiak gerra deklarazioa Frantziari! Orixeek esaten zion: «Isidoro, fusilatuko haute!». Uruñuela anaiak ere, musikariak, han izan ziren. Biak. Haiek metrailadore bat asmatu zuten. Gobernu frantsesari bidali zioten, meritu gisa, baina ez zieten batere kasurik egin.

Zenbat denbora egon zen zuen aita Gursen?

Gutxi. Hilabete bat edo horrela. Orixek eskapatu egin zen. Nola, ez dakit.

Saran zuekin bizi izan zen Orixek, ezta?

Bai. Oso gaizki konpontzen zen Elbirarekin [Zipitria]. Oso gaizki. Biek erdaraz egiten zuten elkarrekin. *De usted*. Eztabaidak! Egun batean Orixek esan zion: «*Elvira, usted padece de extreñimiento espiritual*». Erdaraz beti.

Zuen aitak nola egiten zuen Orixerekin eta Zipitriarekin?

Euskaraz. Baina nire amak beti erdaraz egiten zion Orixeri. Amak eta Orixek korrespondentzia izan zuten. Gutun mistikoak eskribitzen zizkion Orixek gure amari, eta amak erantzuten zion. Beti maitemindua ibiltzen zen Orixek. Aukeratzeko zuen Sarako edo Donibaneko neskazaharrik itsusiena, eta maitemindu egiten zen. Nire amak tentatu egiten zuen pixka bat: «Zertan zabilta? *¿En qué anda usted, Nicolás?*». Eta berak: «*Señora, no es usted mi confesor*».

Handik urte askora ere izan zenuen harremanik Orixerekin, Ameriketako erbestetik itzuli zenean.

Bilboko portura bere bila joan ziren nire aita, Alfontso Irigoien eta Gabriel Aresti, Ameriketatik bihurtu zenean. Orixek nik eraman nuen biskuter batean. Gure aitak aipatzen du Orixeri buruzko liburu koxkor horretan [*Nikolas Ormaetxea 'Orixek'-ren kondaira laburra*, 1990]. Azken maldan biskuterrak ezin zuen Orixek izugarritzko maleta zuelako, eta, beraz, gure poeta nazionala halaxe iritsi zen Orixekari: ni biskuterraren bolantean eta bera bultzatzen [barrez].

Aitzolek ere bazuen harremana zuen gurasoekin. Atxilotu bezperan elkarrekin izan ziren, ezta?

Bai, txokolata hartu zuten Sokoan, azken arratsaldean. Ziburun zeuden garai hartan eta Sokoara oinez joan ziren. Nire osaba Sansineneak eraman zuen gau hartan *Galerna*



ontzira, Baionara. Bilboko portura joan beharrean Pasaiako portuan sartu zen eta hor etorri zen zoritxarra.

### Aitak oso gertukoa zuen Aitzol?

Bai, tolosarrak ziren biak. Lehen momentuetan denak Beloken kokatu ziren. Fraideak oso ondo portatu ziren. Aitzol han zegoen, aita ere bai. Aitari entzunda dakit Aitzolek hartu-emanak lortu nahi izan zituela karlistekin. Ea konponketarik bazegoen. Hitzordu bat egin zuten Etxalarren, Iruñeko buruzagi zenbaitekin. Handik desmoralizatuta etorri zen Aitzol: «Hemen ez dago konponbiderik. Hauek nahi dute euskal abertzaletasuna zapaldu». Esan zuen: «Nire lekua ez dago hemen, baizik eta borrokan ari den gazteriarekin». Horregatik hartu zuen *Galerna*.

### Iparaldeko egonaldi hartan EAJn erbestean zirenekin harremanik izan zuen aitak?

Denak ziren EAJkoak. Baina guri beti sartu ziguten gobernuaren kultura, ez alderdiarena. Pentsa, ni Doroteo Ziaurrizen besoetakoa naiz. Guk sinesten genuen Euskal Estatu bat zegoela. Guk ikusi genituen gudariak. Zarauztik Oñatira joan ginean Loiolan bazkaldu genuen, eta Loiolan kuartel jenerala zegoen. Han zeuden gudariak. Nik ikusi egin ditut. Guretzat ez zegoen alderdirik. Aipatzen zuten lehendakaria, aipatzen zuten gobernua. Guk egiten genituen marrazkiak beti igual-igualak ziren: mendi punta bat hemen, itsas puska bat hor, beste mendi bat, eta abioiak, batzuk ikurrinarekin eta besteak bandera espainolarekin, eta espainolak beti sutan. Horretan sinetsi dugu. Han hazi garenok ez gara behin ere alderdi bateko pertsonak izan. Sinistu dugu Euskal Estatu batean. Gaur egun falta zaigun estatu zentzua izan dugu. Ikasgela guztietan zegoen Errepublikaren presidentearen fotografia: Lebrun. Gu-

“

Guri beti sartu ziguten gobernuaren kultura, ez alderdiarena. Guk sinesten genuen Euskal Estatu bat zegoela

”

retzat Albert Lebrun zen Frantziako presidentea eta Jose Antonio Agirre Euskadiko presidentea. Maila berean zeuden biak.

**Joxemiel Barandiaranekin ere egokituko zinen Saran.**

Barandiaran 1940 edo 1941ean azaldu zela uste dut. Niri latineko klaseak eman zizkidan Don Jose Migelek, *Ibarsoroberri* baserrian. Klaseak, eta kaskarrekoak ere bai. Ez nuen batere maite Barandiaran.

**Zorrotza zen?**

Oso integrista zen. Eta zorrotza. Beti arrazoia zeukan. Apaiz integrista. Erreberentzia egiten zitzaion orduan kleroari. Lafitte apaizaren oso laguna zen aita, beste apaiz bat gure bizitzan, eta haren bidez iritsi nintzen Barandiaranengana. Lafitte ere ez dut maite. Alu bat zen hura.

**Lafitterekin zer harreman izan zenuen?**

Aitak Uztaritzeko seminario txikira bidali ninduen. Han maisu zen. Han ere izan nintzen, baina hilabete bat besterik ez, epidemia bat zela eta. Kontserbako sardinak eman zizkiguten, baina oso egoera txarrean. Izugarritzko beherakoa harrapatu genuen. Osaba Doroteo Kanbon zegoen, ni bisitatzeraz etorri zen, eta erdaraz esan zien nire gurasoei: «*Más vale burro vivo que sabio muerto*». Etxera! Donibane Lohizunera, Saint Marie eskolara.

**Zergatik daukazu oroimen txar hori Lafitteri buruz?**

Alu bat zelako. Igande batean nire gurasoak etorri zirenean, harrituta gelditu ziren. Ikustekoa zen: gu bazkaritik ateratzen ginen eta korrika joaten ginen bazkaltzera gurasoekin. Gosea pasatzen genuen. Hilabete egon nintzen eta salbatu nintzen.

**Apaizgai izan zinen, beraz.**

Apaizgai behartua, baina apaizgai, bai. Behin ere ez nuen aukera hori egin.

Alemanak sartu zirenean, 1940ko ekainean, Donibane Lohizunen zineten. Zer gogoratzen duzu alemanak iritsi zirenekoaz?

Ni plazan nengoen. Plazan dago Café Suisse. Eta ni txoko hartan nengoen, alemanak Gambetta kaletik sartu zirenean. Orain Herriko Kale izena du berriro, baina Gambetta zen orduan. Batailoi motorizatuak etorri zen. Kotxean, denak laruzko kasakekin, inpresio handia egiten zuten.

“

Donibaneko plazan nengoen, Café Suisseren txokoan, alemanak Gambetta kaletik sartu zirenean

Oso korrekto denak. Plazan gelditu ziren. Motozikletan zetorren batek atzamarrarekin deitu zidan, eta: «*Zigaretten*». Eman zidan dirua, estankora joan nintzen, oraindik han dago estankoa, ekarri nizkion zigarroak, eta hogeiki libera-ko propina eman zidan. Nik ez nituen hogeiki libera ikusi behin ere! Momentu hartan germanofilo bihurtu nintzen!

Sartu ziren egunean bertan gertatu zitzaizun hori?

”

Sartu ziren momentuan! Han gelditu ziren plazan, Luis XIV.aren etxearen txokoan. Ni han nengoen, begiratzen, beste mutil koskorrekin. Eta, gero, poz bat eman ziguten: kolegioa okupatu zuten, kuartel bihurtzeko. Oporrak! Garai hartan, frantses asko etorri zen Donibanera ihesi.

Frantzia iparraldetik?

Bai. Hildakoen monumentuaren plazan zenbat kamioi frantses. Desmoralizatuak zeuden. Haiek zera nahi zuten: uniformeak kendu, jantzi zibila jarri eta desagertu. Baina poloniarrek tinko eta sendo etorri ziren. Frantziako iparraldeko meatzeetan lan egiten zuten poloniarrek, eta haiek osatu zuten besteak beste Varsovia dibisioa, armada frantsesaren barruan. Material guztiarekin ailegatu ziren Donibanera. Oso ondo gogoratzen ditut. Kamioiak erregalatu egiten zituzten. Badia ingelesez betea zegoen. Eta *Cuba* transatlantiko, badiatik kanpo, soldadu horiek ontziratzeko. Kaia jendez betea zegoen. Besteak beste, poloniarrekin eskapatu zen

Txiki Zabalo marrazkilaria. Hark naziotasun ingelesa zeukan, ez dakit nondik nora, eta ingelesak onartu zuten.

**11 urte zenezkala sartu ziren alemanak. Nola gogoratzen duzu okupazioaren urteetako zuen bizimodua?**

Gu normal bizi ginen. Saint Marie eskolan aurrena, eta akademia batean batxilerra egiten gero. Erditan ez ginen klasera joaten. Gurasoek ez zeukaten kezka hori. Janaria lortzeko kezka zeukaten. Guk Sarako euskarria genuen. Bizikletan joaten ginen Sarara, eta ekartzen genuen gurina, gazta... Janaria. Ez genuen goserik pasa. Eta alemanekin hartu-emanak ez ziren txarrak izan. Gainera, hori ere esan behar da: Espainiako erregimenaren Hendaiaiko kontsul jeneralak, Agirre Gonzalo finantza gizonaren anaiak, denoi pasaporte espainola eman zigun. Eta Sarako etxean, base-rrian, nire aitak jarri zuen bandera espainola: *propriété espagnol!* Soldaduak portatzen ziren. Jakina: armistizioko baldintza zen Frantziako Vichyko gobernuak alemanei egunean 400 milioi libera ordainduko ziela okupazioko soldaduen mantenurako. Soldaduek dirua zeukaten. Hori ez dute behin ere aitortuko donibandarre, erresistentzia eta abar, baina hotel guztiak beteta izan zituzten 1940tik 1943ra. Eta pagatu egiten zuten alemanek. Denda guztietan erosten zuten, liberak zeuzkatelako.

**Hotelak okupatu eta egonaldia ordaindu egiten zuten?**

Bai. Dena pagatzen zuten. Tira, Vichyko erregimenak pagatzen zuen. Oso jende serioa. Eta oso garbia. Oraindik akordatzen naiz musika. Egunero pasatzen ziren kantatzen. Ikasi egin nituen. Oraindik ez zaizkit atera burutik! Giroa zegoen normala. Han ez zegoen problemarik. Problema hasi ziren amerikarrak Ipar Afrikan lehorreratu zirenean eta argi gelditu zenean alemanek gerra galdu zutela. Erresistentzia hasi zen, makiak zirela eta besteak zirela. Euskaldun jendea ere, gure jendea, sartu zen. Hor bazegoen organizazio bat, besteak beste Doroteo Ziaurritz buru zuena, pilotu

aliatuak Espainiara pasatzen zituena. Donibanen izan zen atxiloketa franko. Horietako asko ez ziren bihurtu. Eta bihurtu zirenak, oso gaizki. Mintegi, Ziburun ardo negozioa zeukana, izugarrizko granoekin etorri zen. Indizioak sartu zituzten eta, tuberkulosiak jota, segituan hil zen.

**Gogoan duzu erresistentzia giroa? Sabotajerik edo bestelakorik?**

Ez. Han inork ez zuen ezer saboteatu. Alemanek kontrol postu bat jarri zuten Donibane eta Azkaine artean. Udan Saran egoten ginen eta ni bizikletan jaisten nintzen Donibanera, lagunak han neuzkanez. Kontrol horretan nik erakusten nuen *Spain*, eta aurrera. Ez zegoen problemarik. Han egoten ziren patxadan. Italiar batzuk ere izan ziren Sokoan. Ez dut behin ere jakin non arraiotik. Txapelarekin. San Marco batailoia. Fusil modu luze batekin, Donibaneko kaleetan galduak bezala ibiltzen ziren gizajoak. Alemanak? Manio-brak egiten zituzten, oso ikusgarriak gainera.

**Itsasoan?**

Ez, lehorrean. Behin, Goering egon zen Hotel de Golf-en.

**Ikusi al zenuten?**

Urrutitik, oso urrutitik. Dena hesitua. Tanke batzuk etorri ziren. Boulevard Thiers-eko asfalto guztia izorratu zuten. Gero, egun batean, soldaduak uniforme berri batekin hasi ziren etortzen, kakiz jantzita eta galtza motzekin. Afrika Korps osatuko zuten lehenengoak ziren. Iparraldean entrenatu eta deskantsatu zuten. Beraien buruzagiak Hotel du Palais-en zeukan egoitza, Biarritzen. Afrika Korpseko zati handi bat Iparraldean bildu zen Italiara joan eta Libiarako ontzia hartu baino lehen.

**Franco Hitlerrekin Hendaian bildu zenekoaz gogoratzen? Inguruko errepede guztiak itxi omen zituzten.**

Bai. Gu eskolan geunden, patioan jolasean, eta hegazkin asko zegoela ikusten genuen. Ehiza-hegazkinak. Gero jakin ge-

nuen: Hitler pasa da. Biarritzen ehiza-hegazkinen pilotuen eskola zegoenez, pentsatu nuen haiek zirela. Bai zera: Hitlerren eskolta. Baina trenea ez nuen ikusi. Eskolan geunden hura pasa zenean. Gero, *División Azuleko* lehenengoak iparraldera joaten ikusi nituen. Txapel gorriarekin pasa ziren denak.

**Okupazioaren bukaera aldera soldadu alemanen kopurua gutxituz joan al zen?**

Iparaldeko kostaldea atsedenekua zen. Soldaduak lasaitzeko ekartzen zituzten, atsedeen hartzeko, eta gero Errusiara berriro. Batzuek alde egiten zuten eta beste batzuk etorri. Errotazioa zegoen. Nik ikusi izan dut hori: negarrez joaten ziren. Hartu-emanak egiten zituzten Donibaneko jendearekin, neskekin eta. Denbora luzea pasatzen zuten. Gero izan ziren bengan-tzak eta abarrak. Ilea moztu alemanekin ibiltzen ziren neskei eta horrelako miseriak. Hartu-emanak zeuden jendearekin. Nola ez ziren izango. Soldadu bat maisua zen eskolan, Alemanian, eta dozena-erdi liburu zeuzkan. Bere txanda iritsi zenean, aitari utzi zizkion, eta aitak bere zuzenbidea eman zion, esanez: «Nik uste dut noizbait Tolosara iritsiko naizela». Oraindik liburuak hor daude.

“

Iparaldeko kostaldea atsedenekua zen. Soldaduak lasaitzeko ekartzen zituzten, atsedeen hartzeko, eta gero Errusiara berriro

”

**Aipatu dituzun bengan-tza eta miseriez zer gogoratzen duzu? Alemanek alde egin zutenean zer gertatu zen?**

Amerikar ontzi bat ailegatu zen, eta kanoikada bat bota zuen. Bat. Orduan aleman ofizialak, gizajoak, bizikletan joan ziren Baionarantz. Soldaduek esan zuten ezetz, gelditu egiten zirela: Donibaneko merkatuan kokatu ziren, merkatua zelako beraien janarien biltokia, eta esan zuten gerra presoak zirela. Alkateak ez zekien zer egin horrenbeste jenderek. Baratzak garbitzen eta horrelako gauzak egiten jarri zituzten.

### Agintari berriak etorri zirenean zer gertatu zen aleman haiekin?

Gerra presoak. Kontzentrazio-esparrua. Baina ofizial alemanek alde egin zutenean eta soldaduak gelditu zirenean, zenbait istilu gertatu ziren. Gure kaleko neskak. Ile mozketak eta gehiago ere bai: arropa kentzen zieten eta abar.

### Non?

Plazan. Alkateak jenio momentua izan zuen. Jeneral zahar bat zen alkatea: monsieur le general Lambrigot. Estratega fenomenoa. Nire aitarekin paseatzen zuen, besteak beste. Bandoa atera zuen: «*Ils sont de retour!*». Alemanak bueltan datozela! Frantses guztiak berriro etxera! Bakea izan zen. Ez ziren berriro hasi bengantzak eta abarrak... Susto hori nahikoa izan zen jendea pixka bat baretzeko.

## Donostian eta Madrilen ikasle

### Noiz itzuli zineten Gipuzkoara?

Anaia eta biok 1944an, uste dut. Gurasoek kezka zeukaten: espainola ahazten ari ginen. Gure gurasoak saiatzzen ziren noizean behin erdaraz egiten, baina guk euskara eta frantsesa geneuzkan. Batxilerraren erdia frantsesez egin nuen. Anaiarekin oraindik frantsesez egiten dut batzuetan. 15 urterekin mintzatu duzuna, mintzatzen duzu ehun urterekin. Nire aita fenomeno bat izan zen. Berriro ideia argitsua: osaba-izeba batzuegana bidali ninduen hona, Jesus Elo segi eta Pilartxo Sansinenearen etxera, Pasai Donibane-ra. Eta egunero, tranbian, jesuitetara. Jesuitek alokatua zeukaten Errenteriaraino joaten zen tranbia bat. Portua txalupaz pasatzen genuen. Arrauneko txalupa. Buenavistan tranbia hartu, eta Donostiara. Hemen zegoen giroa... faxista! Izugarritzko kontrastea izan zen guretzat.

### Azaldu giro hura nolakoa zen.

Aizu... [agur faxista egiten du besoa altxatuz]. Hasteko. Eta, gero, giroa espainola. Baina nahastua zegoen. Nazio-

nalkatolizismo faxista zen hura, erritu eta sineskerien erlijioa, desastrea.

**Eta zu, Iparraldetik etorria, gorri separatisten seme, eta gaztele-raz baldar.**

Hiru ginen. San Vicente gasteiztarra, Gasteizko abertzaleen semea. Eta bestea Zumeta, tolosarra, gero apaiz egin zen. Klase berean geunden, gure nukleoa berezia zen. Eztabaida politikoak izaten ziren eta guk aurre egiten genien hemen-goei. Pintadak ere egin genituen. Ingelesez. Hori bururatu zitzaion alderdiari: *We want freedom*. Nahi dugu askatasuna. Eta zen: uve bikoitza, uve bikoitza, efe. Ez zuen inork ulertzen noski. Pintada horiek egin genituen kolegio horretako paretetan: WWF.

**Ezta arrastorik ere inork.**

Guk ere ez! Guk Donibanen oso formazio ona hartu genuen letretan, humanistiketan benetan oso prestakuntza ona geneukan. Beste horiek baino hobea. Izan ziren eztabaidak, eta apaizek bazekiten nondik genbiltzan. Aita espirituala garai hartan zen Aita Imaz, bizkaitarra eta abertzalea. Bere aita oraindik kartzelan zegoen. EAJkoa zen. Jendea txandaka deitzen zuen eta, ni joaten nintzaionean, esaten zidan: «*Vamos a desahogarnos*». Bazegoen beste bat ere, eroa, Aita Laburu. Behin *Gora ta goraren* doinua txistukatzen ari ginela konturatu zen. Literatura irakaslea zen eta, azterketarik egin gabe, hamarra jartzen zigun. Giroa joan zen pixkanaka aldatuz. Pixkanaka.

**Baina hori 40ko hamarkadan baldin bazen, oraindik frankismo-rik itxiena zen, ezta?**

Bai, baina alemanen laguna eta laguntzailea izan zen Franco, eta aliatuak aurrera zihoazela ikusten zuten. Beldurra sartu zitzairen. Denok pentsatzen genuen aliatuek gerra irabazten bazuten lehenengoa izango zela Francori ostikada ematea. Ez zen gertatu. Baina denok pentsatzen genuen.



Hasieran beldurra guk geneukan, baina 1945-46an beraiek zeukaten. Pixkanaka beste aldera joan zen beldurra. Giroa Euskal Herri osoan aldatu zen. Gero pasatu zen pasatu zena. Stalinek salbatu zuen Franco, gerra hotza hasi zenean.

**Pasaian bizitzen eta jesuitetan ikasten zenbat denbora egin zenuen?**

Gurasoak 1946an bueltatu zirela uste dut. Aukeratu egin behar zuten: edo Frantzia lanean hasi edo bueltatu etxera. Ezin zela beti biolina jotzen bizi. Baimena eskatu zuen aitak, eta eman egin zioten. Paper bat eman zioten: «*Se le exhime de responsabilidades políticas*» eta abar. Aurrena Donostian kokatu ginen, gure etxea konfiskatua zegoelako: Falangea zegoen Tolosako gure etxean. Aitak trena hartzen zuen eguneroko, fabrikara. Nik jesuitetan segitu nuen batxilerra bukatu arte. Gero, 1950ean etxea bihurtu zutenean, nire aita oso tolosarra zenez, Tolosara joan ziren.

**Eta zu?**

Ni ordurako karrera egiten nintzen, Madrilen. Uste dut batxilerra 1947an bukatu nuela. Karrera 1948an hasi nuen, eta 1953an bukatu.

**Nolatan kimika?**

Nire amak esan zidan letrak egiteko eta besteek, aitaren aldekoek, ezetz, kimikak etorkizun handia zuela. Bale, Kimikak. Egin nuen. Ez naiz behin ere kimikari ona izan, urte gutxi izan naiz kimikari, baina uzten dizu formazio bat, dudarik gabe. Eta Frantziako hezkuntzak ematen zizun gauza garrantzitsua: historiaren zaletasuna, letren zaletasuna, kulturaren zaletasuna. Hemengo hezkuntzak ez du ematen hori.

**Iparraldean jaso zenuen hezkuntza frantses horrek arrasto handiagoa utzi dizu gero unibertsitatean jaso zenuenak baino?**

Askoz ere gehiago. Formazio urteak dira. Betiko markatzen zaitu.

### Zer moduzko bizimodua Madril frankista hartan?

Lana egin nuen asko. Tontoak bezala estudiantzen genuen. Gure opor bakarra izaten zen igandean kontzertura joatea. Gran Vía n bizi nintzen, eta hango antzoki batean igande goizero jotzen zuen, oso txartel merkearekin, Madrilgo Orkestra Sinfonikoak. Zuzendaria Pablo Sorozabal zen. Oraindik ikusi egiten dut. Ez zuen batutarik ibiltzen. Esku irekiarekin egiten zuen. Gero, Museo del Pradora eta liburu azokara asko joaten ginen. Bestela, estudiantu estudiantu estudiantu. Karrera bukatu nuenean, Ingalaterrara.

### Ikasle garai hartan bazenuen abertzale kontzientzia, kezka politikoa?

Bai. 1948 eta 1949an Jose Luis Alvarezek [Txillardeggi] zeukan inprimategi batean biltzen ginen Antiguan, Donostian, Guardia Zibilaren kuartelaren ondoan. Hor biltzen ginen Txillardeggi, Iñaki Larramendi, Rafa Albisu... Dozena bat. Gero ETAn sartu zirenak. Gure historia interpretatzen genuen, eta euskara praktikatzeko genuen Orixeren *Euskaldunak* poema irakurtzen. Bazegoen abertzale giroa. Bazeuden desadostasunak. Ni Eusko Jaurlaritzaren aldekoa nintzen. Gure ametsa zen berriro Eusko Gudarostea sortzea. Pentsatzen genuen errebantxan, armetan.

### EGIkoa zinen?

Osaba Doroteok 1948an eman zidan EGIko txartela.

### Txartela eta dena zeneukan? Ez al zen alferrikako arriskua txartela edukitzea?

Beste aldean uzten genuen, Jaurlaritzak Baionan zuen delegazioan. Osabarekin egotera joaten nintzen hara. Kanbon zegoen bera. Eta 20 urte nituela eman zidan: «To».

Txillardeggi eta horiekin egiten zenituen tertuliatan desadostasunak agertzen ziren, beraz.

“

Gure ametsa zen berriro Eusko Gudarostea sortzea. Pentsatzen genuen errebantxan, armetan

”

Joera desberdinak. Gu ginen oso sinplistik: Euskal Estatu, euskal armada eta errebantxa. Gerra giroan bizi izan ginen, 1936tik 1945 arte. Bederatzi urte haietan gerra zegoen, eta soldaduak ikusten genituen. Irratian gerra notiziak entzuten genituen. Errebantxaren zain geunden. Pentsatzen: noiz botako ditek Franco, edo noiz botako diagu.

**Gerora jarraitu zenuen tertuliakide haiekin harremanetan?**

Madriren arrisku bat hartu nuen. Sección Juvenil de Aranzadi sortu nuen. Kamuflajea izan zen. Igandetan biltzen ginen estudiante abertzaleak edo abertzale ziruditenak, eta Euskal Herriaren historia esplikatzen ibiltzen ginen. Ni nintzen irakaslea. Pentsa, kalitatea.

**Ez zenuen izan tentaziorik zure tertuliakide izan ziren haiekin bat egiteko?**

Igandero mezetara joaten naiz, hemen parrokiara, eta hor egoten da ETako lehenengoetako kide bat izan zena, administrazio arloan. Hura ere zahartua dago, ni bezala. Izena ahaztu zait. Behin etorri zitzaidan eta esan zidan: «Hik lagundu behar duk. Joan behar haiz fabrikatik fabrikara dirua eskatzen. Eta ez baduk egiten, hire kotxeari su emango zioagu». *Puñetas, leches*, eta ez nintzen sartu. Horrela dira gauzak.

## Ingalaterran eta Nafarroan kimikari

**Madriren ikasketak bukatuta Ingalaterrara joan zinen. Nora? Zertara?**

Aurrena Londresera ingelesa ikastera, baina gutxi ikasi nuen, estudiante atzerritar guztiak biltzen ginelako. Gure arteko hizkuntza frantsesa zen. Gainera, garai hartan turkiar batekin ateratzen nintzen eta harekin ere frantsesez. Diru pixka bat atera nuen kamarero. Betiko kontuak. Gauzak errepikatu egiten dira. Gazteria beti ibili da horrela. Gero, familiari eskerrak, postu bat eman zidaten Norfolk-en,

East Anglian, izozte fabrika batean. Hemen ari ziren konpainia bat sortzen, Hotz, eta ni hango teknikak ikastera joan nintzen. Han oso ondo. Pozik. Fabrikako neskekin-eta, fenomeno. Han ez dakit zenbat denbora pasako nuen. Gero konpainia berak bidali ninduen Grimbyra. Grimby arrantza portu bat da, Hull ibaiaren beste aldean dagoena. Arrantza portu bat. Izozte teknikak ikasi nituen. Dena nahastuta izozten zen: pasta moduko bat egin, pasta hori izoztu plakan, arrain forma emanaz moztu, eta hori saltzen zen izoztua. Hortik, berriro Londresera, *suisse roll* nola egiten zuten ikasten, espainolez *brazo de gitano* esaten dena.

Leku horietan guztietan zuk zeuk zer lan egiten zenuen?

Kimika, kalitate kontrola. Ingalaterran nengoen, ez enplegatu bezala, baizik eta estudiante. Hilabetero justifikatu behar nuen Poliziaren aurrean zenbat diru neukan banketxean. Han ez zidaten ordaintzen. Hemendik ordaintzen zidaten. 1953an joan eta 1954 arte izan nintzen Ingalaterran lan horietan. Nire biziko urterik goxoenak. Londresen ekuadortar andregaiak egin nuen. Oso maiteminduak egon ginen. Akordatzen naiz nola despeditu ginen Victoria geltokian. Hotzekoek lanpostua eskaini zidaten Nafarroan, eta Londrestik San Adrianera bidali ninduten.

Aldaketa handia.

Oso gaizki. Andregairik gabe. Hura bukatu zen. San Adrianen egiten genituen baba izoztuak. Erdi San Adrianen eta erdi Ingalaterran ibili nintzen. San Adriango produktuak Ingalaterran saltzen genituen: babak, alkatxofak, mertxikak... Ingalaterrara joaten nintzen kargamentuarekin, kamioiz. Nafarroan bageneukan aditu bat, tipo krudela: *Chato de Berbinzana*. Aitortu zidan berak gerran bere eskuekin ehun pertsona baino gehiago hil zituela. Ehun gorri baino gehiago.

“

1953an joan eta 1954 arte izan nintzen Ingalaterran kimikari lanetan. Nire biziko urterik goxoenak izan ziren

”

### Berak aitortu zizun? Harro?

Harro. Eta egun batean, Martzillako taberna batean, txoko batean zegoen tipo bati buruz esan zidan: «*Mira, ese es el nacionalista de Marcilla*». Bizirik atera zen bakarra.

### *Chato de Berbinzana* ezaguna da gerra zibileko istorioetan, ezta?

Nik ez dut behin ere ikusi, baina azaldu behar da. Garai hartatik niri ez zait gustatzen Nafarroa. Valladolideko mediku errepublikar bat bazen San Adrianera desterratua. Miserikordiako apaiza ere desterratua zegoen Calahorran, eta Don Manuel Lekuona ere bai. Askotan bisitatu izan dut Don Manuel Calahorran. Ospitaleko mojen kapilau zen. Tertulia egiten genuen udan medikuak, Miserikordiako apaizak, Don Manuelek eta laurok kalean eserlekuak jarrita, San Adrianen.

### San Adrianen noiz arte egon zinen?

1957 arte. Sansineneatarrak [Donostiako] Londres Hote-laren jabeak ziren. 1958an han hasi nintzen lanean. Aurrez egindako platerekin probak egiten hasi ginen. Horretan aurreratuak izan ginen. Departamentu batetik bestera, azkenean hoteleko zuzendari bukatu nuen. 1961 edo 1962an bihurtu nintzen zuzendari. 1980an alde egin nuen hoteletik.

Hogei urtean izan zen zure lanlekua, beraz, Londres Hotela. Hotelean zinen bitartean, frankismoaren azken urteetan, politikaren arloan ezertan aritu zinen?

Denok geunden zain, ea noiz arraio desagertzen zen Paco [Francisco Franco]. 1975 arte immobilismoa zegoen. Geunden zain, kontziente. Eta martxan. Nik garai hartan hartu-eman asko izan nituen Telesfororekin.

### Telesforo Monzonekin.

Bai. Askoz zaharragoa zen baina oso lagunak ginen. Asko joaten nintzen Telesfororen etxera eta tertuliak egiten genituen ETAkoekin, Txomin Iturbe eta garai hartakoekin. Go-

bernua ere hor zegoen. Garai hartan Leizaola zegoen. Hori guretzat disgustua izan zen. Lehendakaria hil zenean, Jose Antonio hil zenean, gure hautagaia Telesforo zen.

«Gure» esaten duzunean, zer esan nahi duzu?

Gasteen hautagaia. Telesforo zen dudarik gabe, eta ez Leizaola. Nire aitak esaten zuen: «*Leizaola tiene sangre de horchata*». Joaten ginen Parisera, Rue Singer-era, han egoten zen lehendakaria, baina hark kontaktzen zizun nola etortzen zen trenean Baionara hirugarren klasean. Portugaldar etorkin guztien istorioak zekizkien. Joaten ginen mezu abertzale bat entzutera eta hark ez zeukan mezurik. Jose Antoniok, bai. Gizon ttikia baina karismatikoa zen. Eta Telesforo, *superkarismatikoa*.

Parisera Leizaolarekin egotera joan ohi zinen?

Leizaola bisitatu izango nuen Parisen hiru edo lau aldiz. Ez propio horretara joanda. Beste gauza batzuetara joaten ginen Parisera eta egin beharrekoa izaten zen lehendakariari bisita. Leizaolarekin zen *atentismo* hutsa. Adi egotea. ETA ere hor zegoen, eta Burgosko epaiketa. Burgosko epaiketan bazegoen irteera bat. Nik aurkeztu nuen.

Zer irteera? Non proposatu zenuen?

1936ko Estatutuan lehendakariak zeuzkan ahaltasun militarrek. Orain ez ditugu erreklamatu. Lehendakariak zeukan ahaltasuna gradu militarrek emateko, komandante gradura arte. Eta proposamen bat egin zitzaion Jaurlaritzari: zergatik ez diezue ematen gradu bat eta zenbaki bat Burgosen epai-tuei, bere defentsa izateko: «*Ejército vasco, número tal, grado tal, me acojo a la convención de Ginebra*». Proposamena Miguel Castellsi ere egin nion. Castellsek erabili zuen. Epai-leek ez zioten onartu.

Jaurlaritzakoek zer erantzun zuten?

Ezer ez. Inertzia. Orduan, alderdian alde honetakoak eta beste aldekoak ez ziren konpontzen. Ajuriagerrari *Dollfuss*

esaten zioten, Austriako Dollfuss kantzilerra bezala, Ajuria-gerra ere diktadore bat zelako. Hor zegoen tentsio handia. Jose Antonio batetik, *Dollfuss* bestetik. Hemen bizi ziren dikadura baten menpean eta besteak mundu normal batean. Alde honetakoak ziren aktibistak. Eta beste aldekoek nahi zuten itxoin: etorriko da garaia, etorriko da garaia. Ajuriagerra arrisku handiak hartuz bizi zen. Askotan etortzen zen Donostiara, eta gure etxera etortzen zen lo egitera. Amak esaten zigun: «*Hoy tenemos en casa al hombre misterioso*».

Monzon zure laguna HBren sortzaile izan zen gero, eta zuk EAJn jarraitu zenuen. Nola eraman zenituzten desadostasun horiek?

“

Txillardegia eta biok beti izan gara lagun zaharrak. Txillardegik egiten zuen paper bat eta nik egiten nuen beste bat

”

Abertzale zaharrok ez genuen behin ere kontaktua galdu, ezta laguntasuna ere. Telesforo hona bihurtu zenean, sarekada bat egingo zutela zabaldu zen, eta Telesforo Ollauriko gure etxean kokatu genuen. Berak esan zidan: «*Ramón, ¿tú no crees que ETA es el ejército vasco?*». Nik ezetz. Zitatu nion erromatar esaera: *Cedant arma togae*. Obeditu diezaiotela indar armatuek indar zibilari. Nik uste dut ETA dela talde abertzale armatu bat. Pena handia eman zidan Telesforo hil zenean. Gobernuan geunden eta eztabaidatu zen ea gobernuko inor joango zen elizkizunetara. Azkenean Garaikoetxeak esan zuen: «Joan zaitzete Roke [Luis Mari Retolaza] eta zu. Deitu aurrena Maria Josefari [Monzonen alarguna], ea onartuak izango zareten». Maria Josefak erantzun zuen: «Labaien onartua, Retolaza ez». Orduan Garaikoetxeak erabaki zuen: «Inor ez». Niri pena handia eman zidan. Horrela dira gauzak. Adiskidetasunak ez dira galdu. Txillardegia eta biok beti izan gara lagun zaharrak. Txillardegik egiten zuen paper bat eta nik egiten nuen beste bat. Hori argi zegoen. Txillardegik harriak botatzen zituen ni alkate bezala joaten nintzenean. Ama Birjinaren Egunaren bezperan. Baina asaltoko Ertzaintza sortu zenean berak ere kobratu zuen [barrez].

## Ospe handiko soldadutxogilea

Ospe handia duzu, gazteleraz esanda, *miniaturas militares* egiten. Euskaraz nola esan behar dugu?

Gudariñoak. Nik asmatu nuen hitza.

Berunezko soldadutxoak ere esan ohi dugu, baina, berunezkoak al dira?

Ez dira berunezkoak. Metal zurizkoak dira.

Nondik datorkizu zaletasuna eta nolatan hasi zinen gudariñoak egiten?

Txikitatik gerran bizi izan da gure belaunaldia. Donibane Lohizuneko jostailu denda batean, Pergolan, aluminiozko soldaduak zeuzkaten. Sudurra erakusleihenaren kontra jarrita begira-begira egoten nintzen, baina ezin erosi, gurasoek brometarako ez zeukatenez garai hartan. Saint Marie eskolan urtearen bukaeran sariak ematen zituzten. Alkatea ere joaten zen eta erdi mailako saritzat kartoi handi batzuk ematen zituen, soldadutxo marraztuekin, mozteko. Soldadutxo horiek mozten hasi nintzen. Gero, Frantzian erakusten zuten historia ere oso historia militarra zen: batailatik batailara, bataila irabazitik bataila galdura. Hor ere sartzen ziguten zaletasun militarra. Historiazalea izanik, historia militarrean zaletzen zara. Uniformea ere historiaren parte bat da. Nola bizi ziren gizon horiek, nola gertatu ziren gauzak. Gaur egun dokumentazio handia dago. Ez bakarrik batailak, baizik eta zergatik sortu ziren gerrak, nolakoak ziren gerra hartara joan ziren gizonak, zer sistema zituzten. Soziomilitartasuna. Beti defenditu dut gauza bat dela militarismoa eta bestea militartasuna. Militarismoa da indar militarra erabiltzea gai zibiletan, indar militarren gehiegikeria. Baina euskaldunok zerbait izan badugu izan da militartasuna. Gure historiaren zati luze batean armak egiten eta gerra egiten bizi izan gara. Hortik, egun batean, Donostiako Getaria kalean nindoala, Bazar Easonense jostailu dendan



ikusi nituen soldadutxo batzuk. Bat erosi nuen eta kopiatu egin nuen. Handik hasi, eta aurrera segitu nuen.

#### Noiz hasi zinen lehen gudariñoak egiten?

1961ean, abuztuan. Hobby bezala, Londres Hotelean lanean ari nintzela. Aurretik marraztu egiten nituen. *Paper soldier* deitzen dena, zaletasun oso zabaldua mundu osoan. Hor aldaera asko daude: *paper soldier*, *flat soldier*, *demie boss*, erliebe osokoak... Nik erliebe osokoak egiten ditut. Eta hor, eskalak: 12 milimetro, 25, 30, 50, 70, 90, 120... Tradizionala da 50 milimetrokoa. Nik neurri horretakoak egiten ditut. Mundu bat da benetan. Oso mundu zabala.

#### Eskulanerako trebetasuna beharko da. Artista lana?

Artisau lana. Egiten duzu originala, gero moldea, gero fundizioa eta, azkenik, pintatu.

#### Prozesu osoa zuk osorik edo lankidetzan?

Ez. Hasieran, nik dokumentuak bilatu eta pintatu. Baneukan Londres Hotelean arotz gazte bat, Fermin Galarreta, paisaiak pintatzen zituena, eta esan nion: «Zergatik ez dituk egiten soldadutxoak?». Galarretak egiten zuen moldea, nik zuzenketak, eta pintatu ere nik. Horrela hasi ginen.

#### Zer materialekin hasi zineten?

Berunarekin. Astuna delako. Baina ez zuen ondo grabatzen. Antinomio pixka bat botatzen genion. Perdigoiak egosiz eta abar egin genuen gure nahaspila, txar samarra, baina hasi ginen saltzen saiatzen. Saltzen hasi eta, gero, azaltzen zara liburu edo aldizkari batean, pixkanaka ezagun bihurtu, eta mundu osoan saltzera iristen zara.

Gai hauek jarraitzen dituen blogari bati irakurri diot aitzindariak izan zinetela, eta mundu mailan punta-puntako kalitatea dutela zuen gudariñoek.

Batetik, munduak buelta asko ematen ditu. Mundua beti bueltaka dago eta ez dakizu zer gertatzen den ikusten ez duzun aldean. Bestetik, nire maisua soldadutxogile ingeles bat

izan zen: Charles Stadden. Gure gudariñoak egiten hasi ginean, kalitatea ez zen ona. Behin, hotelerako lanak zirela-eta Londredera joan eta, denda batean, Stadden lehengo soldaduak ikusi nituen. Zur eta lur gelditu nintzen. «Horiek dituk soldadutxoak!». Oso onak. Nire ustez, Staddenek irauli egin du soldadutxoak egiteko era. Gure inspiratzailea izan zen. Gero, gure estiloa hartu dugu. Galarretak berea, nik ere nirea. Gure kategoria daukagu. Onak garela uste dut.

#### Nongo gudariñoak egin izan dituzu?

Mundu osoko egileek bezala, napoleonikoak. Aurrena, napoleoniko frantsesak. Denok hortik hasi gara. Gero, beste herrietako napoleonikoak. Aspertzen zara, eta hurrengo saltoa izaten da: Federiko II.aren prusiarrak. Eta gero, dene-tik pixka bat.

#### Gerra zibileko Eusko Gudarostekorik-edo egin al duzu?

Modernorik ez dut egin. Noizbait egin behar dut. Soldadu modernoek uniforme gutxi zeukaten. Gudarostean uniformerik apainena ANVko batailoikoek zeukaten. Behintzat argazkiek irudi hori ematen dute.

#### Bere garaian tailerra jarri zenuten, eta enpresa sortu: Labayen SA. Urte hauetan guztietan zer gorabehera izan ditu zure lanbide honek?

Tailerra nik jarri nuen, eta Galarreta soldatapean nuen. Jaurlaritzan hasi nintzenean Garaikoetxeak bateraezintasuna jarri zigun denoi, eta tailerra utzi nuen. Berriri etorri eta alkate hasi nintzenean, ez nuen tailerra berpiztu. Ni neu hasi nintzen moldeatzen. Ikusten da alkatea ez dela ona moldeatzeko. Desastre anatomikoak egin nituen. Alkatetza utzi eta SAPA fabrika hasi nintzenean, segitu nuen. Gauza ho-beak egin nituen orduan.

#### Zenbat gudariño egin ote dituzu guztira?

Milaka. Modeloak? Ez dakit, bai Galarretak bai neronek eginak, akaso berrehun edo hirurehun.

**Beti izan duzu beste lanbide bat, baina negozio errentagarria da?**

Dirua ematen zuen. Ez zen inoiz nire lanbide nagusia izan. Baina jende asko dago hortik bizi dena. Artisau izaten ez duzu behin ere diru asko lortzen, baina nahikoa, bizitzeko.

**Gaur egun jarraitzen duzu honekin. Zenbat denbora eskaintzen diozu?**

Ordu pare bat egunean. Egunero. Bestela eskua galtzen da. Pianoa bezala egunero jo behar da.

**Atzo bertan, adibidez, zer gudariñorekin egin zenuen lan?**

Kantauriar boluntarioen fusileroa. Poloniako ondorengotza gerrakoak, 1740-41ean. Behe Nafarroa eta Zuberoakoak ziren. *Royal Cantabres* erregimentukoak, Bela mauletar zaldunak sortua. Euskaldunak kantauriarrak ziren orduan.

**Esan didazu txirula jotzen duzula hain zuzen ere jakin zenuelako Federiko prusiarrak txirula jotzen zuela.**

Bai. 1958an-edo hasi nintzen. Ez nuen talenturik. Ez dut balio. Don Primitivo Azpiazu kontserbatorioko irakasleak eman zizkidan klaseak. Emazteak piano ikasketak egin zituen, biok ginen XVIII. mendeko musikaren zaleak, badaukagu klabezina... Ideia zen emazteak eta biok elkarrekin jotzea. Hasieran jotzen genuen, baina gero pixkanaka harraipatzen zaitu eguneroko prosak eta denbora faltak.

## Donostiako Udaletik Eusko Jaurlaritzara

**EAJren izenean Donostiako Udalean sartu zinen trantsizioan, udal hauteskundeak baino lehenagoko udal taldean, Ramon Jauregi buru zenutela. Nolatan?**

Alderdiaren izenean Jesus Maria Alkain zenaren semeak proposatu zidan. Eztabaida askoren ondoren, erabaki zen gestorako lehendakaria Ramon Jauregi izango zela. Bazegoen arrazoi bat. Garai hartarako, 1978ko abuzturako, hauteskunde bakar batzuk izan ziren, 1977koak, eta bai Donos-

tian eta bai Gipuzkoan PSOEk irabazi zituzten. «Zuek irabazi duzueenez, zuek lehendakari». Ni nintzen bigarrena. Udalaren desastrea ikusi genuen. Ez zegoen batere dirurik. Ez dugu behin ere aztertu zer esplikazio zuen horrek: zergatik zergek ez zuten dirurik ematen, edo zer ustelkeria, edo zer desorganizazio. Eta istilu asko. Jende asko joaten zen plenoetara eta iskanbila izugarriak izaten ziren plenoetan. Alderdi asko ginen, baina azkenean pastela egin genuen Jauregik, EIAko Txema Amianok eta neronek. Pasa genuen asteburu bat gure Ollauriko etxean, eta lagun egin ginen.

**Zer moduzko udalburua izan zen Ramon Jauregi?**

Ondo. Konpontzen ginen. Baina hor ez zegoen dirurik. Miseria hutsa.

**1979an Alkain alkate aukeratu zutenean zu zinegotzi izan zinen. Zeren zinegotzi?**

Kultura, eta lehenengo alkateordea. Bigarren joan nintzen zerrendan. Alkain zen oso pertsona ona, zuzena, kontserbadora, asko sufritzeko gaitasuna zeukana. Lehenengo plenoan jendea hasi zen: «*Alkain, calvo!*». Gizona gelditu zen lur jota hasiera-hasieratik. Kontularia zen lanbidez, eta, ikusi zuenean txanponik ez zegoela, jota gelditu zen: «Hau zer duk? Zer egingo diagu?». Asko sufritu zuen plenoetan, irainekin eta. Pleno guztiak ziren iskanbila hutsa. Bera zen beste mota bateko pertsona bat, bere mundu bateko pertsona bat. Gauza bat esan zuen: «Nik bukatzen dudanean, ez naiz behin ere etxe honetara etorriko. Ez ditut behin ere nire oinak hemen jarriko». Gainera bere egutegia zeukan: zenbat pleno falta zitzaizkion apuntatzen zuen.

**Trantsizioaren garaian abertzaleen artean hausturaren alde egin zuten batzuek, autonomiaren alde egin zenuten beste batzuek. Zuk zer gogoeta egin zenuen?**

Bai gure Estatutuak bai Nafarroakoak legezko egiten dute erreferendum bat egitea, ea nafarrek nahi duten probintziekin, denbora zaharretan esaten zen bezala, hartu-emanik

izan. Errealitatea da nafarrek ez zutela nahi. Eta kito. Errealitatea zen nafarrek ez zutela nahi. Gerraren arrastoa zen oraindik. Eta ETaren beraren arrastoa. Eta Telesfororen hanka sartzea.

### Zer hanka sartze?

Nafarroarako martxa. Horrek oso efektu txarra izan zuen Nafarroan. Nafarroa Euskadi da. Nik uste dut aldrebes zela: Euskadi Nafarroa da. Lurraldetasuna... Ez dutela nahi! Legeak eskaintzen die: nahi al duzue erreferenduma egin? Estatutuan dago! Zergatik ez da egiten? Badakigulako zer aterako den. 30 urte pasa dira eta begira Nafarroan gaur egunean ere nola dabilzan. Ez dute nahi.

Espainiako Konstituzioaren aurrean abstentzio jarrera izan zuen EAJk, baina gero Estatutua nolabait Konstituzioaren sistemaren barruan zihoan.

Bai, baina esaldi garrantzitsu batekin: eskubide historikoak. Estatutua ez dago Konstituzioan sustraitua, baizik eta gure eskubide historikoetan. Hori garbi dago. Ez baditugu esplotatu gure eskubide historikoak, adibidez gai militarretan, hori gure kulpa izan da. Kontzertuak behintzat lortu ziren. Konstituzioaren erreferendumean abstenitzeko arrazoiak bazeuden, baina bestetik Konstituzioa behar zen. Ez zen guk nahi genuena, baina ezta ere aurka joateko nahikoa.

Zinegotzi zinela jaso zenuen Garaikoetxearen deia. Zuk kontatua da aukera eman zizula: Kultura edo Herrizaingo Saila.

Bai.

Luis Mari Retolazari baino lehenago eskaini zizun zuri Herrizaingo sailburu izatea?

Hori ez nizuke esango. Galdetzen ari zen, konpromisorik gabe. Alde batetik, berari gustatzen zitzaion jendea aukeratu nahi zuen, baina, bestetik, alderdiak onartzen zuen jendea izan behar zuen. Hor ibili zen jendea bilatzen. Askok ez

zuten joan nahi. Garai hartan ez zen ikusten sistemak zenbat iraungo zuen. Jende askok esan zion ezetz. Niri esan zidan: «¿*Tú ya te meterías en Interior?*». Esan nion: «*Yo prefiero Cultura. ¿Interior? ¿Para dejar viuda?*». Galdera bat baitzegoen: zer egingo du Ertzaintzak ETAk ekintzak edo erailketak egiten dituenean? Harrapatzen ditugu ETAkoak? Gerra bat sortzen dugu? Konpromiso handia. Nik pentsatzen dut pentsatzen dudana bezala, eta Kulturana, trankil.

**Zergatik deitu zizun zure ustez Garaikoetxeak: bere gustukoa zinelako edo alderdiko gizona zinelako? Ezagutzen zintuen pertsonalki ordurako?**

Bai. Guk ikusi genuen 1977an hainbeste alderdirekin pitutara gindoazela. Uste genuen ez zela ideologiaren garaia, eta sortu genuen elkarte bat topaleku bezala: Gaunok. Mundu abertzalean oinarrizko konpromiso batzuk lortu nahi genituen. Garaikoetxea eta biok hor geunden. Porrot egin zuen. Alderdiek bakoitzak bere aldetik jotzen zuten. Diru pixka bat gastatu genuen, baina ez zen ezer atera. Garaikoetxea hor ezagutu nuen. Alderdiarentzat tipo normala nintzela uste dut, familia abertzaleko semea.

**Zalantzarik egin zenuen eskaintzari baiezkora eman edo ez?**

Garai hartan Eusko Jaurlaritzak prestigio handia zeukan. Jose Antonioren Jaurlaritzaren zen, ez Leizaolarena. Eusko Jaurlaritzako kide izatea egundoko ohorea zen edozein abertzalerentzat. Nik, gainera, Jaurlaritzakoa izandako jende asko ezagutu nuen. Hara joan nintzen dudarik gabe.

**Behin baino gehiagotan irakurri edo entzun izan dut aurreneko Jaurlaritzaren hartan maila handiko sailburuak egokitu zinetela.**

Ez dakit maila handikoak ginen. Baina bi gauza zeuden: zegoen fedea handia egiten ari ginenaren gainean, eta zegoen ausardia. Han ez zen bromarik. Garaikoetxea oso lehendakari gogorra zen, baina arriskuak hartzeko beti prest zegoena. Jaurlaritzan oso jende ezberdina geunden. Batzuk ginen

“

Jaurlaritzan batzueginen alderdiko jendea, besteak ez hain alderdiko jendea, eta besteak argi eta garbi espainolak

”

alderdiko jendea, besteak ez hain alderdiko jendea, eta besteak argi eta garbi espainolak.

**Garcia Egotxeaga eta?**

Bai. Eta Mario Fernandez. Edo Javier Lasagabaster. Eta Carlos Blasco. Pixkanaka horiek ere kontzientzia hartu zuten. Jaurlaritza hura bukatu zenean, abertzaletasun eskasa zeukan jendea abertzaletasun beroagoarekin bueltatu zen etxera. Gobernuan ondo konpontzen ginen, gauza bat argi zegoelako: autoritatea zeukan lehendakariak, berak agintzen zuen. Lehendakariarekin ez zegoen bromarik. Baina arriskuak hartzen zituen eta erantzukizunak ere bai. Batzorde ekonomiko bat sortu zuen sail bakoitzaren gastua kontrolatzeko, eta Mario Fernandez jarri zuen buru. Marioren kontrolpean zeuden sail guztiak, Kultura eta Hezkuntza ezik. Garaikoetxeak kontrol zuzena zeukan guregan.

## Euskal telebistaren sortzaile

**Zure Sailaren lehentasun nagusia euskarazko telebista sortzea izan zen hasieratik?**

Bai. Erabakia hartua geneukan. Nire aginduak argiak ziren: euskalduna, hutsik, kito. Espainiako legearekin edo legerik gabe. Baina aurrera. Presa handia genuen.

**Zergatik presa?**

Joe zergatik! Ez genekien zenbat iraungo zuen sistemak. Guk sentitzen genuen herri honek behar zituela telebista eta irratia euskaraz, baina gaur. Edo, kasik, atzo. Sailaren lehentasun nagusia izan zen. Kultura Sailaren helburua hori zen. Nik esan nuen Kultura Saila zela Defentsa Ministerioa. Ez geunden ziur telebistarekin euskarak iraungo zuen, baina telebistarik gabe ez zuela iraungo ziurtasun osoa geneukan. Esan genuen ez genuela aurrekonturik aurkeztuko. Gehien-

goa geneukan parlamentuan eta Euskadiko Ezkerrekoak oso ondo portatu ziren. Bazekiten zertan ari ginen isilka. Esan genuen gastatuko zela behar zen dirua. Hala egin zen.

**Erraz onartu zizuten hori Garaikoetxeak eta beste sailburuek?**

Hori lehendakariak onartu zuen. Besteek ez zuten zer esanik.

**Zuk lehendakariaren babes osoa zeneukan eta...**

Eta kito.

Jaurlaritzan zeuden sailburuen artean, zeuen artean hain izaera eta joera ezberdinekoak izanda, egongo zen euskara hutsezko telebista hain presazkotzat jotzen ez zuen jendea.

Izan ziren kazetariak, Amatiño bezala. Zergatik ez elebiduna. Euskalduna, demontre.

**Amatiñok esaten du, idatzi izan du, hasierako asmoa elebiduna egitea zela.**

Amatiñok ez daki zer esaten duen. Ez zegoen horretan. Ez zegoen Jaurlaritzan. Ez du behin ere jakin. Erabakiak hartzen ziren lehendakariaren eta Kultura sailburuaren artean. Edo hobeto esanda: Kulturak proposatzen zuen eta lehendakariak onartzen zuen. Hor ez zen behin ere dudarik izan. Amatiño oso berandu sartu zen telebistan, berriemaileen lana planteatu zenean. Kazetaria zen, oso trebea, izugarrizko langilea, baina ni ez nentorren bat, ez zen konpontzen Josu Zubiaurrekin [EITBko lehen zuzendari nagusia]. Zubiaurrek egin zuen egitura materiala, instalazioak. Oso teknikari ona zen. Gero, Iñaki Beobide eta horiekin nire ardura nagusia izan zen programa euskaldunak prestatzea. Itzultzaileak behar genituen, eta horretaz Xabier Mendiguren arduratu zen. Bikoizketak egiten zituen jendea behar genuen. Horretan Beobide ibili zen. Oso inportantea zen. Ez zegoen adinoko jende alfabetaturik, ahotsa tabakoarekin edo alkoholarekin errea zeukan jenderik. Ikastolako jendea izaten zen.



Beti esaten dut telebista euskalduna oso neurri handian ikastolei zor zaiela. Oso jende gaztea zen. Ikastolako jendea.

**EITBren historia ofiziala 1982an hasi zen, maiatzean Eusko Legebiltzarrak legea onartu zuenean, baina lehenago hasi zineten lanean. Noiz hasi zen jendea Lakuako sotoan prestaketa lanetan?**

Problema asko izan genituen. Zer esango dizut: kazetarien problema. ENG taldeak, *Electronics News Gathering*, nonbait prestatu behar ziren. Ez geneukan laguntzarik Espainiako telebistaren partetik. Espainian nahi zuten guk parte hartzea hirugarren katean. Baina guk esaten genien: «Ez. *Artículo 19.3., la comunidad autónoma tendrá su propia televisión*». Ez genuen kasurik egin eta isil-isil prestatu genuen. Horregatik isiltasuna. Guk geneukan ideia bat oso garbia: Espainiako legalitatea eta Euskal Herriaren legitimitatea. Gu ginen Euskal Herriaren ordezkariak. Legitimitate guztia geneukan. Teknikoki ez genuen oinarririk, Espainiako telebistaren laguntzarik ere ez, eta, orduan, alokatu genituen profesional batzuen zerbitzuak: Hamburger Studios. Gure jendea prestatzera etorri ziren. Durangoko egoitzaren planoak egin zituzten eta pertsonala formatu zuten Lakuako bodegetan, bate-tik, eta Donostiako Prim kaleko beste bodega batean, beste-tik. Prim kalean bikoizketak-eta egiten ziren, eta Lakuan ENGen prestaketak. Gero, Hanburgon bertan egon zen 42 profesionaleko taldea. Han joan ziren denak, ofizioa ikastera.

**Zu zeu Hanburgora joan zinen, ezta?**

Bai, bisita bat egitera joan nintzen eta sorpresa eman zidaten: han gure unitate bat zegoen pelikula hartzen eta, Hamburger Studiosen egoitzetara ailegatu ginenerako, prest zeukaten eta proiektatu egin zuten. Giro ona zegoen.

**Erdi kontatuta daukazu frekuentzien zenbakia lortzeko zailtasunak izan zenituztela.**

Numeroa, noski. Frekuentzien numeroa behar genuen, emanaldiak hastean Europako beste telebistei enbarazurik ez egiteko.

1982ko Urte Zaharrean emanaldiak hasi nahi, eta larri zenbiltzaten Madrildik zenbakia garaiz lortzeko. Modu berezi samarrean lortu zenuten, ezta?

Bueno...

Gutun-azal bat tartean izan zela irakurri dut nonbait.

Beti izaten duzu bihotz oneko jendea, gutun-azal batekin gauza asko egiten dituen jendea. Hala izan zen.

Garesti atera zen?

Ez, merke. Ez zen anbizio handiko gizona. Horrela aritzen ginen. Joseba Alvarez-eta ere lagundu genituen, istilu batzuk sortzeko...

Euskal Herrian Euskaraz taldeak Euskal Telebista lehenbailehen sortzearen alde egindako kanpaina diruz lagundu zenutela, alegia.

Kultura Saisetrik finantzatua.

Azaldu hori.

Nik Kultura Sailean neukan diru sail bat, ondo pentsatua, lainoz betea: hedapen kulturala. Zer da hedapen kulturala? Edozer gauza. Telebista zergatik euskaraz eta abar esplikatzeko: hedapen kulturala. Horretan iaioak ziren Euskal Herrian Euskaraz taldekoak. Nik ezagutzen nuen pertsonalki Joseba Alvarezen aita [Txillardegi]. Eman genien diru-laguntza, eta beraiek egin zuten egin behar zuten lana: kalea mugitu.

Kultura Sailaren diruarekin egin zuten, beraz, Kultura Sailari presio egiteko kanpaina.

Zergatik ez? Bakoitzak bere papera. Labaienen hiletak egin zituzten eta joan ziren zerraldo batekin parlamentura.

Zuk emandako diruarekin.

Bai [barrez]. Mundu abertzalean beti izan da batasun bat. Gu ginen abertzaleak, eta horiek ziren abertzaleak. Abertzale ginenok gauzak oso argi geneuzkan.

### **Pozik gelditu al zinen Euskal Telebistaren sorrerarekin, azken emaitzarekin?**

Bai, dudarik gabe. Aurten asko ari da aipatzen 1982ko legea. Guk legea baztertu egin genuen, legeak Administrazio Kontseilua dakarrelako, eta publizitatea eta argitasuna. Eta gu gauzak ilunean egiten ari ginen. Legea maiatzean sortu zen eta telebista pantailara handik zortzi hilabetera atera zen, Urte Zaharrean. Dena prestatua zegoen. Dena egina zegoen. Legeak ez dio botere handirik ematen Kontseiluari. Gobernari pisu gehiago ematen dio. Telebista martxan jarri eta gero onartu zituen aurrekontuak parlamentuak, 1983ko otsailan. Onartu zituzten, eta nik pentsatu nuen momentu horretan Kultura Sailaren papera bukatu zela. Bazeukan legea, ente autonomoa zen. Beraz, agur.

### **Sortu eta gutxira hasi ziren albistegiak gazteleraz egiten, ezta?**

Bai. Ni kanpoan nengoan. Nire ikuspuntutik, telebista martxan jarri zenean bukatu nuen nire lana. Telebistaren kudeaketa ez zen nire ardura.

### **Irratiak sortzea errazagoa izan zen.**

Bai. Aurrena, esperientzia zegoelako. Joxe Mari Oterminek eta Joxe Mari Iriondok-eta bazekiten. Irrati erdaldun batekin hasi ginen. Radio Vitoria erosi genuen. Diru gutxiko irratiak zen, Ser konpainiak kontrolatzen zuen, baina jabea Gasteizko Udal Aurrezki Kutxa zen. Erosi eta hango pertsonalarekin gelditu ginen. Kendu genituen Serren programak, sartu ziren programa berriak eta jarri ziren antena berriak Bastida ondoan, Kantauri Mendikatean.

### **Telebistarekin argi zeneukaten euskara hutsez izan behar zuela. Irratian zer irizpide?**

Irratian ez zen problemarik izan. Planteatu zen zergatik ez jarri Euskadi Irratia erdalduna Bilbon. Gran Vía jarri zen. Barne Ministerioari erosi genion etxea. Eta bestea Donostian, Kontxa ondoan, Fraga Informazio eta Turismo minis-

tro zen garaian Kultura Delegazioa izandakoan. Otermin jarri genuen hor buru. Esperientzia zeukan. Bazegoen jendea. Ez zen hain zaila egiten. Gero, gauzak pixka bat korapilatu zirenean, pentsatu genuen bi irratientzako zuzendari bat behar zela. Ez genuen aurkitzen. Azkenean formula eman zidan Xabier Arzalluzek: Inazio Arregi. Segituan eman zuen baietza, eta uste dut oso lan ona egin zuela. Kategoriako profesionala.

**Telebista, irratia... eta prentsa idatzia? Euskarazko egunkaria bultzatzea erabat baztertua zeneukaten?**

Bai. Baztertua. 1980az ari gara mintzatzen. Pentsatu genuen euskaldun asko zegoela entzuten eta ikusten bazekitenak, baina irakurtzen zekitenak oso gutxi zirela. Eta ez zela oraindik ailegatu euskal kazetaritza idatziaren unea. Lehen-tasuna zela kazetaritza ikus-entzunezkoa.

## HABE, Antzerti eta beste

**HABE ere zure garaian sortua da. AEK bazegoen lehendik. Nola konpondu zineten?**

Konpondu ginen. Nik hartu-emanak izan nituen Julen Kalzada apaizarekin. Oso gogorra zen, baina oso zintzoa. Etorri zen esanez: «Gu gara ente publikoa eta eman behar diguzu diru publikoa». Esan nion: «Zuek ez zarete ente publikoa. Zarete, eta hori aitortuko dugu ofizialki, interes publikoa daukan ente pribatua. Eta hartuko duzue diru kontrolatua». Gure proposamena izan zen: Julenek esaten zuen 45.000 ikasle zituztela, eta guk esan genien 45.000 ikasle horiek beren matrikula aurrezki kutxan ordaintzen ikusi nahi genituela. «Zuen matrikula baldin bada 10.000 pezeta, gobernuak emango ditu beste 10.000, matrikula bakoitzeko». Horretan akordio batera ailegatu ginen. Azkenean ahaltsun hori diputazioei pasa zitzaien. Gero sortu genuen HABE. Bi edo hiru euskaltegi esperimental sortu ziren, baina ez ge-

nuen onartu AEKren lekua hartu eta gobernuak bere euskaltegiak zabaltzea. Harrituak gelditu ginen HABerako AEK-ko zenbait irakasle hartu genituenean. Ikastaroa eman zitzaien Gaubeako fraide etxe batean 60-80 bat pertsonari. Harritu ginen zenbat lan egiten zuten eta zer gutxi kobratzen zuten. Benetan jende motibatua, abertzale serioak, han ez zegoen bromarik. Haiek ez zuten egiten diruaren truke.

**Euskal Orkestra Sinfonikoa ere zure agintaldiko emaitza da.**

Bai. Behin akordatzen naiz Garcia Egotxeagak esan zuela: «*Cuando un pueblo se transforma en Estado, hace tres cosas: crea una orquesta sinfónica, crea una línea aérea y...*». Hirugarrena ez naiz akordatzen. Aire konpainiarena pentsatu genuen. Bilbon bazegoen txiki bat Madrilerako zerbitzua zeu-

kana, baina ezer seriorik ez. Orkestra bai, orkestra egin genuen. Zortea izan genuen. Jakin genuen Enrique Jordá donostiarra, San Franciscoko orkestrako zuzendaria, jubilatu egin zela. Proposatu genion eta etorri egin zen. Baimena eskatu zion San Franciscoko orkestrari, jubilazioa handik kobratzen zuenez, eta esan zioten baietz. Arduradun Imanol Olaizola egon zen, jendea ekartzen eta abar. Moldatu ginen. Sortu zen orkestra nazionala.

**Baina ez ballet nazionalik. Hori ere bazenuen buruan.**

Bai. Nik segitu izan banu gobernuan, balleta ere aterako nuen. Nik atera nuen, bestetik, Antzerti eskola. Gero Joseba Arregi alu horrek likidatu egin zuen.

**Bizialdi laburra izan zuen, azkenean, antzerki eskolak.**

Bai. Arregik likidatu zuen. Arregik kalte asko egin zuen. Ez zen konpontzen AEKrekin... Sekretario bat zen. Urguiluz betetako apaiza zen. Bere irizpideak ez ziren abertzaleak, baizik eta oso pertsonalak, oso inbidiaz beteak.

“

Joseba Arregik kalte asko egin zuen. Bere irizpideak ez ziren abertzaleak, baizik eta oso pertsonalak, oso inbidiaz beteak

”

Zure ideia izan zen antzerki eskola sortzea?

Bai.

Aitaren antzerkizaletasunak ere izango zuen eragina. Izena ere, zuen aitaren *Antzerti* aldizkariaren bera.

Bai, noski. Antzerti. Eta pentsatzen genuelako telebistarako inportantea zela. Ez ahaztu Miramongo instalazioak egin zirela telebistarentzat, baina baita ere pentsatuta zeudela euskal zinemaren produkzioa laguntzeko. Hori ez da behin ere egin. Zu zaude boterean, gero ez zaude, etortzen da beste bat eta bakoitzak bere era du. Horrela gertatzen da. Baina Antzerti beharrezkoa zen. Antzertitik atera da *Goenkale*-ko zenbait jende. Nahi baduzu beste *Goenkale* bat egin, aktore eskola behar duzu. Hori ofizio profesionala da. Kendu egin zuen eta ez da berritu. Berrituko da noizbait beharra nabaritzen bada.

Joan Mari Torrealdaik, aldizkari honetako zuzendariak, eskatu dit galdetzeko biblioteka nazionala zergatik ez zenuten sortu.

Hasi ginen sortzen. Ez genuen denborarik izan. Gasteizen kokatuko zen. Egoitza eta guzti aukeratua zegoen Floridako paseoan. Ni egon nintzen hiru urte! Laburrak dira! Gauza asko egin genituen. IVEF [Kirol Hezkuntzako Euskal Institutua] egin genuen. Nik Donostian nahi nuen kokatu, baina azkenean, arrazoi politikoak zirela-eta, Gasteizen jarri zen. Lehenengo Jaurlaritzaren abantaila izaten da dena egiteko dagoela. Orduan, fenomeno bat zara: egin egin duzu, ez zegoelako ezer. Bigarrenak ez zuen egin telebista, telebista egin zegoelako. Biblioteka nazionala ez zen egin, ez. Baina hurrengoek ez zuten segitu.

Euskararen Legea ere zure garaikoa da, 1982. urtekoa.

Ez zen atera nire gustura. Ez daukat oroimen onik. Aurrena gure Sailean eramaten hasi ginen, Kulturean. Eta ituna egin nuen Jose Luis Lizundiarekin [EEko legebiltzarkidea orduan]. Gero Hezkuntzakoak sartu ziren, besteak beste Jose-

ba Arregi. Hezkuntzan zegoen, Euskara Idazkaritzan. Arregik konbentzitu zituen Etxenike eta abar, eta legea moteldu egin zen.

### Zer zentzutan?

Gauzak ez zirela inposatzen. Legea da inposatzeko. Legeak ez ditu aipatzen zigorrak. 25. urteurrenean nik esan nuen erromatarrek esaten zutena: *dura lex sed lex*. Lege gogorra, baina legea. Niretzat Euskararen Legea da lege motela, baina legea. Hasierako proiektua, Lizundiak eta biok egin genuena, gogorragoa zen. Garaikoetxeari ere pixka bat beldurra ematen zion. Guk pentsatzen genuen hori inposatu egin behar zela, eta besteek, eta lehendakariak berak, pentsatzen zuten: kontuz, gero etortzen dira hauteskundeak eta botoak joaten dira joaten diren lekura. Estatua ez daukazunean hori ere pisu handiko argudioa da. Estatu bat ez izateak ekaritzen dituen ahultasunak. Estatua baldin badaukazu, inposatzen duzu eta kito. Legea izan zen motela, hori ere aitortu behar da, arrazoiak ere bazirelako.

Haritzelharrek esan zuen sail honetarako iaz egindako elkarrizketan Jaurlaritzak 1980an euskara batuaren alde egin izana garrantzitsua izan zela, bai Hezkuntza Sailean, eskola sisteman, eta bai Kulturari, besteak beste hedabide publikoetan. Egon zen eztabaidarik? Garai hartan EAJ barruan irizpideak ez baitzeuden hain argi.

EAJren problema zen jende asko zegoela oso abertzalea baina ez zekiena euskaraz. Orain dela 30 urte ez zekiten euskaraz eta gaur egun ere ez dakite euskaraz. Euskararen berpiztea jende askorentzat traba zen. Oso ondo zegoen bere museoan, baina berriro euskara bizirik? Traba zen jende askorentzat, besteak beste beren burua abertzaletzat jotzen zutenentzat.

### Euskara ereduari buruz eztabaidarik izan zenuten Jaurlaritzan?

Sailburuen artean ez dakit zenbat euskaldun ginen. Hiru edo lau?

Gobernukideen zerrenda hauxe da: Carlos Garaikoetxea, Mario Fernandez, Javier Cano, Pedro Miguel Etxenike, Carmelo Renobales, Javier Agirre, Javier Lasagabaster, Felix Ormazabal, Pedro Luis Uriarte, Javier Garcia Egotxeaga, Jose Luis Robles, Carlos Blasco eta zu.

Hor, euskaldunak lau: Garaikoetxea, Etxenike, Retolaza... gutxi baina bazekien, eta ni. Baina duela 32 urtekoaz ari gara mintzatzten. Gauzak asko aldatu dira. Gaur egun hori ez zen onartuko hizkuntzaren arloan.

Genero ikuspegitik ere ez: hor ez zegoen emakumerik.

Emakumeak garai hartan etxean izaten ziren. Kultura Sailean bultzatu zenituen proiektu guztietan Garaikoetxearen babes osoa izan zenuen?

Bai. Garaikoetxeak eman zidan nik behar nuen babes eta laguntza guztia. Finantza gautzetan, gauzak erosi ziren erosi ziren moduan. Garaikoetxeak, noski, bazekien nola genbiltzan. Bazekien, azken finean, erantzukizuna berea izango zela. Pieza bateko lehendakaria izan da. Orduetik ez da horrelakorik izan.

Zuk esana da, gobernu hari buruz ari zarela, hutsune bat izan zela eskumen militarrek ez hartzea, gorputz militar bat ez sortzea eta Ertzaintzari izaera zibil hutsa ematea.

Foru militarra. Gure historian, eskubide historikoetan, argiena ahaltasun militarra da. Diputazioek zeuzkaten beren tropak. Madrilekin ahaltasunak bihurtzea eztabaidatu zenean, eskubide hori ez zen eztabaidatu. Esaten zen: zertarako. Nik pentsatzen nuen gure Ertzaintzak izan behar zuela foru militarra, izan behar zela indar armatu militarra. Bestela ez zuela behin ere baztertuko Guardia Zibila. Guardia Zibila indar militarra da, ez indar zibila. Hala gertatu da: Guardia Zibilak hemen segitzen du, gu ez garelako gauza

“

Garaikoetxea pieza bateko lehendakaria izan da. Orduetik ez da horrelakorik izan

”



organizazio militar alternatiboa eskaintzeko. Gure Ertzaintza egin zen zibila: dauzkate sindikatuak, dauzkate gauza guztiak, baina ez dira alternatiba Guardia Zibilarentzat.

Jaurlaritzaren bozeramaile ere izan zinen. Zuk ematen zenituen azalpen guztiak Gobernu Kontseiluaren ondoren.

Kontseiluaren ondoren, ez. Kontseilua pasa, eta lehendakariaren bulegora joaten nintzen. Lehendakariak esaten zidan zer esan behar nuen.

**Zehatz-mehatz.**

Noski! Mario Fernandez haserretu egiten zen. Bazkari garaian, sailburuok kantuan geundela, jartzen genuen telebista, eta Mario Fernandezek esaten zuen: «*Vamos a ver lo que decidimos ayer*». Izan ere, antza izaten zuen gehienetan, baina ez beti. Izaten zen Garaikoetxearen interpretazioa, Garaikoetxeak pentsatzen zuena. Gainera, nik ez nituen gauza berberak esaten euskaraz eta erdaraz. Beti izaten ziren berriak transferentziei buruz: «*En Madrid hemos tenido debates sobre los temas tal y cual, progreso lento pero vamos progresando...*». Eta euskaraz: «Madrilen, beti bezala, ezer ez». Zergatik? Entzuleak berdinak ez zirelako. Gobernu xelebrea izan zen, baina ona.

Hiru urte baino ez zenituen egin Jaurlaritzan. Ez al zenuen eduki gauza gehiegi erdi eginean utzi izanaren sentsazioa?

Ez. Ni leku askotan izan naiz, baina lan bat bukatzen dudanean, alde egitean, ahaztu egiten zait zer egin nuen han. Interesa galtzen dut. Egin nituen gauzak, bale, fenomeno.

## Donostiako burgesiaren alkatea

Donostiako alkategai izateko utzi zenuen Jaurlaritza, 1983an.

Garai hartan EBBko lehendakari Roman Sudupe zen. Bazkari bat izan genuen Arlabaneko mendatean Romanek, Ardantzak eta neronek. Ardantza zihoan hautagai Diputaziora,

eta ni alkategora. Romanekin egin genituen egin behar ziren konponketak eta, beraz, nik neukan gobernuko lana bukatua. Apirilean alde egin genuen Egotxeagak eta biok gobernutik.

**Donostiako alkatetzarako proposamena egin zizutenean ez zenuen dudarik egin pausoa emateko?**

Ez. Nik nahiago nuen Tolosako alkate izan, baina Donostiako eskaini zidaten. Nire aita Tolosako alkatea izan zen eta nire aitona ere bai. Donostiara etorri nintzen eta han gelditu zen Etxenike nire ordezkoko, hurrengo Jaurlaritzara sortu zen arte.

**Aldearekin irabazi zenituzten hauteskundeak: hamar zinegotzi zuek, zazpi PSEk, sei HBk, bi APk eta bi EEk. Gobernatzeko behar izan zenuen bidelagunik?**

Guk geneukan, nik prestatua gainera, oso programa argia eta zehaztua: Maria Cristina Hotela berritzea, estadioa egitea, kongresuen palazioa sortzea, kultur etxeak zabaltzea. Horiek ziren gure helburu nagusiak. Udaletxeetan ez dago ideologia handirik, ideologia bigarren maila batean bezala geratzen da: zu zara EAJkoa eta bestea ez da, baina kontua da herriaren zer kontzeptu duzun, nolako Donostia nahi duzun. Ni segituan konpondu nintzen bai PPrekin eta bai EErekin, Perikorekin [Ruiz Balerdi]. Bi EE, bi PP, gehi hamar PNV, guztira hamalau. Gehiengo osoa. Kito. Akordioak hartzen genituen nire bulegoan, eta plenoak formalitate bat ziren.

**Alkainek plenoari beldurra omen zien. Zure garaia ere liskartsua zen. Zuk ere sufritu egiten zenuen plenoetan?**

Nik ez. Batere ez. Lehenengo gauza egin nuena izan zen plenoen ordua aldatu. Arratsaldeko zazpietatik goizeko berderatzietara. Askoz ere jende gutxiago joaten zen. Gero, nik

“

Nik nahiago nuen Tolosako alkate izan, baina Donostiako eskaini zidaten. Nire aita Tolosako alkatea izan zen eta nire aitona ere bai

”

arau bat jarri nuen: iskanbila baldin bazegoen, denak kanpora, eta plenoa atea itxita. Bi edo hiru aldiz agindu nuen hori. Jendeak erraz ikasten du.

**Kultura sailburu bezala gogoratzen zaitugu eta gogoratuko zaitugu, batik bat, ETB sortu zenutelako. Donostiako alkate gisa donostiarrek zergatik gogoratzen zaituztela uste duzu?**

Gauza bat esango dizut: ni kalean joaten naizenean eta norbaitekin topo egin, Donostiako alkate ohia esaten didate. Behin ere ez dute aipatzen sailburu izan nintzenik.

**Donostian?**

Ez, leku guztietan. Leku guztietan, alkate ohia. Ez naiz inoiz sailburu ohia izaten. Jendearentzat alkate ohia izateak sailburu ohia izateak baino askoz ere garrantzi handiagoa dauka. Gainera, alkate izan behar duzu gero alkate ohi izan ahal izateko. Alkate ohia mimatu egiten dute Donostian.

**Kultura sailburu aurreneko Jaurlearitzan izan zinen, ezer egin gabe zegoenean. Donostiako alkate, aldiz, Alkainek lau urte egin ondoren.**

Baina Alkainek ez zuen gauza handirik egin ez zeukalako dirurik, eta gauzak ez zirelako oso argi ikusten. Nik herriaren ideia bat nuen. Pentsatzen nuen Donostia zela lehen mailako zerbitzu herria, eta horrek behar zituela azpiegiturak. Nire ideia zen Donostia barrura ekarri behar genituela aberatsak, ez pobreak. Pobreen kupo a bete a daukagu Donostian. Donostiarrek bizi behar dute Donostian eta lan egin behar dute Donostian. Lan egiteko okasioa izan behar dute Donostian. Turismoaren kontzeptua ere berritu egin behar zen. Hotelak zahartuak zeuden. Kongresuen mundua galdua zegoen, ez zegoelako azpiegiturarik. Ez zegoen kultur etxerik. Ez zegoen bibliotekarik, biblioteka zentrala baidarik. Alde batetik, Donostiari bizi berri bat eman, eta, bestetik, donostiarren bizi kalitatea hobetu, horiek ziren helburuak. Donostian kultura asko daude. Ez du zerikusirik par-

te zaharreko betiko biztanleak Altzakoarekin. Kultura mailan. Eta gero, bakoitza dena: ni burges bat naiz, eta Donostiako burgesiaren alkatea nintzen, dudarik gabe.

**Autokritika moduan irakurri dizut hori beste elkarrizketa batean: donostiar guztien alkate izaten ez zenuen asmatu?**

Oso zaila da izatea. Nire familia da parte zaharreko burgesiakoa. Hortik atera naiz. Joaten zara Altzara eta hura beste mundu bat da. Joaten zara Larratxora eta Txirrita bertsoariaren plazako *taska* batean ematen dizute munduko olagarrorik onena. Antigua ere beste mundu bat da. Antiguarrek esaten dute: «Donostiara goaz». Horiek ere badaukate beren nortasuna. Gero, herria asko zabaldu da. Jende berria sartu da. Amara Berri... Hori problema bat da kultura mailan. Aitortu behar da bakoitza izan dena. Aizu, ezin duzu metamorfosia izan bat-batean alkate izendatu zaituztelako. Eta, gainera, ni nintzen tolosarra eta kito.

**Alkate zinela etorri zen EAJren banaketa.**

Akordatzen naiz, askoz lehenago, Etxenikerekin Ercilla Hotelean nengoela, nire gelan ohe gainean eserita, ikusi genuela argi eta garbi desastrera gindoazela ez zirelako konpontzen Garaikoetxea eta Arzalluz. Hori ikusi genuen, izan genuen bisioa bezala: «Hau desastrera zoak, ez dituk konponduko». Gobernuaren hasiera zen hura, oraindik Bilbon egoten ginenean, dena Diputazioan egiten zenean. Gauza askoren ondorioa izan zen. Garaikoetxea zen nafar koskorra.

**Koskorra esaten duzunean zer esan nahi duzu, egoskorra?**

Tolosan esaten da nafar koskorra. Burugogorra. Hor sortu ziren tentsio batzuk hasiera-hasieratik.

Zuk zeuk nola bizi izan zenuen banaketaren prozesua? Garaikoetxearekin egona zinen Jaurlaritzan, ondo konpondu zineten gainera, baina EAJn gelditu zinen, EA sortu zuenean.

“

Ni burges bat naiz,  
eta Donostiako  
burgesiaren  
alkatea nintzen,  
dudarik gabe

”

Garaikoetxearekin ez nintzen bat etorri horretan. Nik esan nuen artikulu batean eta esan nion berari: «Zu ez zaitu aukeratu alderdiak, zu aukeratu zaitu parlamentuak, eta zuk presentatu behar duzu, ez dimisioa, baizik eta konfiantza galdera, parlamentuan. Eta orduan alderdiko legebiltzar-kideek zure aurka, beraien gobernuaren aurka, ematen badute botoa, ba aizu, orduan alde egingo duzu. Baina beste alderdi bat sortu gabe». Konpondu genion hemen Donostian oso pisu ederra, Frantzia Pasealekuan, eta esan genion: «Jar ezazu abokatu bulegoa, eman zure hitzaldiak, egin konferentziak, goraka joan, hegan egin oso altu, eta hemendik hiru edo lau urtera berriro barruan zaude». Baina ez alderdi berri bat sortu, demontre! Horrek ez du zentzurik. Eta alderdi berria sortu zuen. Gure aitak esan zuen: «Ez du zentzurik beste alderdi bat egiteak, hau da, segitzen dugu gauden lekuan». Garaikoetxearekin oso hartu-eman onak izan ditut. Oso lagunak beti. Ez zeukan zentzurik alderdi bat sortzeak batek alde batera jotzen zuelako eta besteak beste aldera. Erotu gara, indarra galduko dugu. Indarra galdu genuen. Niri, udaletxean, hamar zinegotzietatik bost EAra joan zitzaizkidan. Gehiengorik gabe gelditu nintzen. Baina pastela Herri Batasunakoekin egin nuen. Oso ondo gainera.

### Zein zeuden orduan HBko zinegotzi?

Buru Felix Soto zen. Hirigintzan nik beti kontuan hartzen nuen Felix Sotoren iritzia. Oso iritzi garbia zen, oso ondo informatua. Oso lagun onak gara. Egin genuen pastel bat: nik behar nituen 400 edo 500 milioi Maria Cristina Hotela bukatzeko, eta beraiek nahi zuten Antiguaberriko plangintza onartzea. Ados. Denak gelditu ziren harrituak ikusi ziztuztenean HBkoak Maria Cristina berritzearen alde botoa ematen.

EAJn gelditu izana hurrengo hauteskundeetan, 1987an, garesti ordaindu zenuen.

Bi zinegotzi bakarrik!

EAKo Xabier Albistur nagusi eta zure alderdia, EAJ, seigarren indarra izan zen, AP, EE eta denen atzetik.

Bai, bi zinegotzi bakarrik. Dudarik gabe nik galdu nituen hauteskundeak, baina hemen Arzalluzek galdu zituen. *Antiarzalluzismo* izugarria zegoen. Garaikoetxeak zeukan izugarrizko ospea. Alderdiaren inkestek esaten zuten baietz, irabaziko genuela, baina Poto [Fernando] Mujikarenek esaten zuten ezetz. Gurea Ruiz Olabuenagak egin zuen. Arzalluzek galdetu zion: «*Olabuenaga, ¿dónde coño has hecho la encuesta?*».

Zinegotzi izateari utzi egin zenion?

Bai, dimititu egin nuen.

Ordurako Eusko Legebiltzarrean parlamentari zinen, 1986an aukeratua, eta legealdia bukatu arte segitu zenuen.

Bai. Parlamenturako hauteskundeetan, Ardantzari babesa emateko, ni sartu ninduten haren hurrengo Gipuzkoako zerrendan. Eta egin genuen desastrea. Ikusten zen giroa nondik zihoan. Erdiak baino gutxiago atera ginen. Ardantza, Joseba Leizaola, Joseba Arregi eta neroni, lau atera ginen.

Plenoetara-eta joaten zinen Eusko Legebiltzarrera, orduan.

Bai, joaten nintzen, baina gaizki, fabrikari sartua nengoe-lako. Ni 1987ko irailaren 1ean hasi nintzen SAPAn lan egiten. Nik nire neurriak hartuak nituen. 1985ean nik sinatu nuen kontratua SAPA arma fabrikarekin, 1987an han sartzeko. 50 edo 55 urterekin ez zara brometan ibiltzen, familia daukazunean atzean. Udalerako hauteskundeetan zerrendan nire hurrengo Antton Market zen, eta nik alderdiari esan nion: «Ateratzen bada, Market izango da alkate, ni banoa». «Baina aurkeztu zaitez». Bale, aurkeztu nintzen. Eta parlamentari bezala, aguantatu nuen 1990 arte. Ez zen oso interesgarria. Agindu guztiak zetozen zuzen-zuzen EBBtik. Nik bi aldiz eman nuen botoa alderdiaren aurka.

Zertan?

Bat, Desjabetze Legearekin. Ez zitzaidan iruditzen batere egokia, eta kontrako botoa eman nuen. Bestea, ez dakit zer zen, aurkako botoa emateko asmoa nuen, baina nire botoia hondatu egin zen, eta ez zen ateratzen. Abstentzioa.

**Alderdi diziplinatik ateratze horrek sortu zizun arazorik?**

Ez. Nire tesia da alderdiak izendatzen duenean kargu bat, hor sartuko denak bere programa aurkeztu dezala eta alderdiak bere programa onartzen badu, bakea. Utzi hautagaiari bakean lan egiten. Ez duela egin alderdiaren gustuko lana? Hurrengo hauteskundeetan ez zerrendetan sartu. Baina lau urte horietan alderdiaren lata aguantatu? Ezta behin ere. Ez nuen behin ere errezipitu udaletxean ez Gipuzkoako Buru Batzarra ez koordinadora ez halako inor. Alkatea ni naiz, eta, ez banaiz gustukoa, hemen daukazue kargua. Zeren eta, bestela, sortzen da aparatu bat denean sartzen dena, denean agintzen duena, baina erantzukizunik gabe. Alkatearena izaten da erantzukizuna. Lizentziak alkateak sinatzen ditu eta, legearen kontrakoa baldin bada, erantzuna alkateak ematen du, bere patrikatik, ez udalaren patrikatik.

## Aholkulari militar

**1990ean lehen lerroko politikagintza utzi zenuen. Hiru urte lehenago, 1987an, enpresa pribatura itzuli zinen, SAPAra. Zer da SAPA?**

Sociedad Anónima Placencia de las Armas. Arma fabrika bat. Joaquin Aperribai debarrak fabrika hartu zuenean, armez ez zekien ezer eta bazekien nik behintzat zaletasuna baneukala eta, gainera, hartu-eman onak neuzkala militarrekin. Hala nituen, gainera. Ni militarrekin beti ondo konpondu izan naiz.

**Hemen Donostian egon izan diren militarrekin edo Madrilgo buruzagiekin?**

Denetik. Ikusiz *tejerazoa* nolakoa izan zen, uste nuen garrantzitsua zela militarrekin konpontzea, alderdiarentzat eta

eusko abertzaletasunaren kontzeptuarentzat. Militarrak mentalki oso jende simplea dira. Ez dut esaten zentzu negatiboan, baizik eta: bat eta bat bi, kito. Ez daukate zorroztasun intelektual handirik. Konpondu nintzen beraiekin. Sicilia erregimentuko ofizialei afari bat eman nien urtean behin, alkatete izan nintzen bitartean.

**Zein dira Sicilia erregimentukoak?**

Loiolan daudenak. Horrek soinu handia egin zuen beraien artean. Aurreneko urtean kapitain jenerala azaldu zen. Azkenean kontaktuak egiten dituzu. Arma fabrika batean bere balioa dauka telefono zerrenda bat izateak, bai Defentsa Ministerioan eta bai kuartel jeneraletan atek irekita edukitzeak.

**Zein zen zure lana arma fabrikan?**

Sail militarrean aholkulari.

**Zein ziren SAPAren bezeroak zuk lan egin zenuen garaian? Zeini saltzen zenizkioten armak?**

Lehenengoa ejerzito espainola, dudarik gabe. Gero, kanpoko ejerzitoak. Eta askotan, beste enpresak. SAPAk askotan azpikontratatura egiten du lan.

**Armak armada espainolarentzat egite horrek eta tresna hilgarri horiek saltzeak ez dizu sortu arazo ideologikorik edo kezka etikorik?**

Zuk ezagutzen duzu noski Velázquezen *Las lanzas* koa droa. Hor dauden lantzak Bizkaian eginak ziren. Euskal Herrian betidanik fabrikatu ditugu armak. Negozioa egin du gu eta arma sortzaileak izan gara, beti. Aspalditik. Garai modernotan, Soraluzen izan zuten eskaerarik handiena izan zen Carlos III.ak egina: 150.000 moskete. Garai hartarako zen egundoko eskaera. Eta gaur egun, zer esango dizut, *eurofighter* ehiza-hegazkinaren zati bat Bilbon egiten da. Egundoko teknologiarekin. Mundu osoan teknologiarik abantzuatuenak teknologia militarrak dira, beti. Gero sektore zibile-ra pasatzen dira. Ez badaukazu teknologia militarrik, atzean



gelditzen zara. Hori jendeak ez du kontuan hartzen. Beraz, etikoki, historikoki, beti fabrikatu dira armak. Akaso nire etika oso ahula da... Eta gero, nik gazte-gaztetatik sinetsi izan dut gure xantza bakarra zela berriro Eusko Gudarostea sortzea. Nik gudariak ezagutu ditut. Banekien Telesforok nola erosi zituen sei mila fusil Txekoslovakian: sartu zituen Pragan bagoi batean eta joan zen Alemania nazian barrena Hanburgora, han ontziratu eta Bilbora ailegatu zen bere sei mila fusilekin. Gu beste giro batean bizi izan gara. Eta armen negozioa da armen negozioa.

**Noiz arte jarraitu duzu arma fabrikan aholkulari?**

1987an sartu nintzen, eta 80 urte nituela erretiratu nintzen, orain dela hiru urte.

**Zuri irakurria da kondekorazio militarren bat jaso duzula noizbait.**

Bai, eman zidaten [1996. urtean]. *Premio Ejército* izenekoen epaimahaian izan nintzen sei urtez, gudariñoen sailean, eta horregatik. Buletin ofizialean atera zen: *la gran cruz al mérito militar*. Joan nintzen Madrilerara, egin nien diskurtsoa, eta txalotu egin ninduten. Kuartel jeneralean, hierarkia militar osoa han zela. Nik oroitu nien guk Estatuaren beste kontzeptu bat dugula. Pentsatzen dugula Espainia ez dela errealitate bat, ez baldin bada espainien batuketa bat. Eta gero bota nizkien beti botatzen diren loreak. Baina esan nien: «Estatu eredu honekin porrotez porrot joan zarete. Ez du funtzionatzen».

## Abertzaleen batasuna helburu

Politika profesionala aspaldi utzi zenuen, baina politikagintzan jarraitu duzu. Azkenaldian EAJko pertsonalitate heterodoxo gisa agertu izan zara, zure alderdiak sostengatzen ez dituen egitasmoak babesten. Azkena, esate baterako, Independentistak sarea.

Bai. Eta zer?

Zerk eraman zaitu horretara? Kontzienteki bete duzu rol heterodoxo hori?

Bai. EA]koak ez gara ardiak. Bakoitzak dauka bere iritzia. Gero, nire kezka nagusia abertzaleen arteko hartu-emanak tinkotzea izan da beti. Diferentziak daudela? Noski daudela. Baina puntu komunak ere bai. Ezin gara ibili istiluetan gure artean. Hortik ez goaz inora. Nik lagun onak izan ditut alde batean eta bestean. Bai, heterodoxoa, baina alderdiari ere komeni zaio noizean behin heterodoxo batzuk izatea.

“

Nire kezka nagusia abertzaleen arteko hartu-emanak tinkotzea izan da beti

”

Sentitzen duzu alderdiak ez diola arazorik jartzen zu plataforma horietan agertzeari?

Ez dago arazorik Tasiorekin [Erkizia] agertzeko. Tasioren-tzat ere ez. Kolore batekoak edo bestekoak gara, baina helburu berberak ditugu. Abertzaletasunak batzen gaitu. Abertzaletasuna da maitasun bat. Eta ez baldin bada maitasun bat, ez da ezer ez. Alderdiek daukate beren misioa: boterea lortzea. Eta horrek esan nahi du askotan alderdiek ez dutela nazioaren alde lan egiten, baizik eta alderdiaren beraren alde. Gu, beste aldean, nazioaren alde heziak izan ginen.

Azkenaldian abertzaleen arteko elkarlanerako giro hobea sumatu duzu? Zer eboluzio ikusi duzu ikuspegi horretatik?

Ez dut ikusten eboluziorik. Hemen izan da lehen esperientzia Bilduk boterea lortu duenean Gipuzkoan. Hartu-emanak hautsi egin dira. EA]k ez du onartzen Bildu boterean egotea. Onartu egin behar du. Hemen koaliziorik onena Bildu-EA] litzateke, abertzaleen koalizio nazionala. Ezkerrekoak eta eskuinekoak... Gainera, gaur egun ez dago diferentzia handirik. Diferentziak gero eta txikiagoak dira. Hartu Ingalaterra: zer diferentzia dago Blairren eta Cameronen artean? Nire tesia da: estatua ez daukagun bitartean ezin gara alderdi jokotan ibili, herriak ez daukalako babesik. Hemen espainolek irabazten badute hauteskundeetan, gureak egin du.

Denontzat jai. Irunen Aberri egun batean esan nuen: etxea margotu nahi dugu, baina oraindik etxea ez dugu egin. Nire iritzia da gaur egun Euskal Herrian ez daukagula estatu zentzurik, daukagula alderdi zentzua baina estatu zentzurik ez daukagula.

“

Gaur egun Euskal Herrian ez daukagu estatu zentzurik, daukagu alderdi zentzua

”

Orain dela 30 urte ere ez?

Ni gobernuan sartu nintzenean Kultura sailburu eta bozeramaile bezala, protokoloa nolabait nire eskuetan zegoen. Protokoloak beharrezkoak dira. Estatu guztiek daukate protokoloak eta elizek ere bai. Baina Garaikoetxearekin oso zaila zen: ez zuen nahi. Esaten nion: «Zu zara lehendakaria. Existitzen duen Euskal Estatu baten lehendakaria ez zara, baina zara *in mente* dagoen estatu baten lehendakaria». Adolfo Suárez etorri zenean bisita egitera, Martin Ibarrola musikariak egin zuen *Gora ta goraren* harmonizazioa tronpetekin, minoiak galan jarri genituen eta, Suárez etorri zenean, tronpetak: pa-pa-parapa-pa-pa-pa [*Gora ta gora* ereserkiaren doinuan]. Martxa hasi zenean, Suárez jarri zen automatiko, tak! Han daude argazkiak, Suárez tente eta Garaikoetxea *galtza plost*, Tolosan esaten dugun bezala. Sinbolo bat.

Zure ideia izango zen, orduan, ETBko programazioa bukatzen zenean Garaikoetxearen irudiak ematea, ikurrinarekin eta *Gora ta goraren* doinuarekin.

Noski. Aizu, nazio baten sinboloa. Dударik gabe. Ez daukagu estatu zentzurik. Napoleonek esan zuen, eta arrazoi zeukan, instituzioetan sinesteko sistemarik merkeena dela norbaiti txapa bat ematea. Lehenengo proposatu nuen 1936-37ko kanpainaren domina, gudari izan zirenen familiari emateko. Garaikoetxeak esan zuen ezetz. Hurrengoa izan zen: zergatik ez dugu ematen kondekorazio nazionala? Esan zuen ezetz. Baina gero, ni ordurako alkate nintzela, Venezuelara bidaiatzekoa zen Garaikoetxea eta hango protokoloak abisatu zuen lehendakariari emango ziotela *La Or-*

*den del Libertador* edo horrelako zerbait. Eta galdetu zuten Garaikoetxeak zer emango zuen. Deitu ninduen: «*Aquello que decías...*». Egin nuen marrazkia, gurutze gorria, Maria Teresa ordenatik kopiatua, ertzak zilarrezkoak eta erdian Gernikako Arbola orlegia. Eta esaera bat, hirugarren whiskyan aterra zitzaidana: «Beti zutik». Javier Caño zenak egin zuen dekretua gau hartan, hurrengo goizean goiz bidali genuen dena Madrileran Canalejas plazara, horrelako gauzak egiten zizutuzten bitxitegira, eta, Garaikoetxea Venezuelara zihoala, bere idazkari Begoña Azpilikueta txapa jasotzera pasa zen. Venezuelako presidenteari eman zion, baina beste inori ez. Gero, Ramon Rubialen eman zaio, hil ostean. Leizaolari ere bai, hil ostean. Eta gero, nola diren gauzak, Patxi Lopezek eman dio Garaikoetxeari.

#### **Nola bizi duzu ETaren indarkeriarik gabeko garai berri hau?**

EBBkoek ospatu zuten hori txakolina edaten. Goizegi. Oso erraza da Aieten esatea ETAk armak bota behar dituela. Botako ditu. 200 kalashnikov nahi badituzu, emadazu aste bat eta lortuko dizkizut, azkar. Merke, gainera. Armak uztea sinbolo bat da. Horiek nahi dute belauniko jartzea eta pistola bat botatzea. Pistola batekin nahikoa dute. Baina belauniko. Espainiak ez du inoiz bakea bilatu, beti nahi du garaipea. Beti zapaldu. ETakoek keinua egin dute, baina Madrilekoei eta Pariskoei negoziatzeko eskatzen diete gero. Horiek ez dute behin ere negoziatuko! ETA izan da argudio politiko bat, laguntza bat espainolentzat. Horiei ez zaie komeni ETA desagertzea. Eta, bestetik, ez dute negoziatuko ezin dutelako. Hor gelditzen da problema bat. ETAk ezin ditu utzi presoak baztertuta espetxeetan. Eta espainolek bere hautesleei begira ezin dute negoziatu ETarekin. Zertan bukatuko den? Ez dakit.

**Defentsa Saila esaten zenion zure garaian Kultura Sailari, euskararen eta euskal kulturaren defentsa helburu zuelako. Urte asko joan dira geroztik: nola ikusten duzu euskararen eta euskal kulturaren osasuna eta bizi itzaropena, mundu globalizatu honetan?**

Ondo. Bagoaz. Euskarak goraka egin du. Gaur egun problema ez da euskara irakastea baizik eta euskara erabiltzea. Lehengo egunean irakurri nuen *Argian* HABEk pittinka-pittinka bezero gutxiago daukala. Noski! HABEren helburua da desagertzea. HABE egin zen larrialdi momentu batean. Gaur egun, belaunaldi berriak euskaldunak izanik, HABEk gero eta zentzu gutxiago du, eta euskaltegiek ere bai, AEK-koek ere bai. Gure kultura sendotu egin da. Gaur egun ez da desagertzen beste kulturen eskuetan, baizik eta nahasten. Hori ona da. Kultura guztiak aberasten dira beste kultura batzuekin nahastuz, baina bakoitzaren nortasuna galdu gabe. Bagoaz. Ez da ari sortzen Sabino Arana Goirik amestu zuen herria. Beste herri bat ari da sortzen, baina herri euskalduna, gurea.

**Gaur egungo krisi ekonomiko handi honen kontestuan, gure herri honen garapena nola ikusten duzu?**

Gaur egungo Espainiako estatu ereduari amarratua izatea oso garestia da Euskal Herriarentzat. Ezin dugu Estatu horrekin segi. Bi alternatiba daukagu: Euskal Herriaren independentzia edo Andaluziaren independentzia. Nola pasako dugun? Alemaniaren dependentzia handia daukagu, ekonomikoki. Alemania ondo joaten bada, gu ondo joango gara; eta gaizki joaten bada, gu gaizki joango gara. Krisialdia pasa egin beharko da. Pobreagoak aterako garela? Seguru. Baina badauzkagu kemenak eta fedea aurrera ateratzeko. Errealitatea da langabezia askoz txikiagoa dela Euskal Herrian Espainian baino. Horrek konfirmatzen du Euskal Herri independentean pentsatzea ez dela utopia ekonomikoa. Egia da oraindik Gipuzkoako produktioetik %65 edo %70 Espainian saltzen dela. Baina aizu, Sevillan Fagorri erosten segituko dute eta guk Valentziako laranjak erosiko ditugu, eta Seat kotxeak ere bai. Errealitate bezala hori zabaldu behar da: lehenengo pauso bezala, Espainiako Estatuaren krisialdi horretatik atera behar gara. Gero, moldatuko gara Europan.

Zuk ezagutu dituzun hainbat pertsona ezagunen izenak eman-  
go dizkizut, bukatzeko. Esadazu bakoitza zer izan den zuretzat,  
zer ikasi duzun beraiengandik edo zer nabarmenduko zenukeen  
beraiei buruz. Lehenengoa: Antonio Maria Labaien.

Nire aita. Kultur gizona. Kultur gizon euskaltzalea. Piz-  
kunde mugimenduaren bultzagileetako bat. Filosofia bat  
ikasi nuen berarengandik: nire aita ez zen estu-  
tzen, beti trankil ibiltzen zen, patxadako gizo-  
na zen. Beti pentsatzen zuen: gauzak konpon-  
duko dira.

**Doroteo Ziaurritz.**

Ni haren besoetakoa nintzen. Erakutsi zigun  
nazio zentzua, abertzaletasuna. Guretzat oso  
pertsona garrantzitsua zen. Abioian etortzen  
zen batzuetan Donibanera eta Sarara, eta des-  
truktoare ingeles batean beste batzuetan. Horrek  
nolabaiteko aura bat ematen zion. Frontean  
gudariak nola zebiltzan kontatzen zigun. Fami-  
lian idolo bat zen, hil zen arte. Niretzat beti  
izan da eredu bat, abertzaletasunaren arketi-  
poa nolabait.

**Telesforo Monzon.**

Nik aplikatzen nion beti Goetheren definizioa: poeta bat,  
ekintzan. Telesforo, lehenengo, aristokrata zen. Jauntxo bat.  
Etxean zeukan bitrina koxkor bat, eta hor barruan eskularru  
pare bat. Eskularru pare hori gordeta zeukan Maria Cristi-  
na erreginarenekin eskuari musu emateko erabili zuelako. Meri-  
tua izan zuen: gerraurrean ez zekien euskaraz, Altzora joan  
zen euskara ikastera, ikasi zuen, eta gero zer poesia, zer  
obrak. Gero, gudaria zen, sinesten zuen armen indarrean.  
Kohesionatzeko pertsona egokia. Berak sortu zuen Herri  
Batasuna. Herri Batasuna horretan berak abertzale guztiak  
ikusten zituen, baina ez zen horrela atera. Izugarritzko karis-  
ma zuen.

“

Nire aita ez zen  
estutzen, beti  
trankil ibiltzen  
zen, patxadako  
gizona zen.  
Betik pentsatzen  
zuen: gauzak  
konponduko dira

”

**Nikolas Ormaetxea, *Orixe*.**

Talentuko gizona, talentu handiko gizona. Oso gizon tre-bea grekeran, latinean eta gauza horietan guztietan. Poeta. *Euskaldunak* batzuei gustatzen zaie eta besteei ez, baina gaur egun onartzen da egundoko poemak direla. Bere izaera pribatuan oso-oso zaila. Jesuita erretxina. Beti bakardade batean bizi izan zen.

**Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegia*.**

Lagun zaharra. Betikoa. Txillardegia izan da beti otso bakarra. Ez zen taldeko gizona. Zen bakarra. Meritu handikoa. Asko sufritu zuen. Egon zen espetxean, gero beste aldera alde egin zuen, gero Belgikara... Bera alde batetik, ni bestetik, baina beti abertzaleak, eta beti lagunak. Eredu bat.

**Carlos Garaikoetxea.**

Frankismoaren ondoren izan dugun lehendakaririk onena. Dudarik gabe. Ausarta, abertzalea, zenbait gauzatan malgua baina iritzi nazionaletan bereari gogor eusten ziona, amore ematen ez zuena. Gobernuan oso ausarta izan zen. Bazekien Kultura Sailean legetik kanpo egiten genituenak bere problema izango zirela, eta onartu egin zuen arrisku hori. Asko estimatzen dut. Nire buruzagia izan da, baina benetan estimatzen dudan buruzagia. Uste dut izan ditugun beste lehendakariak oso urruti daudela bere mailatik, Ibarretxe barne.

**Xabier Arzalluz.**

Arzalluzen laguna naiz. Alderdiaren aparatuko gizona. Lehen mailako kultur gizona, *tribunoa*. Gaur egun ez daukagu *tribunorik*. Karismatikoa. Gaur egun ez daukagu pertsona karismatikorik. Zeukan karisma, zeukan kultura, zeukan inspirazioa, zeukan formazioa, jesuitek izaten dutena. Pieza bateko gizona zen. Ez zeukan interes ekonomikorik. Diru kontutan benetan gizon garbia. Alderdiari prestigio handia eman zion, sinesgarritasun handia. Hori galdu da eta ez dugu aurkitu beste bat. Ez dugu aurkitu Arzalluz bigarrenik.

**Odon Elorza.**

Botereak aldatu egin du. Hasi zenean mutil gazte bat zen, lepoan zapi gorriarekin, oso errepublikazalea. Hasieran errepublikazale idealista bat zen. Nire garaian, oso negati-boa izan zen oposizioan beti. Beretzat oposizioa egitea zen ezetz esatea, eta ez zuen alternatibarik eskaintzen. Botereak eta urteek pertsona aldatu egin dute. Ez dut uste hogeitun urteetan egitekoak egin zituenik. Egin zituen gauza asko ondo eginak, baina utzi ditu gauza asko egin gabe. Bilbok irabazi du bataila. Donostia gelditu da bigarren maila batean.¶





**ARTEA 103**

Gure ondare berria  
Munduaren ondare  
Berreraiki beharreko ondarea  
Soldaduak nonahi

**HAIZEA BARCENILLA**

**TEKNOZIENTZIA 109**

Laurehun milioi batean!

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**LITERATURA 114**

Mediateka I  
Mediateka II  
Mediateka III

**GOIZALDE LANDABASO**

**SOZIOLINGUISTIKA 120**

Soziolinguistika, hizkuntzalaritza eta matematika  
Eredu soziolinguistikoen berriztatzea

**LIONEL JOLY**

**GLOKALIA 126**

Zelako krisi, halako bizi, ezin gaitzke superbizi!  
Goxo-goxo bizi, arriskuak ametsetan  
Detroit: hiriaren mugak?

**JOSU LARRINAGA**

## Gure ondare berria

Dubaira itsasoz iritsiz gero (edo behintzat ontziek tradizionalki hartzen zuten bideari jarraituz, egungo transatlantikoak ez direlako itsasadarretik sartzen), bidaiariak bi paisaia oso desberdin ikusiko ditu ibaiertzetan. Ezkerrean, 60ko hamarkadako eraikin itsusiak, kaleetan antolatuak egon arren, plangintza oso zehatza jarraitzen ez dutenak. Lau edo bost pisuko eraikuntza sinpleko etxebizitzak, laukizuzenak, leiho txiki xamarrekoak eta terraza moduko teilatuarekin. Azpialdeak dendaz beterik ikusten dira, plastikoa- ren distira eta telefono mugikor merkeen txistua igortzen duten horietakoak. Deira da auzo hori, eta kaleetan barneratuz gero, dendatxoak zoko handi batean bihurtzen dira.

Eskuinean, aldiz, oso desberdina da paisaia. Adobez eta palmera ehunduraz egindako eraikin marroixkak daude alde horretan. Baxuak dira, pisu bakar edo bi pisukoak, eta gainaldean terrazak dituzte. Uraren ondoan luzatzen dira, pasealeku bati jarraituz, eta mahaia euren oinetara zabal- tzen dira, freskagarri edo te bat hartzen ari diren jendez be- teta. Eraikinek burdina forjatuzko leiho-itxierak dituzte, egur ederreko ate zangoak, eta, euren ate irekietatik, patioe- tan dauden fruitu zuhaitzen usaina eta iturrien zurrumu- rrua iristen zaigu. Ondarearen Herria da auzo hori.

Mendebaldeko lurraldeetatik gatozenontzat, lehen begira- dan erraz ezagutu dezakegu Ondarearen Herrian alde zaha- rra, zazpi (edo dagozkion) kaleak edo zonalde historikoa. Lehen begiradan soilik, ordea. Zeren, etxeen ondotik ibil- tzerakoan, laster ikusten dugu ez dutela funtzio argirik: ez dira karabanserai zaharrak, ezta langileen tailer-etxeak, ez- ta tribu bateko agintari baten palazioak. Eta ez dirudite za-

harberrituak, berriak baizik: denborak eta pisuak ez dituzte paretak sabelen modura borobildu, eta lurrean ez dago lekuz kanpoko azulejorik, originala apurtu zelako desberdin bat sartu behar izan den horietakorik; ez dago sukaldeko suaren arrastoa duen gelarik, ezta bidezidor bat moztuz zabaldu den gelarik.

Ez da harritzekoa: Ondarearen Herria azken bost urteetan eraiki da. Emirerriak herrialde nomaden bizilekua izan dira luzaroan, egoitza eraikirik ez zuten kulturenak; gehienez gameluei deskantsu emateko, edo, Dubain gertatzen zen bezala, beste lurraldeetatik zetozen itsasgizonei perlak, datilak eta espeziak saltzeko sortutako eraikin prekarioak zeuden, laster behera zihoazenak berri bat beste nonbait egiteko. Merkataritzak leku gehiago hartu zuenean, eta olioak aurkitu zutenean, hasi ziren portu inguruan gehiago eraikitzen. Horrela sortu zen Deira, 60ko zonalde desantolatu, herrikoi eta bizia. Dubaiko benetako alde zaharra.

Baina Dubai mundu globalizatuan bizi da egun, eta, horretarako, Europako hiri-egituraren eskema eskaini behar dio bere mundu osoko biztanle eta bisitariari. Historia propioak ez dio balio, ez baitu aztarna fisikorik utzi, eta Deiran utzi dituenek ez dute lurralde arabiar baten magiaren prototipoa betetzen. Bisitariak bilatzen duen iraganak espazio fisikoa bete behar du, edertasuna, atsegina eta eguzkipeko freskoa eskaini behar du. Historikoa izatearena gutxienezkoa da: ez da ondarea, ondarearen errepresentazioa baizik. Azken finean, zenbateraino ez daude Alemaniako hiriak berreraikitako ondarez beteak?

## Munduaren ondare

2012ko maiatzetik irailera, Hinrich Sachs artistak *Kami, Khokha, Bert and Ernie (World Heritage)* erakusketa aurkeztu zuen Stockholmeko Tensta Konsthall-en. Ez zuen horrek erakusketa tradizionalen itxura ohikorik, hots, koadroak paretetan, eskulturak lurrean..., batez ere, sartu bezain las-

ter, ikusleak bere tamainako Galleten Munstroarekin topo egiten zuelako aurrez aurre.

Bederatzi urte dira, hain zuzen, Hinrich Sachsek Sesamo Auzoa programaren inguruko ikerketa egiten daramatzanak. Galdera asko sortzen zaizkio produktu kultural horren inguruan. Batetik, hezkuntzarekiko aurkezten dituen balioak daude, zenbait kasutan nahiko iraultzaileak izan daitezkeenak. Adibidez, lurralde bakoitzak pertsonaia propio bat asmatzeko aukera du, bere testuinguruari lotuta; eta horrela agertu zen Kami, Hegoafrika eta Nigeriako lau urteko umezurtz seropositiboa. Edo Khokha, Egiptoko neskatila kurioso, astronauta eta medikua edo edozein lanbide interesgarri izan nahi duena.

Baina irudi positibo horiek emateko, Sesame Workshop produktoreak frankizia bat osatu du, balio kultural zehatz batzuk munduan zehar zabaldu eta pertsonaia zahar zein berrien errepresentazioarengatik egile-eskubideak kobratzen dituen. Beraz, nahiz eta irabazirik gabeko hezkuntzarako elkarte gisa aurkeztu, produktu kultural zehatz bat ekoizten du; eta, horretaz gain, irudi komun bat, ideia eta balio batzuk lotzen ditu produktu horrekin, horiek ere truke komertzialerako elementu bihurtuz. Objektuak beste, subjektu kontsumitzaileak ere sortzen ditu Sesame Workshopek.

Erakusketarako, beraz, Sachsek jabetza-legalismoei kasurik egin gabe, lurralde desberdinetako panpinak elkartzen ditu erakusketa aretoan, lehen bultzadan esperientzia emotibo bat sortuz, eta, bigarrenean, kulturaren komodifikazioari buruzko galderak aurkeztuz. Nola bidaiatzen dute produktu horiek kultura batetik bestera? Nola sortzen dute ondoren produktu bihurtzen den lotura emozionala? Zeintzuk dira sortzen dituzten baloreak, kultural zein ekonomikoak?

Hortik dator ere (*World Heritage*) abizena. Azken finean, objekturen bat Munduko Ondare etiketaren azpian sartzeak ez du soilik bere mantentzea bermatzen: objektu horren irudia eta igortzen dituen balioak material komertzial bihurtzen ditu, irudimen kolektiboaren atala den zerbait

privatizatuz eta arautuz. Eta, izan ere, arrakasta izugarria izan du izendapenak, gaur egun bi hitz horiek lehen eraikin zaharkitu eta problematikoa kontsideratzen zena altxor bihurtzeko balio dutelako, autoritatearen aurarekin, ikusle-goarentzako arautuz zer den ikusgarria (eta erosgarria, postaletan, oroipenetan eta elastikoetan) eta zer ez.

## Berreraiki beharreko ondarea

Garaiko zenbait pentsalarik, Boris Budenek, esaterako, ondarearen ideia arazoak ekarri nahi izan dituzte argira. Ondarearen mistifikazioak identitate itxi eta aurre-eraiki bat sor dezakeela, une batean finkatuz, ematen duen gizartearen historiaren eta irudikapenaren aldaketa edo kritikarentzako esparrurik utzi gabe. Kritika horrek, dena den, bere kritika propioak jaso ditu, esaterako, Françoise Vergèsen hitzetatik. Erraza da, dio Vergèsek, ondare terminoa bera asmatu, historia idazteko aukera izan eta horren arrasto fisikoak mantentzeko erraztasunak izan dituen kontinentetik horrelako hitzak esatea. Baina zer gertatzen da esklaboekin? Zer gudetako biktimekin, zer desplazatutako herrialdeekin, zer kolonizatutako kultura suntsituekin? Zer gertatzen da ezer ez duten, edo dena kendu zaienekin? Zer memoria eraikitzeo aukera izan ez dutenekin? Horiak guztiak orain ari dira lehen aldiz euren kulturaren ondare bat berreskuratzen, orain ari dira identitate bat eraikitzeo aukera lehen aldiz izaten. Eta orain, Europako intelektualek, izaera unibertsal bidegabe bat aplikatuz, ondarearekin bukatzeko ordua dela esaten hasi behar dute?

Ez da erraza historian objektu bezala soilik agertutako taldeentzako gaur egun historia berri bat, *à la occidentale*, osatzea. Askotan ez dago berrirakurria izan daitekeen ondarerik, edo garapenarekin lotutako historiaren ikuspegirik. Eta gehienetan, erraza ez izateaz gain, interesgarria ere ez da, historia eta istorioak, ahozko tradizioak, sinesmen erlijioso eta mistikoak, kontakizunak elkartzen direlako euren mun-

dua eta denbora ikusteko moduan, eta geure historiak eta ondareak arazo larriak dituelako parametro horiek ulertzeko. Izan ere, gizarte horiei historia bat osatzeko aukera kentzerakoan, bere boterea eta bakartasuna ezartzen ari zen mendebaldeko kultura. Orain, aldiz, guk galdu dugun historia berreraikitzeke eta birsortzeko kapazitatea da gizarte horien aberastasun bakarra, eta mendebaldeko inposizioaren aurka aktibatu dezaketena.

Hori dela eta, garrantzitsua litzateke Historiaren Jainkoaren Nagusitasunarekin beharrez, mundua sailkatzeko osatu duen sistemaren iraugitzearen jakitun den gizarte umil gisa begiratuko bagenie beste lekuetako objektu, bizimodu eta istorioak bizirauteko garatzen ari diren saiakerei. Ez mendebaldearen kutsua imitatu eta harri hutsaletan irabazleena memoria grabatzearen jokoari ekin nahi diotenei, identitate propio batetik abiatuz euren desberdintasuna onartzeko arazorik ez duten beste horiei baizik. Urteetan «basati» kontsideratu eta zibilizatu nahi izan ditugun horiek guk baino askoz gehiago jakin dutelako beti.

## Soldaduak nonahi

Eguna iritsi da. Ohe ondoan prest daude amak josi eta lisatu dizkion galtzak eta alkandora; armairuaren ondoan zintzilik dago jaka, bere kordel eta botoi distiratsuekin. Behin eta berriro frogarazi dizkio amak, aitak harrotasunez begiratzen zion bitartean. Botak aurreko egunotan asko ibili ditu, hemendik aurrera egin behar dioten zerbitzuan minik ez emateko.

Ezpata eta pistola beste kontu bat dira. Armairuko tiraderan gordeak ditu, arreba txikiak har ez ditzan, armak ez direlako sekula neskentzako kontua izan. Arriskua hor dago, hor leherketak, hor mina eta heriotza. Odola. Gizonen kontuak.

Egungo sentiarekin esnatu da, eguzkiaren lehen izpiak aurpegian. Gaur da egun handia, azkenean. Beldur apur bat beldur, beldur eszenikoa. Azken finean, asko dira bere egink-

zunari begira egongo direnak. Horren itxaropenetan dau-  
denak. Garaipena, baina baita porrotaren aukera ere. Dan-  
borren soinuak entzuten ditu jada, belarrietatik sartu eta bur-  
muinarekin talka egiten diote, fisikoki ia. Ez du hildakoen-  
gan pentsatu nahi, ez gaur. Ez galdutako hanketan, ezta bor-  
txatutako emakumeengan, zaldiek nahi gabe harrapatutako  
ume txikituengan, katuen modura zanpatuak bidezidorre-  
tan. Ezta dotorea izan zen hiri horretatik igotzen zen kean,  
begiak mintzen zituen sutik igorrita zuzenean. Gaur ez du  
horretan pentsatu nahi.

Garbitu eta janzen da, egunean zehar gutxika aztoratuta  
sentituz, gero eta beroago barnetik. Inkorporatzeko momen-  
tuaren zain. Amak kapera ezartzen dio eta familia osoak  
atzera egiten du, estanpaz gozatzeko. Ederra! Sasoi-sasoian!  
Gazte eta lirain, harro eta arriskutsu. Prest dago.

Goazen danborradara!¶

## Laurehun milioi batean!

Maiatzaren 11 dugu, larunbata, lerro hauek idazten hasi naizenean. Gaur jakin denez, gizakion historian lehen aldiz atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioak 400 ppm-ko atalasea gainditu du (alegia, milioi bat molekula aireko 400 molekula CO<sub>2</sub> daude). Atzera, oso gibelera, joan behar dugu Lurrean horrelako kontzentrazioa ezagutzeko; 3 eta 5 milioi urte bitartean. Klima epelagoa izan zen orduan.

Hawaiiko Mauna Loa sumendiko neurgailuek bildu dute datua. Toki horretan 1958az geroztik neurtzen dihardute CO<sub>2</sub> kontzentrazioa. Urte hartan 315 ppm-koa izan zen neurketa. Beraz 55 urteren buruan %27 emendatu da kontzentrazioa. Marka da!

Berri hori aldaketa klimatikoaz eskribitzera bultzatzeko nahikoa arrazoi izan zitekeen. Alabaina, lehenagotik hartua neukan deliberoa. Izan ere, udaberriaren hastapenean leittutako *The Carbon Crunch* izeneko liburuak aldaketa klimatikoaz edo, hobe esan, aldaketa klimatikoari aurre egiteko estrategiaz gogoeta egiteko parada eman dit. Dieter Helm Oxfordeko Unibertsitateko energia-politikako katedradunak idatzitako liburuak azpтитulu oso adierazgarria du: 'aldaketa klimatikoa nola gaizki kudeatzen ari garen eta nola konpon genezakeen'.

Helm ez da negazionista. Serio demonio hartzen du aldaketa klimatikoaren auzia. Ez du dudarik gertatzen ari dela eta ondorio adierazgarriak izango dituela gizakion bizimoduan. Are gehiago, neurriak oraintxe bertan hartu behar dira dio, erabakiaren atzeratzeak arazoa larriagotu baino ez duela egingo. Etengabe ari da atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioa emendatzen eta ez dirudi geldialdirik izango duenik



epe motzean. Horrek Lurraren batez besteko tenperaturaren igoera uste baino handiagoa izatea ekarriko du. Hortaz, eredu klimatikoek diseinatutako etorkizuneko eszenatokia are larriagoa izan daiteke.

Zertan du Helmek kezka? Aldaketa klimatikoari aurre egi-teko, bereziki atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioa gutxiagotzeko, eramaten ari den estrategia okerra dela dio, eta auzia bideratu baino okertzen ari dela.

Oso kritiko agertzen da egungo estrategiak karbono isurketak gutxiagotzeko jorratzen diharduen oinarriekiko. Hiru hauek dira bere irudiz oinarri oker horiek: Kyotoko protokoloaren bidea, egungo energia berriztagarriak (haize- eta eguzki-energia) eta energia-aurrezpena direla irtenbidearen funtsa eta energia fosilak laster bukatuko direla.

Kyotoko protokoloa eta horren inguruan eraikitako egiturak ahulak direla eta borondatean eta asmo onetan oinarritzen direla dio, eta eraginkortasunik ez dutela gaineratzen du. Hain zuzen ere, azpimarratzen du Kyotoko protokoloaren muina Europako estatuak direla, eta kanpoan gelditu direla karbono-isurle nagusiak, hala nola Txina edo AEBak. Kyotoko protokoloak karbono-isurketak mugatzea du helburua, eta Helmek azpimarratzen du Europa Kyotoko helburuak betetzen ari dela aise. Alabaina, arrazoi nagusia ez da inplementatutako politiken eraginkortasuna, atzen hamarkadetan Europak pairatu duen desindustrializazio-prozesu azkarra baizik. Energia-eskari handiak dituzten industriak Europatik kanpo produzitzen ari dira egun, eta, ondorioz, karbono-emisioak nabarmen gutxiagotzea ekarri du fenomeno horrek. Aldi berean, Europatik kanpo karbono-emisioak oso azkar emendatzen ari dira, bereziki Txina eta India moduko estatuetan, non ekonomia oso azkar hazten ari baita.

Egoera horren aurrean, Helmek azpimarratzen du, herri batek isurtzen duen karbonoaren benetako tamaina emateko, bertako produkzioak isuritakoa neurtzeak ez duela ematen benetako neurria. Izan ere, neurri horrek ez ditu kon-

tuan hartzen atzerrian produzitu eta bertan kontsumitzen diren produktuak, eta horiek gero eta gehiago dira globalizazioaren eta Europaren desindustrializazioaren ondorioz. Hortaz, herri baten benetako emisioen neurriak kontsumitutako karbonoak emango du, ez produzitutakoak. Ondorioz, europarrok tranpa egiten ari gara gure emisioak murriztu ditugula diogunean, ahazten ditugulako Txinan, Indian eta enparauetan egin eta gero kontsumitzen ditugun produktuak. Horietatik ia denak Europako poluzio- eta emisio-estandarrak betetzen ez dituzten baldintzetan produzitzen dira. Hortaz, gure karbono-aztarna handitzen ari ei da, besteak beste, fabrikek behar duten energia elektrikoa erregai zikinagoen bidez lortzen delako European baino, ikatzaren bidez, adibidez. Ikatzak gas naturalak baino bi bider gehiago CO<sub>2</sub> ekoizten du kilowatteko.

Kyotoren testuinguruan zorrotz kritikutzen du karbono emisioen salerosketa. Hauxe dio Europako Batasunaren emisio-salerosketen sistemaz: «Akats serioak dauzka, epe laburrekoa eta ezegonkorra da eta prezioa horren txikia da ezen inpakturik apenas duen». Arazo horri buruz artikulu jakin-garria idatzi du Gotzon Herminosillak maiatzaren 12ko *Berriako* «Igandea» gehigarrian.

Egungo energia berriztagarriek, haizearenak eta eguzkia-  
renak, eta energia-aurrezpenak karbono-emisioen murrizketan eraginik ez dutela izango dio. Kostu handia eta energia-iturriaren intermitentzia aipatzen ditu egungo energia berriztagarrien ahuldade moduan. Alderdi berdeak eta erakunde ekologistak oker ari direla seinalatzen du diotenean energia berriztagarri horien kostuak gutxiagotuko direla eta energia fosilena berdinduko dutela, baieztapen horren oinarrian dagoelako energia fosilak oso mugatuak direla eta laster agortuko direla. Atzen baieztapen hori okerra dela dio: mendeetarako ikatz-erreserbak daude, eta, gas- eta petrolio-hobi konbentzionalak mugatuagoak badira ere, iturri ez-konbentzionalak, eskisto-gasa etsenplurako, oso oparoak omen dira. Adibide bat ipintzen du: AEBak Ekialde Hurbi-

leko herrietako petrolioarekiko eta gasarekiko duen menpekotasuna apurtzen hasi da eskisto-gasa haustura hidraulikoz, frackingez, ustiatzen hasi denez geroztik.

Nuklearra ere ez du jartzen emisioak murrizteko aukeren artean. Alabaina, apuntatu egiten du Alemaniako gobernuak zentral nuklearrak ixteko hartu duen erabakiak karbono-emisioak emenda ditzakeela ordezeko moduan ikatza erretea aukeratzen bada.

Zein bide jorratu beharko litzakeela uste du Helmek? Argi azaltzen du problema horren larria dela, berehalako neurri eraginkorrak hartu behar direla. Neurriak ezin dira berandutu. Edozein mugimendu egiteko, produzitutako karbonoaren ordezkotzat kontsumitutakoa hartu behar dela neurri moduan dio. Karbono-isuriak zerga-politika egoki baten bidez zigortu egin behar direla dio. Bestetik, gas naturala jartzen du trantsizioko egoera baten oinarri moduan; izan ere, gas naturalak gainerako energia fosilek baino karbono gutxiago isurtzen du kilowatteko. Hori horrela izango litzateke etorkizuneko energia berriztagarriak etorri bitartean. Egungo energia berriztagarrietan egiten den I+Gko inbertsioa ez litzateke egin beharko, eta bideratu beharko litzateke etorkizuneko berriztagarrietan ikertzera. Hauxe dio hitz:

Egungo haize- eta eguzki-teknologietan kontzentratu ordezkotzat gasean kontzentratuta aurrezten diren baliabideek erabilgarritasun handiagoa izango dute zentratzen badira epe luzeko klima-aldaketaren erronkan. Egun ditugun teknologiek ezin dute arazoa konpondu. Alabaina, berri onak badaude: teknologia berrien ahalmena izugarria da. Epe motzeko aukeren artean, baterietatik, informazio teknologien aplikazioetatik eta auto elektrikoetatik fotosintesi artifizialaren moduko aurrerabideetara aipa ditzakegu; energia-erronken aurrean ikerketaren mundua bizirik dago.

Halaber, horren guztiaren ondoan azpimarratzen du gure egungo bizimodu jasanezinaren maila gutxiagotu beharko dugula, baldin eta aldaketa klimatikoa mendean hartu nahi badugu.

Ez daukat daturik eta jakinduria nahikorik juzgatzeko Helmek zein punturaino duen arrazoia. Hala ere, eskribitukoaren zati handi bati zentzu komunaren usaina dariola uste dut. Azken urteotan mundu mailako klimari buruzko goi-bilera horietan gertatutakoa ikusita, antzerkitik asko eta benetako borondatek gutxi dutela iruditu izan zait. Interes gehiegi daude jokoan erabaki eraginkorrak hartu ahal izateko. Europarrok eta, apika, gure kontzientzia berdea ere, autokonplazentzian ez ote garen jausi irizten diot. Hortaz, Helmek Europako emisioen gutxiagotzea desindustrializazioaren testuinguruan ipintzen duenean, bete-betea asma-tu duela uste dut. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko, lehen munduko gizarte aurreratu honetan bizi garenok egun dugun bizi-mailari uko egin beharko diogula azpimarratzean ere zuzen dabil.

Alabaina, egungo ereduari planteatzen dion alternatibak ez nau asebetetzen. Onar dezaket gasa izan daitekeela trantsiziorako energia-iturria, baina ez dut ikusten hortik harago zein iturri alternatibo indartsu jartzen dituen mahaia-aren gainean. Era berean, energia fosilen iturri ez-konbentzionalek sortzen dituzten ingurugiro-arazoen gainetik oso arin pasatzen dela deritzot. Halaber, Artikoko eta antzeko bazterretako erreserbak ustiatzea proposatzen duenean, ingurugiro-inpaktutik harago, Lurraren atzen txoko birjinak ustiatzearen kezka etikoa sortzen dit. Halaber, berriki *Scientific American* aldizkarian leitu dudanez, eskisto bitumino-soetatik petrolioia erauzteak energia-balantze negatiboa ei du, hots, horiek ustiatzeko inbertitu behar den energia ematen duten energia baino handiagoa da. Helmen planteamenduaren atalik ahulena alternatiben planteamenduan da-goela uste dut.

Dena den, liburua leitzea gomendatzen dut, eta norberak atera ditzala irakurketatik lezioak.¶

## Mediateka I

Bada Bilbon uharte bat. *Uharte sekretua* hitza erabiliko nuke hura azaltzerakoan, hain sekretua ez balitz. Edozelan ere, seguruen askok ezagutzen ez duen hitzezko irla da. Hiriaren erdiguneetako batean dagoen eraikin esanguratsuan, Alhondigan, kokatu zuten adreiluzko kutxa bat da. Zapata kutxak armairuetan sartzen diren legez (edo apal batean gurago baduzu) Philippe Starckek bertara sartu zuela dirudi. Hamaika begiko kutxak zazpi altxor ezkututzen ditu. Zazpi esan ditut hamaika ez esatearren. Leihoetan gizon-emakumeak ageri dira noizean behin. Ki-kuka. Ikusi eta pentsatu: ez dakit kutxa berezi horren tentazio elementuak ez ote diren. «Erdu, erdu geurera eta edozein hitzezko mundu eskainiko dizugu». Tentaziora. Hiru pisuko adreiluzko kutxak bazter batean du sarbidea. Eskailerak gora eta, hara, zubia! Esan ez dut bada uhartea dela? Orain berretsi egiten dut.

Euskal Herriko mediatekarik handiena da. 4.000 metro karratu ditu. 900 mailegu eta 2.000 erabiltzaile eguneko. Hemen irakurri egiten da. Mediatekak ez du atsedeen egunik. Urte berri egunean mundutik ihes egiteko Mediatekara joatea erabakiko bazenu, zabalik aurkituko zenuke; agian hutsik, baina zabalik. Zubi hasieran, Mediatekaren antolakuntza azaltzen duen kolore-arbel handia dago. Alor bakoi-tzak bere kolorea du, eta hormetan eta liburuetan adierazita dago bilaketa errazagoa izan dadin. Komikiak, literatura, Txikiland aretoa, saiakera, ikerketa, zinema... denak du bere kolorea. Marrazkitxoia ere badu. Abentura, itsasontzi pirata da; zientzia-fikzioa, espazio-ontzi bat; hegazkin batek adierazten du bidaia; eta eleberri erotikoak ezpain batzuk daramatza. Erromantikoak, berriz, bihotza. Bilaketa erraz-

teko bideak dira Mediatekak proposatzen dituenak. Aitortu behar dut koloreak begiratu nituela baina ez niela jaramon handirik egin. Ni galtzearen aldeko naiz. Azken beltzean, galtzeak beti aurkikuntza ederragoak ematen ditu, ustekabe auskalokoak, eta galtzearen sentsazioa, batzuetan, ordainezina da. Zubia igaro eta uhartean zaude. Gauza bi izan ziren kolpean jaso nituenak. Batetik, usaina. Ez du usainik. Bestetik, aldiz, isiltasun adostua. Berba gutxi egiten da, eta egiten denean, ahopekoa da. Pentsatu nuen konploterako leku ezin hobea izan zitekeela Mediateka. Hirugarren gauza batez ere jabetu nintzen: denbora beharko nuela hori dena ikusteko edo, nahiago baduzu, dastatzeko. Hiru pisu ditu, apal gehiegi, liburu gehiegi... Zaila da uhartea nondik hasi erabakitzea. Nik goitik beherakoa egin nuen.

## Mediateka II

Baditu espazio horrek txoko atseginak. Irakurketara bideratutakoak, talde-lana ahalbidetzeko guneak, edo bakarkako lanetan aritzekoak. Gortinarena egiten duten tirak zintzilik daude, espazio intimo bat gauzatuz. Barruan, eserlekuak, sofa itxuradunak. Denak beterik. Denak irakurtzen; egunkariak eta liburuak. Zerbait libre geratuko zen itxaropena ahituz joan zenean, B planari ekin nion: hirugarren pisua zeharkatzeari, hain zuzen ere. Solairu hori literaturaren txokoa da. Metro eskas izango duten apal amaigabeetan liburuak eta liburuak eta liburuak daude. Liburuek neurri ezberdineko ilarak egiten dituzte. Desorekatutako bideak. Estuak eta laburrak elkarrekin daude, txikia eta potoloa ere bai. Mendikate ezinezkoak osotzen dituzte. Baina bada nolabaiteko antolamendurik: marra horia duten liburuak alemanez idatzita daude; berdez daudenak, arabieraz; frantsezkoak fuksia dira, urdinak ingelesezkoak, laranja dute kolorea italieraz idatzitakoek. Euskaraz eta espainieraz idatzita daudenek ez dute kolorerik, ez marrarik. Txokolatzeko etxetxoaren aurrean Hansel eta Greteli jazotakoa gertatu zi-

tzaidan neuri: nondik hasi? Hurbilen nuen tokitik hasi nuen araketa. *La pista de hielo* (Izotz-pista) eta *Los sinsabores verdaderos* (Benetako atsekabeak) Roberto Bolañorenak izan ziren aurkitu nituen lehenengo liburuak. Heinrich Böllen *Pailazo baten aburuak* eta *Opiniones de un payaso* elkarrekin zeuden. Begirada arina bota nien, eta bilatzen jarraitu nuen. Paul Austerren *Smoke & the blue in the face* ikustera koan gogoratu nintzen Harvey Keitel gustatu zitzaidala film hartan, *Smoke* aspaldikoan. Onartu behar dut zelanbaiteko mozkorraldia eman diezazukeela hainbeste libururen aurrean egoteak. Ez dakizu zer aukeratu, non pausatu begirada, zeri eman atentzioa. Hori arazo izan liteke, bai. Leila Aboulelaren *La traductora* (Itzultzailea) lana hartu nuen esku artera. Lengua de Trapo argitaletxearen liburuak beti hartzen ditut esku artera. Zergatia ere badakit. Oso aspaldi dela gozamen itzela eman zidan liburua irakurri nuen argitaletxe horri esker. Eta, harrezkero, esku artera hartu ohi ditut bere liburuak, gozamen berbera emango didan liburuaren zain (zenbaitek eman didate gozamina, ez hasierako hark bezala, tamalez). J.R. Ackerleyren *Mi perra Tulip* (Tulip nire txakurremea) eta Laura Freixasen *Ladrona de rosas* (Larrosa lapurra) lanetan eman nituen minutuak; *Guero* aurkitu nuen arte. Eskuko liburua zen, azal gogorrekoa, hauts bakoa. Une horretan liburu-apal artean dagoen espazio ederreko sofa bat hutsik ikusi nuen eta hantxe hasi nintzen Axularren lana irakurtzen: «Gomendiozco carta. Bena. Guerotic guerora ibili naiz, eta hala dabillanari, guerthatcen ohi çaicana, egun çait niri ere». Axularrekin tartea egin nuen. Liburua bere txokora itzuli nuen arte. Hori ere egin dezakezulako. Maileguan hartu barik, alegia, etxera eraman barik, hantxe hartu liburua eta nahi beste denbora eman hango tokiren batean. Uhartean.

Beste apal batera joan nintzen eta *Sobre el dolor* (Minaren gainean) hartu nuen, Ernst Jünger idazlearen lana izan nuen esku artean. Saiakera bat. Eta ostean Alejandro Casonaren *Prohibido suicidarse en primavera* (Udaberrian suizidatzea

debekatua) aurkitu nuen. Bai, eskua Darth Vaderren aldera joan zitzaidan... Tira, edo Luke Skywalkerrenera? Erljio eta mitologiaren sailera ailegatu nintzen. Mitologia klasikodun hiztegi, saiakera eta azalpen luze bezain potoloak daude hortxe. Geldi ninteeen, eta beharbada beste uneren batean egingo nukeen. Baina uler nazazu, irakurle estimatua, han milaka liburu zegoen, eta pentsatu nuen ezin irentsiko nituzkeela denak. Jauzika nihoan. Roman Garmendiaren *Gurre jakintzaren mugak* aurkitu nuen. «Zer dakit nik?» sailekoa. Eta oroimenak ihes egin zidan sail horretako beste libururen bat neure oroimenean aurkitu guran. Ez nuen, baina, aurkitu.

Bigarren pisura jaitsi eta bertan isiltasunak beste soinurik bazuela jabetu nintzen. Hemen musika dago, zinema, komikiak, ordenagailu sorta handia eta mahai luzeak gazteek okupatuak. Filmak mailegu gisa har litezke, bideokluba babilitz. Neska bat hiru film eramaten ikusi nuen. Ez iezadazu galdetu zein titulu ziren, ez nintzen horrekin geratu. Binilo zenbait ikusi nuen, eta arte liburuak. Hemen bai. Hemen atsedenditxoa egin nuen. Arte liburuak izugarri gustatzen zaizkit (tira, batzuk gustatzen zaizkit, gustatzen zaizkidanak, hain zuzen ere). Ikusi nituen liburu potoloenak Andy Warhol eta Leonardo da Vincirenak izan ziren. Metro bateko luzeradun liburuak ziren, mila orrialde bai izango zuten. Pisutsuak ere baziren; kilo bat arte, pentsatu nuen neure kolkorako. Neure begiek, ordea, besterik aurkitu nahi zuten. Jende askoren artean norbaiten xerka ari zarenean bezalaxe: Wassily Kandinsky, Georges Braque eta Egon Schieleren (Bilbon egon zen erakusketa ezin ahazturik) bila ari nintzen. Ez ziren agertu (edo ez nuen aurkitzen asmatu... denbora falta, jakina). Mediatekak frustrazioak eman diezazkizukeela konturatu nintzen. Frank Cappa eta Robert Doisneau, Pablo Ruiz Picasso, Paul Cézanne, Caravaggio eta Vincent Van Gogh aurkitu nituen bista-bistara. Argazkigintza eta publizitatearen gaineko liburu mordoska. Diseinua eta arkitektura. *Mujeres y arte* (Emakumeak eta artea) ize-



neko bat. Henri Matisse ikusi ostean Paul Kleeren liburu bat hartu eta urrunean ikusi nituen leihoetara jo nuen. Uharteak dituen leihoak beterik zeuden. Beste pentsamendu bat... irakurle exhibizionistak ote gara?

Bazterreko leihoan gizon bat arabiar grafiadun liburu bat irakurtzen ari zen. Alboko leihoan neska bi xuxurlaka zeuden. «Nik bai, baina berak ni ez», eta eskuetan zuen komikian murgildu zen beharbada norbait atzean zuela jabetuta. Bere alboan zegoenak gauza bera egin zuen eskuetan zuen komikiarekin. Nik, noski, alde egin nuen. Leiho guztiak beterik, egongela goxo bateko bazterra izan zitekeenera joan nintzen. Espazio bakoitzak bere argizatzea dauka. Oinezko lanpara batek ematen zuen argia txoko gozo honetan. Eta hantxe eman nituen auskalo zenbat minutu (agian ordu) Paul Kleeren lanak gozaten.

### Mediateka III

Paul Klee eta artea bazter utzi eta komikigintzan murgildu nintzen. Milaka eta milaka ditu Mediatekak. Superheroi denak daudela esango nuke. Superman, Batman, Spiderman, Hulk, Lau fantastikoak... Marvelek agertutako super izaki guztiak daude apalik apal. Asterix eta Obelix batzuk, Mafaldaren ibilera guztiak batzen dituen liburutzarra edota mangadun asko eta asko. Eleberri grafikoak deitu diren istorio marrazturiko liburuak. Mezzo & Pirusen *Negro oscuro* (Beltz iluna), Guy Delisleren batzuk. Allan Moore eta Eddie Campbellen *From Hell* (Infernutik) topatu nuen. Komikia; iluna eta likitsa, baina berezia. Jack destripatzaileak ez nau bereziki erakartzen, baina apal batean zutunik, orriak irakurtzen hasi nintzen.

Bigarrenetik behera. Lehenengo pisuak duen bereziena Txikiland aretoa da. Tira, norbaitek ukatu egingo dit, baina ez dut nik eztabaidarik hauspotuko. Irudipen erabat pertsonala da. Txikiland. Izenak adierazten duen gisa, txikiak nagusi dira. Mediatekako zatirik zaratatsuena izaki, ez du eze-

lango eragozpenik ezartzen Mediatekaren harmonian. Mahai txikiak ipinita dituzte gaztetxoek marraztu edo irakur dezaten, eta ez da bestelako eserlekurik. Hemen behearen gainean jesartzea baimenduta dago. Liburu bat hartu, bazter bat aurkitu, eta zoruaren gainean irakurketak murgilduta aurkituko duzu gazte asko. Gaztetxoek, helduren batekin. Nagusiagoak, ordea, bakarrik. Zenbait hizkuntzatan irakur dezakezu denetarik. Joan nintzenez ez zegoen jende askorik, eta, egia esan, pena eman zidan. Agian, ordu kontua izan zen. Lehenengo solairu horretan ere egunkariak irakurketa oso ohikoa da. Bertora datozenek patxada ederrean irakurtzen dituzte egunkariak atondutako txokoetan. Eta gero beste leiho batzuk: telebistak. Euskal Herritik kanpoko telebistak ikusteko abagunea eskaintzen dute. Hemen ere gune berezitua dago. Gortina antzekoek banatzen zaituzte, eta, oximorona izan badaiteke ere, begi aurreko intimitatean egon zaitezke. Azken gomendioa Mediatekara zatozenerako: sartu baino lehen denbora zubiaren beste aldean utz ezazu.¶

## Soziolinguistika, hizkuntzalaritza eta matematika

Garai aproposenetarikoa ikerketa teoriko-metodologiko-rako negua izaten da. Udaberrian eta udan ikerketa aplikatua eta kanpo ikerketa egitea atseginagoa izaten da: eguraldi onarekin kalera irten eta nahi den ikerketa, gure kasuan soziolinguistikoa, egin. Negua, eguraldi hotz eta bustiarekin, tximiniaren ondoan jarri eta bibliografiari astindu on bat emateko aproposagoa izaten da: interesatzen zaigun gaiaren inguruan argitaratu diren azken lanak irakurri eta ondoren hausnarketa teoriko-metodologikoak egin... Aurretan dagoen eguraldiarekin, badirudi irakurketarako eta hausnarketarako neguan izaten dugun tartea luzatzen ari zaigula. Ea kanpo ikerketetarako tartetxoa laster irekitzen zaigun, bitartean hausnarketarako tartetaz disfrutatzen jarraitu beharko dugu. Azken asteetan dagoen eguraldi petrala ikusita, soziolinguistikak hain ohikoak ez dituen eremuetara hurbiltzeko garai ezin egokiagoa dugula dirudi.

*International Journal of the Sociology of Language* aldizkariaren 2013ko aurreneko zenbakiak horretarako aukera ezin aproposagoa ematen digu: zenbakia hizkuntzaren soziologiara aplikatutako eredu matematikoei eskainita dago. Gizarte zientzietatik gertuagokoak sentitzen garenok beti ere beldur pixka batekin ikusten ditugu zientzia gogorren aipamenak. Gizartean horrelako aurreiritzia zabaldua dago behintzat: alde batetik «zientzietako pertsonak» daudela esan ohi da, eta bestetik «letretakoak»... Bide batez, gizartean zabaldua dagoen mito horrek zalantza bat sortzen du: ba al dago letretakoa izan eta zientzialaria izaterik? Gainera, azken urteetan zientzia gogorren eta gizarte zientzien arteko

elkar emanak handituz joan dira. Soziolinguistikaren alorrean, biologiatik eta bereziki ekologiatik edan izan da, hainbat eredu teoriko sortzeko eta nazioarteko aniztasun linguistikoa nola babestu daitekeen pentsatzeko. Informatika eta matematika ere asko erabiltzen ari dira azken urteetan: adibidez, hitzez eta esaldiz osatutako corpusetan azterketa kuantitatiboak egiteko, maiztasunak kalkulatzeko... Eredu matematikoak asko erabili izan dira ere korrelazioak kalkulatzeko, aldagaien arteko lotura zein den kalkulatzeko... Euskal Herrian ausartak izan diren Txillardegiren eta Xabier Isasiren soziolinguistika matematikoa ere badugu. Eredu horiek guztiek, normalean, hizkuntzalarien edota soziolinguisten ikerketen ikuspuntuak izan dituzte abiapuntu, eta haien helburua lanen oinarri zientifikoak sendotzea izan da. Badirudi matematikak seriotasun eta babes bat ematen diola hizkuntzalariari. Orokorrean, matematikarekiko interesak hizkuntzalaritzatik matematiketarako norabidea izan du kasu horietan.

XXI. mendearen hasiera honetan, interesaren norabidea alderantzizkoa ere izaten ari da. Gero eta gehiago dira hizkuntzara hurbildu diren zientzia gogorrak. Hizkuntzen deskribapenak orain arte nagusiki hizkuntzalariak egin badiutuzte, edo soziolinguistek egoera soziolinguistikoak, orain beste zientzia eremu batzuk ari dira hizkuntzei buruzko deskribapenak eta azalpenak proposatzen. Hizkuntzekiko eta gizarte hizkuntzek duten funtzionamendurekiko interesa ez da berria hizkuntzalaritzatik at. Antropologiak, etnologiak, psikologiak, historiak... ekarpen handiak egin izan dituzte. Zientzia horiek guztiak, aldiz, gizarte zientziak dira. Orain dela gutxi arte ekarpenak askoz txikiagoak izan dira matematiketatik, fisikatik, biologiatik, medikuntzatik eta zientzia gogorretatik orokorrean. Azken urteetan aldaketa bat gertatzen ari da, eta hizkuntzekiko interesa pizten ari da zientzia arlo horietan ere. Ekologiatik eta neurozientzietatik ekarpen handiak eta oso interesgarriak egiten ari dira. Ikerketa horiek nahiko ezagunak dira gure artean: ekologiatik

hizkuntzen aniztasuna babestuko duen eredu bat bilatzen da, neurozientzietatik hizkuntzen funtzionamendua eta kokapena burmuinean, hizkuntzen ikaste prozesuaren funtzionamendua, afasiaren eta beste desordena linguistikoen azterketa... Ikerketa horietatik aparte, hizkuntzei buruzko ikuspuntu berria ematen ari dira zientzia gogorrak, *Science*, *Nature*, *Physica A* nazioarteko aldizkarietan. Hori berrikuntza oso interesgarria da, eta aberastasun handia ekar diezaike hizkuntzari buruzko ikerketari. Erronka handia ere bada; betiko hizkuntzalaritzaren ikerketa-kultura eta -ohitura fisika, biologia edota matematikaren kultura zientifikoekin ezkontzea ez da automatikoa izango, eta buruhausteak ekarriko ditu.

Hizkuntzalaritzaren eta zientzia gogorren batuketan biologiari gene batzuk hizkuntzaren gaitasunarekin lotzen bada, esate baterako, agian matematikak ematen ditu adibide gehiago. Matematikariak hizkuntzaren inguruko hainbat eredu sortu dituzte, bereziki hiru lan lerrotan. Hasteko, hizkuntzen arteko lehiari buruzko ereduak ditugu, hori izango litzateke aurreneko lerroa; bigarren lerroa hizkuntzen arteko ahaidetasuna kalkulatzeko ereduak osatzen dute; bukatzeko, hizkuntzen eboluzio dinamikoari buruzko ereduak ditugu.

Hizkuntzaren soziologiaren ikuspuntutik, hizkuntzen arteko lehiari buruzko eredu matematikoei berebiziko interesa dute. Hizkuntzek irauteko duten ahalmena da askotan eredu matematikoei kalkulatu nahi dutena. Ereduak aldagai ezberdinen inguruan sortu dira: lehiari dauden hizkuntzen prestigioa eta hiztunen dentsitatea, geografiaren garritasuna, bilakaera demografikoa, gizartearen estruktura edota hizkuntza aniztasuna iraunarazteko ahalmena. Matematikaren bigarren lan lerroa hizkuntzalaritzarekin lotu daiteke; izan ere, ikerketa horietan hizkuntza familien banantzea kalkulatu nahi da. Azterketa batzuetan, adibidez, hizkuntzen arteko ezberdintasun lexikoak kalkulatu dira. Hirugarren lerroa hizkuntzalaritzarekin eta soziolinguisti-

ka bariasionistarekin lotu daiteke, lerro horretan hizkuntza-  
ren bilakaera eredu nahi izaten da, dialektoen autonomi-  
zazio prozesuak aztertu...

Orokorrean eredu horiek guztiak gizarte zientziekin zeri-  
kusi gutxi duten aldizkarietan argitaratu izan dira; horrega-  
tik, normalean, arreta gutxi piztu dute gizarte zientzietako  
ikerlarien artean. Gizarte zientzietako eta zientzia gogorre-  
tako ikerketa kulturak ezkontzea ez da batere erraza, gaine-  
ra. Metodologiak ez ezik, askotan ikuspuntuak eta interesak  
oso ezberdinak dira, eta alde baten ondorioak bestean era-  
biltzea zaila da. Kasu batzuetan, gainera, eredu matemati-  
koek eztabaida handiak sortu dituzte, sinplistegiak direlako  
bai ondorioak eta bai ondorioak ateratzeko erabili diren  
metodologiak. Azken kasu horretan arazoa izaten da eredu  
matematikoak aldagai gutxiegi hartu duela kontuan, aldagai  
horiek modu unibokoan erabiliz, gainera.

Gizarte zientzietatik errealitatearen konplexutasuna azpi-  
marratzeko ohitura izaten da, eta gaizki begiztatzen dira  
konplexutasun hori zenbaki hotz batzuetara mugatu nahi  
duten ereduak. Eredu matematikoak sortzeko derrigorrez  
hautatu behar diren aldagaiek axiomak balira bezala fun-  
tzionatzen dute askotan. Errealitatea, ordea, erraztasun ho-  
rietatik kanpo gelditzen da. Aldagaien arteko loturek eta  
eraginek zaildu egiten dute eredu matematikoak sortzea.  
Normalean, aldagaien arteko eragina ez da lineala eta uni-  
bokoa. Geneak bezala, posibilitateak dira, testuinguruaren  
arabera gertatuko direnak edo ez direnak.

Badirudi, bi ikuspuntuak ezkontzeko, gizarte zientzieta-  
kook, alde batetik, gure eredu metodologikoak erraztu be-  
harko genituzkeela aldagai eraginkorrenak zehaztuz eta al-  
dagaien arteko elkarreaginak diskriminatuz. Beste alde ba-  
tetik, zientzia gogorretako zientzialariek gizarte zientzieta-  
tik datozen ekarpenak egoki erabili beharko lituzkete eta  
denon artean lan hipotesiak finkatuz joan. Bistan denez,  
galdera asko sortzen da: hizkuntza, gizarte fenomenoaren  
heinean, konplexua da, eta zaila irudikatzen da sinplifika-

tzea. Kasu horietan sinplifikazioa posible al da? Baina DNA-ren sekuentziak egitea erronka txikiagoa al zen?

## Eredu soziolinguistikoaren berriztatzea

Ikusi dugunez, eredu matematiko egokiak sortzeko, badi-rudi soziolinguistikan ditugun eredu metodologikoak findu eta eguneratu behar ditugula. Azken asteak oso emankorrak izan dira alde horretatik Euskal Herrian. Esanguratsuak diren bi kasu aipatuko ditugu hemen, baina beste batzuk ere aipatzea mereziko luke: bereziki, 2012ko Hausnartu lehia- ketaren aurreneko sariak —Iñigo Fernandez Ostolazaren «Hizkuntza gutxituen eraginkortasuna pertsuasio prozesuetan. Euskararen kasua EAEn»— eredugarri izan beharko luke, euskarari buruz ikuspuntu berritzailea ematen duelako eta diziplinartekotasuna maisuki lantzen duelako, autorea komunikazioaren zientzietatik baitator. Hurrengo baterako utzi beharko dugu aipamen hori.

Mugimendua gertatzea normala da, hizkuntzak aldatzea, egoera sozialak aldatzea... Aldaketa gertakari normala da. Euskal Herrian hizkuntzen inguruan dauden diskurtsoak, iritziak, aurreiritziak eta abar aldatzea ere normala. Normala izateaz gain, arrazoi sozialengatik, politikoengatik, ekonomikoengatik... momentu batzuk giltzarriak izaten dira. Badirudi horrelako une batean gaudela orain: egoera politikoa aldatu da, ekonomian iraultza dugu, gizarteak egokitu eta birkokatu behar du. Iñaki Martínez de Lunak *Bat* aldizkarian argitaratu duen artikuluan batean, euskararen inguruan *framing* (bere hitzetan, ondoko definizioa du *framing* hitzak: «Errealitatearen hautematea eta irudikapena gidatzen dituen egitura kognitiboa») berri bat sortzeko unea iritsi dela dio. Artikulu horretan, jarrerari buruzko inkestetako datuak erabiliz, orain arteko framingaren azterketa egiten du Martínez de Lunak eta haustura bat gertatzen ari dela frogatzen du. Artikuluaren bukaeran, framing berri baten proposamena egiten du. Nire ustez, artikulua hori irakurtzea

ezinbestekoa da euskararen etorkizuna egoki planifikatu nahi bada. *Bat* aldizkariaren zenbaki osoa Iñaki Martinez de Lunaren artikulua inguruan da. Iaz antzeko formatua zuen zenbaki bat ere argitaratu zen *Bat* aldizkarian. Diglosia kontzeptuari buruz Mikel Zalbidetik idatzitako artikulua luze baten inguruan izan zen zenbaki hura. Euskararen etorkizunaren inguruko hausnarketa egoki bat egin nahi bada, zenbaki hura irakurtzea ere ezinbestekoa da.

Bigarren adibidea Mikel Zalbiderekin lotuta dago, berak zuzendu baitzuen Xabier Bengoetxeak arnaguneei buruz argitaratutako lana. Hizkuntza ahulen iraupena eta bizitasuna ziurtatzeko, arnaguneei funtsezkoak dirudite. Xabier Bengoetxearen lana *Bat* aldizkariaren 85. zenbakian argitaratu zen, eta iazko Hausnartu lehiaketaren bigarren saria jasozuen. Lan hori irakurtzea ere ezinbestekoa iruditzen zaigu. Laburbilduz, badirudi hainbat arrazoiengatik arnaguneei ahultzen ari direla. Arrazoiak asko badira ere, soziolinguistek diskriminatu dituzten hiru topatzen dira gutxienez Euskal Herriko arnaguneetan. Aldagai horien ahultze prozesuari dislokazio deitu ohi zaio. Gure kasuan, dislokazio demografikoa gertatzen da: emigrazio eta immigrazio faktoreengatik alde batetik, eta jaiotze tasa ahulengatik bestetik, euskara indarra galtzen ari da gune horietan. Dislokazio demografikoari dislokazio soziokulturala gehitu zaio, gune horietan biztanleen arteko harremanak ahultzen ari direlako; eta arnaguneei euskarazko ekoizpen ahula ikusita, badirudi dislokazio kulturala, neurri batean bederen, gertatzen ari dela. Autoreak aipatzen duen moduan, horrek erronka berriak planteatzen dizkigu. Hori bai, errealista izan behar da (aurten ez bakarrik futboleak), baina beti baikorra. Egoera hobetzeko, euskara erakargarria izateko eta hobeto bizitzeko, baikortasunak ezinbestekoa dirudi. Alde horretatik Kike Amonarrizek egiten duen lan soziolinguistikoa ereduargarria da, zalantzarik gabe!¶



## Zelako krisi, halako bizi, ezin gaitezke superbizi!

Horrela idatzi zion 1980ko hamarkadako egoerari Mikel Antza poeta eta musikari gazteak eta horrela kantatu zuten M-ak taldekoek eta beranduago Kortatukoek. Orduan bonbak eta gizalegerik gabeko sarraskia Beirut sartaldean gertatzen ziren, eta orain kilometro gutxi batzuk ipar-ekialdera mugitu da odoljarioa, Siriara. Baina funtsean arrazoi berdinentatik eta betiko elkarren arteko etsaien kontu doa gatazka, eta ondorio lazgarrienak, beti bezala, jende xumeenak pairatzen ditu. Eskualde geopolitiko horretan, identitate erlijioso muturrekoen gatazkaren azpitik, natur baliabideak eta lurraldeak kontrolatzeko betiko jokoari eusten diote munduan boteretsuak izan nahi dituzten estatuek eta horiek zerbitzatzen dituzten botere ekonomikoek.

Otomandar Inperioaren kontrol lausotik Mendebaldeko kolonialismo ankerrena pairatzera pasatu ziren lurralde horietan, eta orain zinismo handia erabiliz bakarrik esan daiteke beste egoera batean daudela. Metropoli ohiak —XIX. mendean lurralde horietan ibili ziren Erresuma Batua eta Frantzia— eta XX. mendean bokazio berbera erakutsi duten AEBek, Errusiak eta baita Txinak ere —urrunagotik eta neurri batean Putinen bitartez— joko horretan parte hartu nahi dute. Aurrean nolabait kaliferri global —inperial— bat nahi duen islamismo geroz eta desesperatuagoa —ziurrenik ikusten duelako bere proposamena zaharra dela eta bakarrik desesperazioan elika daitekeela—, eta, betiko leku eta momentu historikoetan gertatzen den legez, soilik bere bizimodua hobetu nahi duen jende xehea, triskantzatik defendatzeko ahal duena egiten.

Libian bezala, Siriakoak ez dauka konponketarik, historia aporiaz beteta dago eta oraindik askoz gehiago ikusi behar-ko. Jende xehearentzat ihesa baino ez da geratzen, eta ez da erraza errefuxiatuez beteta dagoen eskualde batean, nora ihes egiterik ere ez dagoenean; baina ez du ematen bestelako irtenbiderik goiz agertuko denik: demokrazia konbentzional egonkorrak, Legearen inperioak eta halako kontuek denbora behar izaten dute ezartzeko. Eta gero, noski, ez dira miresgarriak; halako erregimenetan bizi garenok sarritan ez gara oso pozik egoten daukagunarekin, baina ez dugu galdu nahi izaten ere. Libian edo Malin bezala, ad hoc eratutako Mendebaldeko koalizioaren baten indar armatuen interbentzio batek aporia laxatuko luke; ez luke gauza handirik konponduko, baina agian odoljariora moteldu edo apur bat geldituko litzateke. Eta tiranoren bat garbituko balute..., sortuko dira besteak; baina bitartean zenbait jende xeheri bizirauteko aukeraren bat ematen bazaio, gaitzerdi. Baina Siriako tiranoa oso ondo konektatuta dago Errusiarekin, eta Putinek bere esteroide geopolitikoak erakutsi behar ditu, Txinako botereari erakutsi haren jendarmerik hoberena izan daitekeela, Europa zaharrari begira. «Hitzak soberan daude, pistolak mintza bitez» kantatzen zuten ere M-ak taldekoek, eta Negu Gorriakekoek gero, profetikoak izan ziren gurean; eta orain halaxe gertatuko da Ekialde Hurbilean, oraindik luze.

Begira, bestela, Hego Amerikari. Orain hazkundean dagoen eskualdea da, erregimen konbentzionalki demokrati-koak daude kasik estatu guztietan eta nahikotxotan ezkerreko aukerak daude gobernuan, batzuk oso erradikalak eta iraultzailetzat hartzen direnak. Baina biolentziak, hilketek, lapurketek, bahiketek eta matxismo bortitzenak marka guztiak hausten dituzte. Testosterona bob-bor duen populazio oso gaztea, ohorean oinarritutako kulturak, estatu modernoaren itzala oraindik lurralde osoan pausatu ez izana, biolentzia politikoa barra-barra erabili den iragan hurbila. Halako arrazoiak erabiltzen dira normalean, eta zuzen daude,

egoera horiek azaltzeko. Horregatik, erraza suertatzen da antzeko geroa aurreikustea Ekialde Hurbilarentzat eta munduko hainbat eskualderentzat. Europan ez: hemen kultura zibikoa garatuta dago, ohorea eta gerra kontu urrunak dira, estatuaren baliabide polizialak edonora heltzen dira eta, batez ere, gazte gutxi daude eta testosterona erretzeko telebis-tako *reality*ak. Hori bai, bortizkeriatik eta miseriatik ihesi datorren jende biolentotik babesteko, agian ahalegintxoren bat egin beharko eta hain desatseginak, gutxi ilustratuak eta zabarrak diren alderdi neoarrazistei botoa eman beharko. Total, arrazismo postmodernoa praktikatzen dute, arrazista ez den arrazismo hori, «horien kultura diferentea denez, hobe bakoitza bere lekuan» dioten horiek, ordena mantentzen hain abilak diren bortitz maitagarriak.

## Goxo-goxo bizi, arriskuak ametsetan

Beste espezie maitagarria, desagertzeko zorian zegoela zirudiena baina, azkenean —ondo elikatzeagatik eta gauero maindire artean goxo-goxo lo egiteagatik— betikotzea lortzen ari dena, Mendebaldeko ezkerreko intelektual engaiatuena da. Horiek superbizi ez, baita ondo bizi ere... Ehun ziren, gero hogeita bi eta orain bakarrik daude bi... edo hiru, baina beti daukate errezeta miresgarria. Pare bat adibide, izenik eman gabe. Baga, greziar jatorriko iparramerikarra, Euskal Herrian bisitan udaberrian, suminduen mugimenduak-eta ondo daudela baina programak eta lidergoak behar direla, bestela ez dagoela zer egiterik, hemen euskaldunok orain hobeto egiten dugula... Bo, laga dezagun gaia hurrengo baterako, Gipuzkoan lidergo sendoa omen dago, boteretik errealitate soziala aldatzeko. Salbatuta gaude. Bitartean, etxetik kanporatua izan daitekeen jendea plataformetan antolatzen da kanporaketak gelditzeko, epaileak ikartzten dira eta lege aldaketak eskatzen dituzte, polizien sindikatuek esaten dute eurak ez daudela egunero jende askoren kontra oldartzeko, finantza botereek erabakitzen dute hobe

dela higiezinaren negozioan egon diren enpresa handiak kiebrara bidaltzea matxinadak ugaltu baino lehen... Eta azkenean pobre batzuek beste gau batez ohea dute edota pisua alokairuan hartu ahal dute. Zer gutxi iraultzaren zain dagoenarentzat!

Adibide gisa aipatu nahi genuen bigarren intelektuala, generoko izar mediatikoena dudarik gabe, Lenin birpentsatzearen kariatz postmoderno guztien buru bilakatu da, to eta no marka! Izan ere, hain ona da erreferentzia zinematografikoak txertatzen... Begira, azken liburuari *arriku bizian amets egindako urtea* ipini dio izena, gerra-kazetari buruzko Peter Weirren film baten titulua gogoraziz. Eta portadan ez da agertzen ba idazlea bera, kazetari ausartez mozorrotuta sutan dagoen auto baten aurrean? A ze arrisku! Ez gara gu ere sutan jarriko. Bere tesia: 2011n errebolta global batekin amets egin genuen, baina 2012an mugimendu iraultzaile guztiak —suminduak, Occupy Wall Street, arabiar herrialdeetako matxinadak— amatatu egin dira. Zein ondorioa heldu da leninismoaren berriztatzailea? Iraultzaren txinpartak edonon eta edonoiz egin dezakeela eztanda, besterik gabe adi egoten eta itxaroten jakin behar dela, gero bidea egiteak berak esango duela nondik nora jo. Antzeko kontuak esateagatik —filosofikoki hobeto argudiatuta, baina *pelikula* gutxiagorekin—, John Holloway irlandar-mexikar irakasleari sekulakoak eta bi esan zizkioten orain dela urte batzuk munduko postmarxista guztiek: autonomazo espontaneista... Tira, Hollowayk mundua boterea eskuratu gabe aldatzea proposatzen zuen; azken finean, horixe praktikatzen zuen eta duen mugimenduarekin, zapistekin, sintonian zegoen. Baina postleninistatik behinena urte batetik bestera hain desesperantzatua agertzea... Jakin beharko luke historian gertaerak filmetan baino mantsoago doazela. Auto bat erretzen duen iraultzaileak ezin du espero bere ekintza iraultzailearen emaitza erabatekoa di-da ikusiko duenik. Beno, agian bere autoa erretzen hasiko balitz...

## **Detroit: hiriaren mugak?**

Egungo krisia ulertzeko Hollywoodeko filmetan ematen zaizkigun parametroetan baino apur bat sakonago begiratu beharko badugu gaur, benetako krisi sistemiko baten aurrean —horrek dakartzan desordena, bortxa, ustelkeria eta dena delakoen eztanda barne— ote gauden erabakitzeke beste elementu batzuei erreparatu beharko diegu. Zentzu horretan oso esanguratsua da Detroit hiriaren egoera: automobilaren industriaren hiriburua izan zen AEBetan eta ondorioz mundu globalean, gero Japoniako industriak lehia egin zion General Motors-i —euskal superingeniari batek 1980ko hamarkadako gure krisi industrialari erremedioa (GM fabrika bat Zornotzan zabalduz eta erlojua ezkerreko besoan eramanez) ipini behar zion bitartean—, eta, azkenean, deslokazioek, petrolioaren prezioek, krisi orokorrak..., denak jokatatu du Detroiten kontra. Gaur egun, zenbait auzotan hiri abandonatua da, populazioaren erdia galdu du: klase ertain zuria periferia gentrifikatura joan da, eta langileek alde egin behar izan dute lana edo bizimodua topatu daitekeen beste lekuetara. Bertan geratu direnak hiri-ortu zabalak eratzten ari dira, bizirauteko; baina, horri esker, geroaren eredu posturbanoa aurreikusten ari dira, juxtu munduko populazio erdia baino gehiago eremu urbanoetan bizi den momentu historiko erabat berrian.

Eta geroa diogu —hiriak despopulatuak, hiri-ortuak, inpe-rioren dekadentzia—, ze begira, bestela, orain kapitalaren errotaziorako leku gorena den Txinari. Pekin eta hiri handietan kutsadura horren handia da, ezen umeak maskaraz ateratzen baitituzte kaleetara, eta haurtzaindegi eta eskoletan ez baitira inoiz teilatu azpitik ateratzen. Bestalde, egia da orain Txina kapitala zirkulatzeko eta inbertitzeko zentroa dela, kapitalismoaren azken, edo azkenetako, esperantza ez bada; Mendebaldeko burtsak erori egiten dira ekialdeko erraldoian krisia ager daitekeela susmatzen den bakoitzean... Eta normala da. Datu fidagarrien arabera, momentu hauetan

Txinako BPGaren %70 izan daiteke etxebizitza berri, hiri berri eta azpiegituren eraikuntzan xahututako dirua. AEBetan gastu hori BPGaren %20 izan ohi da; Japonian, 1980ko hamarkadan, higiezin burbuila lehertu baino lehen, %35ean zegoen gastu hori. Baina %70 hori, nahiz eta Txina bezalako leku handi batean izan, erabat logikatik kanpo dago. Horixe bai burbuila erraldoia! Baina hori da kapitalaren logika: gaurkoari begira, eta biharkoa... hor konpon!

Ekonomia errealak eskatua ez bada —eta kasu honetan, ia beti bezala, ekonomia errealetik tiratzeko estrategia da, hutsala izan daitekeena—, azpiegituretako gastua, ustelkeria berotzeaz aparte, geroko hondamendiak bultzatzeko estrategia epe laburrekoa da. Eta adi, oso erraza da Castellón dagoen hegazkinik gabeko aireportuari buruz barre egitea. Baina merkatuek, hots, murrizketek, ez badute konpontzen, laster ehun kilometroko erradioa duen tren lasterrerrako sarea edukiko dugu Hego Euskal Herrian, 50 kilometroko beste marratxo deskonektatu batekin, agian: makinista gizagaixoa, azeleragailuari sakatu bai, baina esku-frenoa kendu barik.¶